

# Zu hemen zaude. goiena



## AUTOBUS GIDARIAK GREBAN, SEGURTASUNIK EZA SALATZEKO

"Era guztietako erasoak" jasan dituztela diote Gipuzkoako gidariak, eta neurriak eskatu dituzte / 4

Avanzako gidariak astelehenean Arrasaten egindako elkarretaraztean.

XABIER URZELAI

### SINADURAK

 XABIER BERASATEGI / 10	 ALAITZ JAUREGI / 30
 IBON ARRUPE / 14	 XABIER GESALAGA / 35
 OIER ZUMARRAGA / 22	 MIKEL BIAIS / 48

**Mendi ibilaldiak, azokak, tailerrak eta kultura ekitaldiak Antzuolan, Puntaik Punta jaialdian / 2**

**Goienakide berriak egiteko kanpaina aurkeztu du Goienak**

'Okm: batzen gaituen distantzia' du izena sustatze kanpainak, eta urte osoan herririk herri zabalduko da / 8



Asier Sala eta Garazi Barrena, Goienakideren kanpainaren aurkezpenean. X.U.



Uemako eta hiru finantza erakundeetako ordezkariak Bergaran, eguaztenean. J.B.

**Euskararen aldeko hitzarmena sinatu du Uemak hiru banketxerekin**

Laboral Kutxak, Bankoak eta Kutxabankek euskara bultzatzeko konpromisoa hitzartu dute Uemarekin / 4

**Salatu dute Bergaran paper-fabriketako hondakinenezako makroerraustegi bat eraiki gura dutela / 27**



Arturo Goikoetxea neurologoari elkarrizketa

+

Sexuaz hitz egin dezagun, garaia da eta!



Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA**

ESKORITATZA  
T.- 943 71 48 45  
www.hemen-garbiketak.com  
hemen@hemen-garbiketak.com

# Bidezidorretatik puntara, kultura eskutik hartuta

Astelehenean hasi zen Debagoieneko bidezidorren jaialdia, baina oraindik egitarau zabala dago astebururako: mendi ibilaldiak, bisita gidatuak, tailerrak, kontzertuak... Domekan amaituko da aurten Antzuolak hartu duen Puntaik Punta ekimena

## Uxue Igarza Loiola ANTZUOLA

Zenbait debagoienarrek dagoeneko gozatu dute aurtengo Puntaik Punta jaialdiaz; izan ere, astelehenean abiatu zen, eta ordutik, hainbat ekimen egin dituzte, hala nola Pou anaiak eskaintako proiektzioa, *Mendi-film* emanaldia eta Mikel Lizarralderen hitzaldia, esklerosi anizkoitzaren, kirolaren eta bizipozaren inguruan.

Egitarauaren zati handiena, baina, asteburura begira antolatatu da, eta, hortaz, bidezidorren jaira gerturatzeko asmotan daudenak garaiz dabilta oraindik. Gaurtik domekara bitartean, dozena erdi ikastaro, bederatzi mendi ibilaldi eta hamar emanaldi egongo dira, besteak beste. Gogoratu behar da edizio hau Antzuolak hartuko duela, baina antolatzaileek azpimarratu dute, modu batera edo bestera, bailarako gainerako herrietara ere zabalduko dela programazioa.

Zehatz esanda, bosgarren edizioa da 2021eko hau, baina Debagoieneko Mankomunitateak eta Antzuolako Udalak bi urte daramatzate prestaketa-lanetan; pandemiak bete-betean eragin baitzien iazko asmoei. Mikel Bargiela Antzuolako Kultura zinegotziak adierazi du "gogotsu" ekin diotela asteari eta ziur dau-



Martitzenean Pou anaiak egindako emanaldia. ANTZUOLAKO UDALA

dela "balorazio positiboa" egingo dutela: "Nahiko lan izango dugu, baina pozik gaude. Gogotsu gaude, pasatu dugun urte eta erdi honen ostean".

## Kirola eta kultura, eskutik

Jaialdiaren oinarria bidezidorrak dira; natura eta kirola, azken finean. Gauzak horrela, egitarauari erreparatuta, hainbat plan daude aukeran. Goizetan mendi ibilaldiak izango dira protagonista. Bihar, adibidez, Antzuolako mugarrak eta In-txortako ibilbidea ezagutzeko

aukera izango da, besteak beste. Eta domekan, berriz, irteereta-ko bat Atxorrotxetik Eskoriatzarainokoa izango da. Horrez gain, naturan beste era batera murgilduta, hegaztiak, landareak eta izarrak behatzeko tartea ere hartu dezake nahi duenak, eta beste abentura bat bilatzen dutenek espeleologia egiteko aukera ere badute Arrikruzten.

Halere, kirolaz eta naturaz baina, kulturaz eta aisiaz gozatzeari nahiago dutenez ere badago zer egin. Gaurtik domekara bitartean bederatzi musi-

ka emanaldi egongo dira –Ska-bidean, Kilimak, Sara Zozaya, Neomak, Sweet Barrio...–, eta era askotako tailerrak, hitzaldiak eta proposamenak ere batzen ditu egitarauak.

Bestetik, txikienek ere Puntaik Punta jaialdiaz gozatzeko aukera aparta dute, beren beregi haien antolatutako ekimenean. Gaur eta bihar txotxongilo tailerra egongo da, eta Irrien Lagunek emanaldia egongo dute gaur, Torresoroan, 19:00etan. Horrez gain, familian egiteko planak ere egongo dira; adibidez, azken egunerako, domekarako, Arantzazu Parketxean antolatutako orientazio-jolasa.

Izen-emateei dagokienez, taldeak mugatuak izango dira ibilaldi, bisita gidatu eta tailerretan, eta, horrenbestez, horietan aurrez izena eman beharko da [puntaikpunta.eus](http://puntaikpunta.eus) webgunean edo 943 79 64 63 telefonora deituta. Kontzertu, antzerki eta ikuskizunetan, bestalde, ez dago izena eman beharrik. "Orain, lege aldetik ez dago mugarik, eta lasaiago gabiltza", onartu du Kultura zinegotziak. Dena den, hala eskatzen den ekimenean izena ematera animatu nahi izan ditu herritarrek: "Animatu dadila jendea, ez dezala pentsatu ez dela tokirik egongo".

Egitarauko ekimenez gain, azoka ere egongo da Antzuolako erdigunean. Inguruko artisauek parte hartuko dute, eta bidezidorren inguruko informazioa eskaintzen duten postuak ere izango dira; baita bailaratik kanpoko ibilbideak erakusten dituztenak.

## Zerbitzu guztiak, indartuta

Umeentzako prestatutako guneek eta azokak eragina izango dute herri barruan aparkatzeko or-

duan. Arazo horri irtenbidea eman nahian, Antzuolako enpresekin harremanetan jarri zen Udala, eta enpresak prest agertu dira euren aparkalekuak bisitariei uzteko. Herrigunean baino gehiago, autoak kanpoan dauden aparkaleku horietan uztea hobesten dute antolatzaileek. Hala, herriaren bi muturretan seinaleak jarriko dituzte, autoarekin doazenak egoki bideratzeko.

Nolanahi ere, garraio publikoaren aldeko apustua egin nahi da, eta Lurraldebusekin zerbitzua indartzea adostu dute; batez, ere egubakoitzean eta zapatuan, 00:00etatik 03:00etara bitartean. Lurraldebusen webgunean –[lurraldebus.eus](http://lurraldebus.eus)– argitaratu dituzte ordutegi eta ibilbide guztiak.

Garraioaz gain, otorduak ere buruan izan dituzte antzuolarrek. Bargiela esanetan, herriko ostalariak "prest" daude, baina, ohiko zerbitzu horrez gain, jaialdian jateko eta edateko beste postu batzuk ere jarriko dituztela aurreratu du.

Pandemiaren eraginak duela aste batzuk baino apalagoak diren arren, Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak gogorazpena egin nahi izan zuen jaialdiaren aurkezpenean: "Beldurrik gabe baina zentzuz jokatzeko dei egin nahi diet herritarrei". Herriarentzako –eta beste neurri batean, bailara osoarentzako– eronka handia dela gehitu zuen Kortabarria, eta "ondo joatea" dela denen nahia.

**GAUR ETA BIHAR, GAUEKO AUTOBUSEN ZERBITZUA INDARTU EGINGO DA, PUNTAIK PUNTA DELA ETA**

# BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan  
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.  
**Salbuespenik gabe.**



-  ZILORA JAUSITAKO OBJEKTUAK BERRESKURTUTEA
-  HARRAPATZE EGONAK
-  IGOGAILUEN ZARATAK
-  365/36/7



**bertako**  
igogailuak | ascensores  
[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)

**ARABA**  
945 712 822

**GIPUZKOA**  
943 903 450

**BIZKAIA**  
946 523 935

**NAFARROA**  
848 870 917



Gaur kontzertua eskainiko duen Skabidean taldea. SKABIDEAN

## Puntaik Punta jaialdiaren egitaraua

### Urriak 22, egubakoitza

- **09:00** Mendi ibilaldia: Udala-Mineta-Santa Lutzia-Udala\*.
- **09:00** Mendi ibilaldia: Antzuola-Arranoaitz-Antzuola\*.
- **16:00** Ibilaldia eta tailerra: sendabelarrak ezagutzen\*.
- **17:00** Haurrentzako tailerra: txotxongilo tailerra\*.
- **18:00** Baso bainuak\*.
- **19:00** *Irrien Lagunak 10 urte*. Emanaldia, Torresoroan
- **19:00** Patxi Luque. Emanaldia, Zurrategi plazan
- **22:00** Skabidean. Emanaldia, Herriko Plazan

### Urriak 23, zapatua

- **09:00** Mendi ibilaldia: Antzuolako mugarriz mugarri\*.
- **09:00** Mendi ibilaldia: Arrasate-Larriño-Galarrixa-Aretxabaleta\*.
- **09:00** Bizikletaren bisita gidatu interaktiboa Trenbide Zaharrea\*.
- **09:30** Mendi ibilaldia: Elgeta 1936-1937, Intxortako ibilbidea\*.
- **10:00** Mendi ibilaldia: Dolmenen ibilbidea\*.
- **10:30** Bisita gidatua: Antzuolako herrigunearen bilakaera\*.
- **12:00** Haurrentzako tailerra: Txotxongilo tailerra\*.
- **13:00** *Ertzak bidean* emanaldia, Herriko Plazan\*.
- **15:30** Bisita gidatua: *Espeleotxiki* Arrikruz-Oñati kobetan\*.
- **16:00** Ibilaldia eta tailerra: sendabelarrak ezagutzen\*.
- **16:30** Bisita gidatua: pottokaren oinatzak jarraituz\*.
- **18:00** Baso bainuak\*.
- **18:00** Iñaki Mata. *Barreras* emanaldia
- **20:00** *Hezkurbeltzak* emanaldia, Zurrategi plazan
- **21:30** *Lekittoko deabruak* taldearen emanaldia, Kanpo beltzean
- **22:30** *Neomak* taldearen emanaldia, Herriko Plazan
- **23:45** *Kilima* taldearen emanaldia, Herriko Plazan

### Urriak 24, domeka

- **09:00** Mendi ibilaldia: Lizarraga-Uzarraga\*.
- **09:00** Mendi ibilaldia: Atxorrotx inguruak - Eskoriatza\*.
- **09:00** Mendi ibilaldia: Leintz Gatzaga-Hiruerreketa-Leizargarate-Aretxabaleta\*.
- **09:00** Hegaztiak behatzeko irteera\*.
- **10:00** Bisita gidatua: Antzuolako ermitak ezagutzen\*.
- **10:30** *Espeleoarrikutz*. Lurpeko bidezidorrak Arrikruz-Oñatin\*.
- **11:00** Hegaztiak ezagutu eta behatu. Familian egiteko\*.
- **11:00** Bisita gidatua: pottokaren oinatzak jarraituz\*.
- **11:00** Orientazio jolasa familientzat\*.
- **11:00** Tailerra: eskuko krema egitea\*.
- **11:30** Bisita gidatua: Amatxo gaztandegi eta artegia\*.
- **13:00** Sara Zozayaren emanaldia, Herriko Plazan.
- **16:00** *Jolasenea*. Dadoak botaz larrunrarin gora! Zurrategin.
- **18:00** *Sweet Barrio* emanaldia, Herriko Plazan.

\*Aurrez izena eman behar da.

## Autobusak jarri dituzte biharko Sareren manifestaziora joateko

Antzuolan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin autobusak antolatu dituzte Donostiako mobilizaziora joateko

U. I. L. DEBAGOIENA

*Ibilian-ibilian, etxerako bidean* kanpainari amaiera emango dio biharko manifestazioak. "Salbuespen legedia guztiz amaitzeko ordua dela" eta "presoen etxerako bidea egiten hasiak

direla" aldarrikatu nahi du Sarek. "Etorkizunari ateak zabalteko unea iritsi da; ibilian egin dezagun etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidea". Hori esanez animatu nahi izan dituzte herritarrek 17:00etan Anti-

guatik irtengo den manifestazio orokorrean parte hartzera.

Autobusa hartzeko, Arrasaten, aurrez Irati topalekuan eta Taupa tabernan eman behar da izena, eta 15:00etan irtengo da, Okoretegi ondoko geltokitik. Bergaran, Arranon eta Pol-Polen eman behar da izena, eta autobusa 15:45ean irtengo da, geltokitik. Oñatin, berriz, Arranon eman behar da izena, eta 15:00etan irtengo dal Correostiik. Jakinarazi dute Antzuolan antolatu dutela autobusa.

**ERRAZTASUNA**

**AURREZPENA**

**INBERTSIOA**

**EROSOTASUNA**






**A-636 Beasain-Bergara**

**autobian ere bai, askoz gehiago!**

**ERRAZTASUN GEHIAGO**  
Aurki jarriko da abian A-636 autobialako bidesari berria, eta ABIATU gailuari esker oso erraz bermatu ahal izango dituzu teleordainketaren deskontuak eta onurak.

**AURREZPEN HANDIAGOA**  
Deskontu progresiboak eta eskusiboak ABIATUrekin, hileko gastu-mugarekin.

**INBERTSIO HANDIAGOA**  
Bidesariekin bildutakoa errepidearen kudeaketara, mantentze-lanetara eta hobekuntzara bideratzen da.

**Ez baduzu ABIATUrik, eskatu ORAIN!**

Ez itxaron azken unera arte. Eskatu zure ABIATU orainxe bertan, eta hartara, garaiz jaso eta, A-636 autobidetik kezkarik gabe eta eroso eta erraz ibiliko zara.

Sartu [www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus) orrian, sortu zure erabiltzaile-profila, aurrez ez baduzu, eta eskatu ABIATU. Prozesua erraza eta oso intuitiboa da.

[www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus)

**Informazio gehiago:** [info@bidegi.eus](mailto:info@bidegi.eus) / 943 105 106 / GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

# Esku-frenoa jarri dute Avanzako gidariek

Azken hilabeteetan "era guztietako erasoak" jasan dituztela salatu dute Gipuzkoako autobus gidariek, eta lanuzteak egin dituzte aste honetan. Avanza enpresari eta Foru Aldundiari euren segurtasuna bermatzeko eskaera egin diete, besteak beste

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Hilaren 3an bezero batek eraso egin ziola salatu du Avanza Gipuzkoa enpresako autobus gidari batek. Gehitu du hori izan dela eskualdeko azkena, baina ez dela inondik inora ere "kasu isolatu bat". Errespetu-faltak, irainak, mehatxuak edota ibilgailuari kalteak eragitea "ohiko" bihurtzen ari direla salatu dute gidariek aste honetan.

Astelehenean lehenengo lanuztea egin zuten eta gaur, egubakoitza, bigarrena: 06:00etatik 08:00etara eta 18:00etatik 20:00etara ez da zerbitzurik izango lehen Pesa izenez ezagutzen ziren autobus-lineetan. Horrez gain, astelehenean gidariek elkarretaratzea egin zuten Arrasaten, Debagoieneko Ospitaleko geltoki berrian. Egunerokotasunean –eta, batez ere, Debagoieneko herrietan– jasaten dituzten egoerak "geroz eta bortitzagoak eta arriskutsuagoak" direla jakinarazi zuten.

Galder Arrillaga gidariak azaldutakoaren arabera, dagoeneko "erabat ohituta" daude zenbait bezeroren irainetara eta errespetu-faltara, baina egunetik egunera egoera "gaiztotzen" ari dela azpimarratu du, eta duela lauzpabost urtetik hona "marra gorri guztiak" gainditu direla. Labanarekin mehatxu egitea edota autobusa zerra batekin apurtzea dira, besteak beste, azken hilabeteetan jasan behar izan dituzten egoeretako batzuk. Halaber, argitu nahi izan dute erasoak "gauez nahiz egunez" izaten direla, eta ez dagoela eraso egiten dutenen profil zehatzik. "Ez da gazteen kontua, ezta gauez mozkortuta bidaiatzen dutenena ere. Eguneroko, edozein momentutan, pairatzen ditugu egoera bortitzak, eta, modu batera edo bestera, adin-tarte guztietako jendea izaten da eraso egiten diguna", argitu nahi izan du Arrillagak.



Autobus gidariak protestan Arrasateko geralekuan. XABI URZELAI

## AUTOBUS GIDARIEK GEROZ ETA EGOERA BORTITZAGOAK BIZI DITUZTELA SALATU DUTE ASTE HONETAN

**Debagoiena, "arriskutsuena"**

Gidari guztiak ados daude: Debagoiena zeharkatzen duten zerbitzuetan jasaten dituzte eraso gehien. "Ez dakigu zergatik den, baina, ematen duenez, hemen inguruan oso barnerrak dago gidarien kontra egitea", diote elkarretaratzean batutako langileek. "Alde handia dago eskualdeen artean", baieztatu dute. Autobusa bete eta lekurik gabe geratu direlako edota lineaz nahastu direlako haserretzen dira batzuk: "Gertatzen dena gertatzen dela, joera gidariaren kontra egitea da".

**"Lasai" jarduteko eskaera**

Avanza Gipuzkoa enpresari eta Foru Aldundiari euren segurtasuna bermatzeko eskatu diete gidariek. "Gure lana lasai egin ahal izatea nahi dugu, eta horretarako hainbat proposamen

daude mahai gainean: kabina itxiak egitea, segurtasun pribatua jartzea zerbitzu jakinetan... Bakoitzak bere proposamenak egin ditu", esan du Arrillagak. Nolanahi ere, langileen esanetan, enpresak eta Aldundiak ez dute hitz egiteko prestutasunik erakutsi, eta hori ere "langileekiko erasotzat" jo dute.

Horri lotuta, egoerari irtenbiderik eman ezean egun osoko grebak egingo dituztela aurreratu du Arrillagak: "Egoerak gainditu egiten gaitu eta horrela ezin da zerbitzua ganoraz egin". Bide batez, gidariek "barkamena" eskatu diete lanuzteen ondorioz kaltetutako erabiltzaileei: "Badakigu lanuzteekin bidaiariei kalte egiten diegula, eta barkamena eskatu nahi dugu. Pena da, baina, zoritxarrez, ez dugu beste aukerarik".

Era berean, beste mezu bat ere helarazi nahi izan diete autobusa hartzen dutenei: "Zerbitzuaren inguruko keak edo eragozpenak izanez gero, hori jakinarazteko bidea ez da gidariarengana haserre zuzentzea". Erreklamazioak enpresara deituta egin behar direla adierazi dute autobus gidariek.



Finantza erakundeetako eta udaletako ordezkariak Bergaran. JOKIN BEREZIARTUA

## Finantza alorrean ere euskaraz jarduteko konpromisoa hartu dute

Uemak, Laboral Kutxak, Kutxabankek eta Bankoak euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu dute

**U. I. L. BERGARA**

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (Uema) osatzen duten 44 herrietako alkateak Bergarako Seminarixoan izan ziren eguaztenean, Kutxabank, Laboral Kutxa eta Bankoa banketxeetako ordezkariekin. Bertan, hitzarmen berria aurkeztu zuten.

Hitzarmenaren helburua finantzen alorrean euskararen erabilera handitzea da; horretarako, banketxe horiek udalerrri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenesteko konpromisoa hartu dute. 2016an sinatu zen lehenengo hitzarme-

na, eta, bost urte igaro diren honetan, beste hamalau udalen eta Bankoa finantza erakundearen partaidetzarekin berritu da.

**Kanporako zein barrurako**

Euskara sustatzeko neurri zehatzak jaso dituzte dokumentuan; bai herritarrei begira jarduteko eta baita erakundeen arteko harremanak egiteko ere.

Bezeroari lehen hitza euskaraz egitea, kutxa automatikoetan euskara lehenetsita egotea eta lankideen artean erabilera sustatzea dira hitzarmenean jasotako puntuetako batzuk.

## Aurreikusitakoa baino 55 milioi gehiago jasoko dituzte udalek

laz batutako zergei esker Gipuzkoako ekonomia erreuperatzen ari dela adierazi du Foru Aldundiak

**U. I. L. DEBAGOIENA**

Markel Olano diputatu nagusiak eta Jokin Perona Ogasun eta Finantzako foru diputatuak jakinarazi dute aurrekontuan finkatutakoa baino 55 milioi euro gehiago izango dituztela Gipuzkoako udalek; beste modu batera esanda, aurreikuspenen arabera, 553 milioi euro jasoko dituzte Udalen Finantzaketa Foru Funtsetik eratorritan.

Aurrekontuan gertatu den hazkundera iazko zerga bilketa-oren ondorio da; izan ere, orain arte egindako bilketa handiena

egin zen 2020an. Datuen arabera, aurtengo urterako egindako aurreikuspenak 527 milioi euro hobetu dira (+%11,3), eta, 2020ko likidazioarekin alderatuta, berriz, hazkundera %11,7koa izango da; hau da, 541 milioi euro gehiagokoa.

Herriei dagokienez, 2021eko aurre-likidazioak honako zenbateko hauek ditu: Leintz Gatzagak 1.165 euro izango lituzke biztanleko, Elgetak 750, Antzuolak eta Aretxabaletak 749 euro, Bergarak 745, Arrasatek 744, Oñatik 740 eta Eskoriatzak 730.



Maite Eugenio eta Nerea Bergaretxe, Begia Optikari.

## "Sartzeaz bat ikusten da Begia Optika berezia dela"

### MAITE EUGENIO ETA NEREA BERGARETXE BEGIA OPTIKA

Uztailaz geroztik zabalik dago Arrasaten Begia Optika. Nerea Bergaretxe eta Maite Eugenio daude han. Bezeroarekiko harremana, optikako askotariko espezialitateak eta produktu-marka bereziak dira Begia Optikaren bereizgarriak

Urte askoan beste batzuentzako lanean aritu ostean, pausoa eman eta aurtengo udan optika eta optometria denda berria ireki dute Maite Eugenio bergararrak eta Nerea Bergaretxe arrasatearrak, Arrasaten: Garibai etorbidea 6. Ilusio handiarekin ekin diote bideari.

#### Gustura izandako harrerarekin?

Oso harrera ona izan dugu. Jen-de asko hurbildu zaigu eta optikari emandako itxuragatik zoriondu egin gaituzte. Urte asko daramatzagu optika munduan: hemeretzi urte egin ditut beste optika baten lanean, eta Maitek hamabi. Ezagunak gara.

#### Optika munduan ezagunak zarete.

Bai, ni neu, Nerea Bergaretxe, arrasatearra naiz, optiko-optometrista, eta Maite Eugenio bergararra optiko-laguntzailea. Biok gara bazkide. Urte asko aritu gara beste batzuentzako lanean, eta pausoa ematea erabaki dugu. Nik optometrista lanak egiten ditut

eta Maitek, komertzial lanak. Urte asko daramatzagu alor honetan, Arrasaten optika lanetan, eta dagoeneko ezagunak gara jende askorendako.

#### Zein da Begia Optikaren bereizgarria?

Dendara sartu bezain laster nabaritzen da gure optika itxuraz desberdina dela. Urte askoan, optikek joera izan dute supermerkatuak balira bezala hornitzen: betaurrekoen erakusketak, eskaintza bereziak une oro eta nonahi... Gure optika bertakoagoa eta pertsonalagoa da; bai denda bera eta baita tratua edo bezeroekiko harremana ere. Ikusmena zaintzeari eta egunero jarrita eroan beharrekoa den betaurrekoa egokiena eta itxura aldetik dotoreena ondo aukeratzeari garrantzi handia ematen diogu.

#### Zertan zaudete espezializatuta?

Optometrista lanetan: kabineteetan, optometrian, ukipen-lenteetan... Era berean, begiko tentsioaren neurrian, umeen artean miopia baretzeko tratamenduetan eta baita ikusmen urritasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzuetan. Gure helburu nagusia da ikusmenaren alorrean pertsonen bizi kalitatea hobetzea.

#### Ze eskaintzen duzue optika moduan?

Tratua, harremana eta espezialitateak bezain garrantzitsua da produktua. Erabaki genuen produktu desberdina eskaintzea, baina hau ez da erraza gaur egun. Izan ere, dena daukagu

eskuragarri Interneten. Horregatik, marka edo etxe esklusiboak ekartzea erabaki genuen. Begia Optikari eros daitezkeen marka batzuk ez dituzte alboko beste optika batzuek eskaintzen. Orain, esaterako, *smart glasses*-ak dauzkagu salgai, bluetootha daukaten betaurrekoak; betaurrekoak jantzi eta deiak jaso edota musika entzuteko aukera ematen diguten betaurreko teknologikoak.

#### Besterik?

Hain da garrantzitsua ikusmena... Bizitzako uneak ondo ikusi nahi ditugu denok. Ikusmen murriztua duten pertsonen egunerokoa erraztu. Arrasaten, gure herrian, hemen gaude Begia Optikari, jendeari laguntzeko. Eta horrelako momentuak esperientzia atseginago bihurtzeko. Horregatik gonbidatzen ditugu herri-tarrak gu ezagutzera etortzera.

**"IKUSMENAREN ALORREAN PERTSONEN BIZI KALITATEA HOBETZEA DA GURE NAHIA"**

**"BEGIA OPTIKAN, TRATUA ETA ESPEZIALITATEAK BEZAIN INPORTANTEA DA PRODUKTUA"**

- OPTOMETRIA •
- UKIPEN-LENTEAK •
- IKUSMEN MURRIZTUA •
- MIOPIA KONTROLATZEKO TRATAMENDUA •

*Gertuko profesionaltasuna*



Garibai etorbidea 6 behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 25 80 86  
begia\_optika



# ETAren biktimen minaz: "Ez zen inoiz gertatu behar"

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE Ezker independentistak *Urriaren 18ko adierazpena* plazaratu zuen astelehenean. Bertan esan zuten, besteak beste, ETAren indarke-riak eragindako biktimen "sufirimendua" ez zela "inoiz gertatu behar".

Goienak prest zuen ordurako ETAk armak utzi zitueneko hamargarren urteurreneko ikus-en-



Ikus-entzunezkoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

tzunezkoa, eta bertan, hainbat protagonistak ETAren indarke-riari buruzko orain artekoak eskatzen zizkieten ezker abertzaleari. Hori horrela, Aieteko Adierazpenaren gaineko iritzia eskatu die Goienak.



Sortuko Arkaitz Rodriguez eta EH Bilduko Arnaldo Otegi, astelehenean. EH BILDU

## 'Urriaren 18ko adierazpena'-ri buruz, ze iritzi?



**JESUS EGIGUREN**  
PSE-EE-KO  
PRESIDENTE OHIA

### "Garrantzi handia du ezker abertzaleak egindako adierazpenak"

"Garrantzi handia du ezker abertzaleak Aieten egindako adierazpenak; oraindik egiteke zegoen zerbait da. Hemen gertatu zenaren konplize modura ageri ziren orain arte, eta, Arnaldo Otegi apur bat gehiago eskatu ahalko litzaiokeela esan daitekeen arren, pausoz pauso goaz aurrera, eta uste dut astelehenekoak aldatzen duela apur bat Euskadiko egoera politikoa. Hau pausoz pauso doa, eta gaitzespena ere iritsiko da gerora; nahi eta nahi ez iritsiko da gaitzespena, inori ez zaiolako interesatuko historiari pasatzea ETArekin lotuta".



**XABIER MUGARTZA**  
'GOGOAN, POR UNA MEMORIA DIGNA'

### "Ezker abertzalearen manifestuak ikuspegi asko izan ditzake"

"Ezker izanda, ETAk 2018an esandakoaren antzekoa dela, EH Bilduko zati batek hitzok betidanik bere dituela, honetarako hamar urte gehiegi dela, injustiziaren eta, batik bat, beraien arduraren aipamenik ez dagoela esan dezakegu; eta asko esatea da: burrundara gehiegizkoa ulergaitz izateraino. Baikor izanda, oraingoan hitzen ostetik ekintzak etorriko direla eta euren oinarrietan hitzok sendo hedatuko dituztela pentsa genezake. Ekintzarik ez badator, beste makillaje eta pantomima bat litzateke. 24 ordu pasata, hondatzen hasiak dira. Baikorra izan nahi dut".



**FLOREN AOIZ**  
EZKER ABERTZALEA

### "Ondorioetatik gatazkaren funtsera pasatzeko urratsa"

"Adierazpenak oihartzun zabala izan du. Paradoxikoki, argazki horren flashak besteen itxieria erretratatu du gure herriaren aitzin, baita nazioarte zabalean ere. Argi gelditu da, enegarren aldiz, nork bultzatzen duen konponketa politikoa eta zauriak gainditzearen bidea eta nor ari den urrats berri guztiak oztopatzen. Aukera berriak irekitzea da ekimen horren helburua, eta erronka horretan jendarteak izan behar du protagonista nagusia, gatazkako ziklo baten ondorioen kudeaketa ausartetik gatazkaren funtsaren kudeaketara pasatzeko".



**BLANCA RONCAL**  
PSE-EE-KO  
ZINEGOTZI OHIA

### "Azkenean, onartu du ezker abertzaleak hiltzea gaizki egon zela"

"Otegiren hitzak positiboak dira, ezker abertzalea jabetu baita 50 urtez terrorismoak eragindako izugarrikeriaz. ETAk eragindako sufrimendua aitortzea eta hori arintzeko konpromisoa hartzea balioesten dugu, urteetan eskatzen ari garelako; baina, batez ere, oraindik argitu gabe dauden ETAren ia 400 krimenen egileak zein diren argitzen lagun dezaketelako. Hala ere, sozialistentzat, egun, protagonismoa ETAren biktimen familiara da. Biktimen familiak, min izugarria jasan arren, ez zuten inoiz mendeku gogorik izan".



**XABIER BARANDIARAN**  
EAJ

### "Norabide onean doan beste pauso bat da asteleheneko adierazpena"

"Ezker abertzaleak Aieten egindako adierazpena norabide onean doan beste pauso bat da, eta hala aitortu behar da. Egia da ez dela erabateko adierazpena, harago ere joan zitekeela, baina esan dutenari balioa eman behar zaio: ona da ezker abertzalearentzat berarentzat, eta ona da herri honetako bizikidetzarako. Ezker abertzaleak egin duena bezalako aldaketa estrategiko batean norabidez aldatze hori ez da erraz egiten den zerbait, kosta egiten da; pauso berriak etorri beharko dira, baina hau norabide egokian emandakoa da".



**ELENA LAKA**  
ABOKATUA

### "Urriaren 18ko adierazpena'-rekin, ezker abertzalea, lehen lerrora"


"Bat: ezker abertzaleak zilegitasuna eta lidergoa hartu ditu, bai PSOErekin hitzartzeko, bai Euskal Herriko agendan eragiteko. Bi: bi subjektu desberdintzen ditu: ETA –zeinaren eten osteko jardunaren inguruan balorazio ona egiten duen– eta ezker abertzalea, eta honek bere jarrera erakusten du biktima, preso eta arazo nazionalari buruz. Hiru: ETAren biktimen minari buruz inoiz baino aratzago mintzatu da, nahiz aurretik ere onartua izan duen biktimizek jasandako mina. Lau: presoak eta arazo nazionala mahai gainean jartzen ditu; gai biak ere, konpontzeke, oraindik".



**IMANOL MURUA URIA**  
KAZETARIA

### "Alde onak baino ez dizkiot ikusten 'Urriaren 18ko adierazpena'-ri"

"Iraganaren eta orainaren ikuspegitik, ETAren biktimen erreparazioarako lagungarria da, biktimizek batzuen erreakzioan nabarmena izan denez. Eta, etorkizunaren ikuspegitik, batetik, Sorturi eta EH Bilduri gatazka armatuarekiko leporatzen dioten erantzukizun politikoaren zama arintzeko balioko die eta, honenbestez, aliantza politikoetarako bidea erraztu du, PSOEren eta Podemos-en erreakzio baikorretan –EAJrena baino baikorra goetan– nabari denez; bestetik, presoen egoerarekiko neurri ausartagoak hartzeko baldintzak hobetzen ditu".



**NEKANE BASAURI**  
PRESO BATEN SENIDEA

### "Gatazka politiko bat egon da, eta biktima guztiek behar dute aitortza"

"Hemen gatazka politiko bat egon da, eta alde guztietako biktimizek behar dute aitortza eta erreparazioa. Herri honek bere defentsan borrokatu du historian zehar hainbat aldiz, besterik ez; frankismoa da horren adibide, non herri izaera, euskara... ukatu zizkiguten. Baina beste aldeak gatazka ukatzen jarraitzen du, eta irabazleak eta galtzaileak nahi ditu. Herri borroka beti izango da zilegi zapaltzaileen aurrean; guk ere sufritu dugu, eta gatzte askok bizitza eskaini dute. Hortik aurrera, sufrimendutik sufrimendura elkar uler dezakegu".

# Lanbide, zugandik gertu

Orain inoiz baino gertuago  
gaituzu, laguntzen eta irtenbideak  
eskaintzen.

Urriaren 25etik aurrera Lanbideren  
Arrasate/Mondragón-eko bulegoa  
tokiz aldatuko da:

## LANBIDE ARRASATE/MONDRAGÓN

Gipuzkoa etorbidea 4, ELMA eraikina  
(Sarrera oinezkoentzako gunetik)  
20500 Arrasate/Mondragón

Urriaren 22an bulegoa itxita  
egongo da.

Herritarrentzako arreta ordutegia:  
8:30-14:00

📞 945 160 600

🌐 [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus)



 **Lanbide**  
Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo

*Euskadi, auzolana*

 **EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
LAN ETA ENPLEGU  
SALA  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y EMPLEO



# Komunitatearen aurrean aurkeztu da Goienakide

Arrasateko Biteri plaza izan zen Goiena Komunikazio Taldea sendotzea helburu duen kanpainaren agertokia herenegun; ordu erdiko saioan umorea, musika eta, batez ere, euskararen eta tokiko komunikazioaren aldeko aldarriak izan ziren protagonista

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Goienakide kanpainaren aurkezpen ekitaldia antolatzen aritu direnek hitz eman zuten "saio arin eta bizia" izango zela, baita hitza bete ere. Biteri plazara joateko gonbidapena zutenek, eta bertara kasualitatez hurbildu zirenek, momentu atsegina pasa zuten eszenatokian gertatzen zenari adi-adi begira.

Indartsu eman zion hasiera Kaitin Allendek bere bakarrizketarekin. Lehenengo esalditik igarri zen Arrasate Komunikabideetan (ARKO) lanean ibili zela, orduko esperientzia kuriosoak kontatu baitzituen bere ohiko estilo zirikatzailean.

Ondoren, Jone Olabarria kazetariak Goienakide kanpainaren nondik norako batzuk aletu zituen, Goienaren 21 urteko historiako hiru presidenteei pasoa eman aurretik. Hortaz, Monika Belastegi, egungo presidentea, Estepan Plazaola eta Aitor Izagirre presidente ohiekin batera igo zen agertokira; izan ere, hiruren artean irakurri zuten *Zero kilometro, batzen gaituen distantzia* izenburua duen Goienakideren manifestua.

Behin manifestua irakurrita, Olabarriak hartu zuen hitza berriro, eta dei egin zien Asier Sala eta Garazi Barrena musikariei ekitaldiari ukitu musika eman ziezaioten. Hala, *Aberriaren mugak* eta *Martxa baten lehen notak* kantuak jo zituzten gitarra akustikoekin, ikus-entzuleen gozamenerako.

Bestetik, herritarrek aukera izan zuten Errigorako saski baten zozketan parte hartzeko, eta bi musikari arrasatearren emaldia bukatutakoan eman zuten irabazlearen izena: Monika Martinezek eraman zuen Nafarroako produktuen saskia.

Hurrengo hitzordua Oñatiko Goiko Bentan izango da, hilaren 30ean, Iker Martinez eta Zaldi Herrenak-en kontzertuarekin.



Ikus-entzuleak txaloka Biteri plazan. ARGAZKIAK: XABI URZELAI



Kaitin Allende, bakarrizketa egiten.



Otarrearen zozketan izena ematen.



Asier Sala eta Garazi Barrena, oholtzan kantuan.



Estepan Plazaola, Monika Belastegi eta Aitor Izagirre. X.U.

## EKINTZAIETZA GARAIAN



MUn Biomedikuntza ikasi duen zientzialari bat, ikerketa-lanak egiten. ANE HERRARTE

## Talentu zientifikoa erakartzeko gakoa, gertutasunetik egitea

Garaia teknologia parkea kontziente da arlo horretan ibilbide akademiko eta profesionala garatzeko trabez

**H.L.** DEBAGOIENA

Azken urteotan, erakundeek eta administrazioek programa eta baliabide ugari jarri dituzte martxan gazteek ibilbide zientifiko-teknologikoarekiko duten zailtasunak gaindi ditzaten. Garaia arduradunek hausnartu dutenez, aurreiritzi asko daude oraindik: "Ikasketek zailak dirudite, ikasle berezi gutxi batzuentzat bakarrik diseinatu-ta egongo balira bezala, eta enpleguek, berriz, abstraktuak, ezezagunak eta erakargarritasun urrikoak".

Horrez gain, populazioaren piramidearen bilakaera arduraz jarraitzen dute, "portzentajeek antzeko joera duten arren urtez urte ikasle gutxiago" dagoelako.

### Emakumeentzat, "are gehiago"

Aurreiritzi horiei beste batzuk gehitu behar zaizkiela nabarmendu dute emakumeen kasuan. Besteak beste, "gai hauekiko gaitasun pertzepzio baxuagoa, konfiantza gutxiago euren buruarengan, erreferente falta eta arlo biosanitarioa lehenesteko tendentzia" dira ibilbide zientifiko-teknologikoak ez garatzearen arrazoietakiko batzuk.

Kristalezko sabaia errealitate ere jarri dute jomugan. Izan ere, datuei begiratuta, Espainian emakumeen %49k egiten dituzte batxilergo ikasketak zientifikoak, eta heren batek bukatzen dute gradu eta master zientifikoak: "Baina maila handiko

postuei begiratzen badiegu, %11 bakarrik heltzen da halako karguetara".

### Gazteen beharra

Hori guztia esanda, Garaian argi daukate gero eta behar zientifiko-teknologiko handiagoa duela gizarteak: "Datozkigun erronkei aurre egiteko, izan ekonomikoak edo gizarte, osasun zein ingurugiroarekin lotutakoak".

Ondorioz, jendarteari, oro har, baina gazteei zuzenean, "arlo horrekin zerikusia duten pertsonak, enpresak, proiektuak eta eztabaidak gerturatzeko lan egiten" jarraitu nahi dute.

Horretarako, ikuspuntu humanoagoa da proposatzen dutena: "Gertutasunez eta hizkuntza xume eta argi batekin, tokian tokiko pertsonak aurkezten jarraituko dugu, zu edo ni bezalakoak. Beraien ikasketak eta lan esperientziak azalduz, beldurrak eta ametsak ezagutuz".


Modu horretan, behin horrelako ikasketak bukatuta zertan lan egiten den erakustea da erronka, eta nola lan horiek, "nahiz eta urrutikoak iruditu, egunerokotasunean eragin zuzena duten".

**ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN DABILTZANAK EZAGUTZEA JOTZEN DUTE FUNTSEZKO**



## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	12	8	3.547	%16,06	<b>90</b>
Bergara	10	5	1.859	%12,36	<b>99</b>
Oñati	7	8	1.696	%14,79	<b>130</b>
Eskoriatza	2	1	527	%12,84	<b>73</b>
Gatzaga	2	0	16	%6,40	<b>854</b>
Aramaio	1	12	245	%16,55	<b>878</b>
Antzuola	0	0	294	%13,49	<b>0</b>
Aretxabaleta	0	1	979	%13,83	<b>14</b>
Elgeta	0	0	84	%7,43	<b>0</b>
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>34</b>	<b>35</b>	<b>9.247</b>	<b>%14,27</b>	<b>106</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Positibo kopuru bertsua, baina herrietan banatuagoa

Urriko hirugarren astean bigarrenen baino kasu bat gutxiago erregistratu da bailaran; 34 positibo izan dira

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA  
Hilaren 11tik 17ra 34 koronabirus kasu hauteman dira Debagoiengan. Gehienak herri handietan izan dira –Arrasaten, Bergaran eta Oñatin–, baina herri txikiek ere erregistratu

dituzte positiboak. Azpimarratzekoa da, adibidez, Leintz Gatzagan bi positibo atzeman direla; kontuan hartu behar baita pandemia osoan zehar hamasei herritar kutsatu direla bertan; azkena, irailaren 21ean.

Bestalde, Aramaion egoera nabarmen hobetu da; izan ere, kasu bakarra erregistratu da. Orokorrean, baina, datuek okerrera egin dute eskualdeko herri gehienetan, eta horren adibide da intzidentzia-tasen igoera.

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!

## HARIRA

ENEKO AZKARATEK GIDATUTAKO SAIOA  
MARTITZENERO, 21:30EAN ETA 23:30EAN  
URRIAREN 26AN: ARRASATE

Herri ordezkariekin berbetan.  
Zer galdetu gura diezu?

**Bidali zuk ere galdera.**

✉ [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

☎ 688 69 00 07

**goiena**

Zu hemen zaude.





ZABALIK

XABIER BERASATEGI

## Ahaleginak eta fruituak

Ongizatean bizi nahi dugu denok, lortu duguna mantenduz eta hobetuz. Lortutakoa gure arbasoen ahaleginean oinarrituta dago. Mantentzea eta hobetzea gutako bakoitzaren erantzukizuna da. Ahaleginean ez badugu laguntzen, ez ditugu fruituak jasoko, eta ezta gure seme-alabei utziko ere.

Esaten dute behin aroztegiak bilera egin zela. Erremintak beraien arteko gatazkak konpontzeko asmoarekin bildu ziren. Mailuak hitza hartu zuenean, bilera uzteko agindu zioten besteek, oso zaratatsua zela leporatuta. Honek errua onartu, eta Torlojuak kanporatua izan zedin exijitu zuen, buelta gehiegi eman behar zaizkiolako ezer gutxi lortzeko. Torlojuak ere onartu zuen, baina, aldi berean, Metroa kanporatzea eskatu zuen, azken horrek besteen gainean epaiketak besterik egiten ez zuelako, bera

### EZ DAUKAGU AROTZIK, BAINA BAI GIZARTEA OSATZEN DUGUN GUTAKO BAKOITZAREN INDARRA

perfektua balitz bezala... Arotza iritsi zenean, erreminta bakoitza trebeziaz erabili eta egurrezko aulki eder bat egin zuen. Aroztegia hutsik gelditu zenean, Zerrak hartu zuen hitza:


"Jaunak, argi geratu da, akatsak akats, arotza gure gaitasunez baliatzen dela bere helburuak lortzeko. Horixe da baliagarri egiten gaituena. Beraz, ez dezagun gure akatsetan denbora galdu eta pentsa dezagun gure indarguneen erabilgarritasunean".

Gizakiok ere baditugu gaitasun propioak, eta, ondo koordinatuz gero, sinfonia ederra sortuko dugu.

Gaitasun horiek lantzea beharrezkoa da gizartearen onurarako. Desberdintasunetik, bakoitzak ahal duena eginez eta aldamenekoak bakean utziz, hauek badituzte eta beraien zereginak. Tamalez, ez daukagu arotzik zuzendari lanak egiteko, baina bai gure gizartea osatzen dugun gutako bakoitzaren indarra. Ardurak, lanak, ahaleginak, tolerantziak, errespetuak, eskuzabaltasunak... lerrotzatzen gaitu gure helburura bidean. Gutariko bakoitzaren bertsiorik onena behar dugu denok fruituaz gozatzeko.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ahantzura

#### ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Elezahar batek dio aspaldiko erromatarren ustetan bazegoela han, finkatu gabeko leku batean, ibai berezi bat. Izena eta guzti zuten ibaiak, Ahantzura. Ibai hura zeharkatzen zuenak dena ahanzten zuen.

Ba omen zihozaren soldadu erromatarrak munduaren akaberaren punturantz, Pisterrarrantz, bidean ibai bat aurkitu zutenean.

Galizian ibai ederrak zeuden eta daude, baina ez dira Amazonas.

Gelditu zen gudarostea, hasiko ziren ingeniariak

eztabaidatzen nola gainditu oztopoa, eta horretan ari zirela, norbaitek esan omen zuen hura Ahantzuraren ibai zela.

Aurkitu zuten, azkenean, ibai hura, eta zeharkatzen bazuten, dena ahaztuko zitzaizen, ez zuten gogoratuko nortzuk ziren ezta zertan ari ziren ere.

Eta ez zuten ahaztu nahi erromatarrak zirenik, ezta etxean utzitakoa ere.

Laster helduko zitzaion gudarostearen buruari notizia.

Ez zegoen orduan telefonorik ez telegraforik, baina notiziak zabaldu, zabalitzen ziren. Gudarosteak ez zuen ur-lasterra zeharkatu

nahi, eta hori egin gabe, akabo mundua non bukatzen zen zehaztu behar zuen bidaldia.

Buruzagia ez zen alferrik heldu kargu horretara, besteek ez zituzten baliabideak zituen, besteek ez zituzten ideiak.

Bada, gizonak zeharkatu zuen ibai eta beste ertzean, heldu bezain laster, soldaduen izena ahoskatzen hasi zen, banan-banan.

Ibai hura ez zen Ahantzurarena.

Ahantzuraren ibai nahi non zegoen zehaztu gabe desegin zen Erromako inperioa.

Agian, horregatik ez dakigu nola ahaztu ahantzi nahi duguna.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooparatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailtetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martinez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Eraikin berriak duintasuna ekarriko dio Lanbideri"

ELENA MONDRAGON DEBAGOIENENKO LANBIDEKO ARDURADUNA

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Astlehenean, urriaren 25ean, irekiko ditu Debagoieneko Lanbideko egoitza berriak ateak. Ilusioz eta gogotsu abiatuko dutela etapa berria aitortu du Lanbideko arduradun Elena Mondragonek (1959, Bergara). Mondragonek 39 urte daramatza Lanbiden lanean, eta Gelmakoa Lanbideren laugarren eraikina izango dela azaldu du.

**Eraikin berriak azken ukituak ematen jardun duzue astean zehar. Dena gertu?**

Hala da; garbiketa eta txukuntze-lan orokorra egin dugu; baita lekualdatzea ere –ordenagailuak eta materiala tokiz aldatu–. Debagoieneko Lanbidek izango duen laugarren bulegoa da Gelmakoa. 20 urte baino gehiago eman ditugu Nafarroa hiribideko egoitzan. Baina ez zen egoitza irisgarria eta kezak genituen. Adibidez, aulki gurgildunean zatozeneri ezin genien zerbitzu onik



Elena Mondragon, Debagoieneko Lanbideko arduraduna. MAIDER ARREGI

eman eta gu jaisten ginen zerbitzua eskaintzera ahal genuen moduan. Ez zen egokia.

**Gelman ere zerbitzu bera emango du Lanbidek? Aldaketarik egongo da?**

Zerbitzu berbera eskainiko dugu; gaur egun daukagun funtzionamenduarekiko ez da aldaketarik egongo. Hala, Gelmako eraikin berriaren ere Lanbide eta SEPE erakundeen zerbitzuak eskainiko dira, beti

egin izan dugun moduan. Lanbiderendako hamaika lagunek lan egiten dugu; SEPErendako, aldiz, bederatzik. Eraikin berriaren solairu bakarrean egongo dira bi zerbitzuak. Orain arte, solairu ezberdinetan banatuta egon gara.

**Orduan, bi zerbitzu mota eskaintzen dituzue.**

Bai, argi utzi nahi dut; izan ere, jendea nahastu egiten da. Lanbide Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, transferitutako kompetentzia da; SEPE, aldiz, Madrilgo Gobernuarena da. Hala, SEPEk erretiroa eta langabezia tramitatzen ditu; langabezia kobratzeko, berriz, Lanbiden izena emanda egon behar da.

**Eraikin berria irisgarria dela esan duzu. Gustatu zaizu? Nolakoa da?**

Asko gustatu zait, oso polita da. Diseinua oso xumea da: dena da matea, ez du marmolik, eta, noski, irisgarria da. Hori izan baita aldaketarako arrazoi nagusia, irisgarria izatea. Duindu egingo gaituela esaten diet lankideei nik; izan ere, Nafarroa hiribideko lokalak ez du duintze horretan batere lagundu. Gainera, egiten dugun lana bistaratu egingo da. Lan asko egiten dugu, eta, nolabait, Lanbidek egiten

duen lanaren aitortzaren isla izango da eraikin berria.

**Lan karga handia, eta herritarrek pazientzia gutxi dutela ere badiozu.**

Bai, hala da. Hamar minutu zain egoteagatik erreklamazio orriak ere eskatzen duenik bada! Gero, mahaira etortzeko txanda heltzen zaienean, nahi dute eurei denbora eta arreta ona eskaintzea. Horregatik, besteekiko ere enpatia eta pazientzia pixka bat eskatu nahi diet herritar horiei.

**Pandemiaren eragina ere jasan duzue.**

Bereziki, SEPE erakundeak. Izan ere, aldi baterako erregulazioak (ABEE/ERTE) tramitatzeke ardurak izan dute bertako langileek, eta ugari izan dira bailaran –taberna asko itxi dira...–. SEPEk ordaindu ditu prestazioak. Baina gure arloan ere lan asko daukagu, bai pandemia sasoian, eta baita pandemia etorri aurretik ere; bereziki, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta tramitatzen ibili gara.

**"ERAIKIN BERRIRA LEKUALDATZEAREN ARRAZOI NAGUSIA ERAIKIN IRISGARRIA EDUKITZEA IZAN DA"**

## ITURRI ONETIK

### Joma enpresaren postontziak, Gasteizen

Joma enpresak –Arrasaten zuen egoitza eta Legution dago gaur egun– 18 JomaBox postontzi adimendun kokatuko ditu Gasteizko bederatzik tokitan, paketeen banaketa erraztuko duena. Gasteizko Udalaren Mugikortasun Sailaren ekimena da. Hartara, azken hartzailea bera joango da buzoietara paketearen bila; eskuko telefonoaren bitartez hartu ahalko du postontzitik paketea. Banaketa enpresek bizikleta bidez edo oinez eroan beharko dituzte paketeak postontzietara.

## ALBISTE IZAN ZEN

2010-10-23

### Txikitxu eta Arrostitz taldeen urtemugak

Jaialdi erraldoia egin zuten Arrasateko Uarkapen Txikitxu eta Arrostitz dantza taldeen 40. eta 20. urteurrenak ospatzeko. Ia bi ordu inguruko saioa izan zen eta Euskal Herri osoko dantzak taularatu zituzten. Arrasate Musikalen eta Oñatz dantza taldearen babesa ere izan zuten. Saioaren amaieran, urteetako lanaren aitortza jaso zuten Marga Merkaderrek, Eugenio Gartzia, Iñaki Lizarralde eta Kepa Urangak.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### Ezker abertzalearen agerraldia, hizpide

@MJauregiLasa: "Beste pausu bat, erraldoia, elkarbizitzaren alde. Mila esker, benetan. #Elkarbizitza".

@julenmendoza: "Bakearen eraikuntza pausuen elkar elikatze prozesu bat da. Bide honetan pausu hau oso garrantzitsua da".

@RosaLluchBramon: "Inoiz ez zitekeen gertatu behar". Hitz horiek asko esaten dute. Aurrerapauso handia eman du ezker abertzaleak ETArean biolentziak mina eta sufrimendua eragin zituela onartzen. Biktima guztien mina eta sufrimendua onartu behar dugu. Guzti-guztiena" (itzulita).

## Haurrak, azken putz!

### IRATI MUJKA

BIZITZA PLATAFORMAREN IZENEAN ARAMAIO

Ikastetxez ikastetxe, eskuz esku, Bizitza Plataformak osaturiko txostena banatu berri dugu, 2021-2022 ikasturtea desberdina izan behar duela eta nolabaiteko normaltasunera itzuli behar dugula eskatuz. Hezkuntza sail eta ordezkarietatik inposatutako protokolo bortitz hauek pixkanaka lasaitu eta desagertzeko neurri zehatzak proposatu ditugu: tartean, maskararen erabilera boluntarioa izatea eta distantzia sozialik ez eragitea, adibidez.

Maskararen erabilerak geroz eta kezka handiagoa sortzen duela nabarmena da azken asteetan, eta ez da harritzekoa, haurrek helduek baino hiru aldiz oxigeno gehiago kontsumitzen baitute. Oxigeno faltak, garunaren garapena eragozteaz gain, kalte itzulezinak eragiten ditu, eta hortik dator galdera: zer ondorio izango ote ditu, epe luzera, gure haurrei egunero arnasa kentzeak? Eta nor izango da kalte horren erantzule?

Ikasturte berri honetan gure agintariak ausardiaz jokatu eta beste herrialde batzuetan gertatzen ari denari erreparatzen badiote, ohartuko dira Ipar Euskal Herrian urriaren 4tik aurrera Lehen Hezkuntzako haurrek ez dutela maskararik erabiltzen. Danimarkan, Estonian,

Finlandian, Erresuma Batuan –Eskozian izan ezik–, Hungarian, Norvegian, Belgikan, Herbehereetan, Luxenburgon eta Suedian ere ez da beharrezkoa maskara eskoletan. Alemanian, 12 urtetik aurrera agintzen dute.

Dagoeneko 3.200 sinadura batu ditugu; horregatik, dei egin nahi dugu azken txanpa honetan *Bizitza.eus* webgunean sinatu eta urriaren 22an Hezkuntza sail eta ordezkarietatara egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko Gasteizen, Bilbon, Iruñean eta Donostian, eskoletan arnastu nahi dugula ozen esateko!

## Aramaioko eta Otxandioko udalen arteko harremana dela eta

### RAFAEL UNZALU URIARTE

ARAMAIO (OLETA)

Orain dela hilabete batzuk, GOIENA aldizkarian idatzi bat irakurri nuen, Aramaioko eta Otxandioko udalen harremanaz; eta bertan agertzen zen *Limitauaren* arazoa ere. Horrez gain, esaten zen Aramaioko Udalak inoiz ez duela benetan planteatu Araba utzi eta Bizkaira pasatzea. Baina Oletako Kontzejuak bere historian lau ekinaldi egin ditu Aramaioko Udaletik segregatu eta Otxandioko Udalera agregatzeko.

Lehen ahalegina, 1924ko apirilaren 16an. Eskabidea 37 familiaburuk sinatuta.

Bigarrena, 1930eko urtarrilaren 16an. Batzorde bat izendatu zuten, botere-ahalmen

handikoa, Madrilera joateko, Gobernu Ministeriora, espediente bideratzeko.

Hirugarrena, 1936ko azaroaren 23an. Hau dio Kontzejuko akta-liburuak: *El Alcalde-Presidente de la Junta Administrativa tiene que dar cumplimiento al Oficio recibido del Ayuntamiento de Aramaio que dice así: "Tengo el honor de comunicarle se sirva dirigir a este Ayuntamiento una instancia solicitando la segregación y la consiguiente anexión de esa Anteiglesia a la villa de Ochandiano. [...]".*

Gestio hark ez zuen proposatutako helburua lortu. Zein arrazoitan oinarritu ziren oletarrak segregazioaren eta agregazioaren bideak hartzeko?

-Nagusia eta garrantzitsuena: distantzia. Oletako plazatik Aramaioko udaletxera bederatzi kilometro daude, eta bien erdian Arangio mendi tontorra, sarritan elurrez estalita.

-Otxandioko herriaren hurbiltasuna. Oletatik hiru kilometrora dago Otxandioko udaletxea.

-Oletako herriak Aramaioko Udalarekin tratatu ofiziala besterik ez zuen izaten. Distantziagatik, Oletako biztanleek ezin zituzten baliatu eta gozatu Aramaioko Udaleko zerbitzuak.

Oletako biztanle bati gertatutako pasadizoa: 1807ko otsailean, Aramaioko udaletxera joan zen. Heldua zen, eta Apietako baserrian bizi zen. Aramaiotik itzultzerakoan, gaua iritsi zen

eta elurra gogor ari zuen. Maltzetako eremura iritsi zenean, bidea galdu zuen, eta, etxetik kilometro batera zegoela, hil egin zen. Senitartekoek harrizko gurutze bat jarri zuten toki berean, eta oraindik han dago, urruntasunaren ondorio larri baten lekuko.

## Etixerako bidean, urriaren 23an bete dezagun Donostia

### AITTOR ARANTZABAL ALTUNA

SARE DEBAGOIENA

DEBAGOIENA

Etena. Moztua. Katez josia. Harresiz inguratua. Txarrantxaz gotortua. Blokeatua. Itxia izan da bidea urte luzez. Giltzapetua. Zarratua. Eta airez, lurrez, urez. Herritarron bultzadaz. Hegaz, oinez, abidan... zabaldu da bidea. Ezinbestekoak. Nekaezinaz. Etixerako bide. Elkarbizitzarako etorbide. Ireki dugu bidea eta bilakatu gara gu ere bide. Gutxitu dira kilometroak. Zamak. Motxilak. Galerak. Orduak eta bakardadeak.

Ibilian-ibilian hasiak gara. Hasi besterik ez. Baina hasiak gara. Haziak. Hasi dira, poliki-poliki baina ekinez, gradu aldaketak eta Euskal Herriratzeak. Etixerako bidea gauzatzeko behar-beharrezko pausoak. Atzean geratu da isolamenduaren zigorra. Amesgaiztoen tontorra.

Oraindik ere, ordea, urrun eta bakarka daude

emakumeak, baina elkartu gara, elkarrekin egon ezin genuela uste genuenak ere bai... Eta aukera horiek egin nahi ditugu. Baimenik gabe 3/4ak beteak. Eta bat gatoz, ziegan giltzapetuta larriki gaixo direnak, guraso gabe motxiladun umeak, ezohiko egoeran adinez nagusi direnak, eta bizi osorako zigorpean 7/2003 legepean kondena jaso dutenak.

Korapiloz beteta jarraitzen du euskal presoen egoerak. Hasi baino ez gara egin, urrats ugari falta zaizkigu gauzatzeko bidea. Aldaketarako ordua da. Sortu dira aukerak. Sortu ditugu eta dituzte eta zituzten eta zenituzten... Haiak eta guk, hark. Zuek. Denok. Egia erreal.

Erein eta jaso. Argitu da bidea. Maldatsua eta luzea. Esperantzaz bete. Hauskorra eta geldoa, hasiera eta amaiera duen bidea. Mugarriz mugarri, helmugara doan ibilbidea. Baina berdea. Baina batez ere, geldialdirik izan ezin duen bidea. Horixe da gurea. Etenaldi eta atzera urratsik gabea. Orain eta hemen egiten jarraitu behar duguna. Kontrako haizerik izango baita, eta lurrikarak, belar txarrak eta asunak.

Salbuespena lege bilakatu zenetik, zigorrari gehitutako zigorren kiribila askatzen hasi da. Guri dagokigu salbuespena desegin eta lege arruntera bidea egitea. Irtsi da denbora luzean landutako unea. Jarrai dezagun! Izan gaitezen gezi etxerako bidean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

### GARBIÑE UBEDA





Ez Donk Amaitu ekimeneko kideak, martitzenean, Biona taberna zenean egindako prentsa agerraldian. JOKIN BEREZIARTUA

# 80ko Arrasatera bidaia, hilabetez

Ez Donk Amaitu ekimena aurkeztu dute asteen, eta Biona taberna zena ireki dute horretarako; 1980ko hamarkadako Arrasatera bidaia bat proposatuko dute urriaren 28tik azaroaren 30era, punka oinarri hartuta baina beste hainbat arlo ere landuta

**Eneko Azurmendi** ARRASATE Txerra Bolinaga RIP taldeko kide ohia izan da ekimenaren sustatzaile nagusia. Izan ere, 2018ra arte, bi urtean behin kontzertuak egiten zituzten "taldeko kide izandakoen eta bidean galdutako lagun batzuen omenez", eta 2020an, Bolinaga ohartu zen RIP taldearen sorreraren 40. urteurrena zela -hasieran, Doble Cero zena-. "Aitzakia horrekin, lagunei proposatu nien RİPez gain 80ko hamarkadako Arrasate gogoratzeko ekimen bat bat martxan jartzea. Pandemiak guztia baldintzatu du, baina lanean jarraitu dugu. Marka bat ere sortu dugu, Ez Donk Amaitu, garai hura gogoratu eta zer izan zen ikas dezaten belaunaldi berriek ere. Iraganetik ikasiz etorkizunera begiratu nahi du ekimenak", nabarmendu du. "Ez da nostalgia ariketa soil bat,

hori baino gehiago da. Aurrera egin behar da beti, baina nondik gatozen jakinda".

## Plater nagusia, erakusketa

80ko urtiek Mondrauen izeneko erakusketa izango da egitarauko plater nagusia, urriaren 28an 19:00etan inauguratuko dutena. "Aztertu dugu sasoi hartan ze testuingurutan sortu zen punka, ez bakarrik Arrasaten, baita inguruetan ere, eta, horri kolore eta forma bat emateko, erakusketa bat egitea erabaki dugu", azaldu du Edurne Landaluzek, lantaldeko kideak. Hala, sasoioko

**BOLINAGA: "EZ DA NOSTALGIA ARIKETA SOIL BAT; IRAGANETIK IKASIZ EGIN GURA DUGU AUERRERA"**

prentsan, udal artxiboan, Jose Letonaren tokiko bilduman eta lagunaren eta kolaboratzaileen etxeetan aurkitu dute materiala, eta sasoi hartako "gune eta une garrantzitsuenak" islatzen saiatu dira. "Kunturatu gara gaur egun ditugun lorpen askok oinarria dutela 80ko hamarkadan, eta garai hartan lanean ibili zirenei aitortza bat egitea ere bada helburua", gaineratu du.

Era berean, Arrasateko Udal Bibliotekak ere parte hartuko du ekimenean, eta punkaren eta 80ko hamarkadako liburuekin bilduma bat egin dute. "Modu horretan, erakusketa eta bibliotekako fonoteka lotuta egongo dira, gehiago jakin gura dutentzat", azaldu du Landaluzek.

Hamar arlotan banatu dute erakusketa, eta Andoni Inurritegi *Pottoko* ibili da aukeraketa lanean. "Gai bakoitzetik material

asko aurkitu dute lankideek, eta zaila egin zait aukeraketa egitea. Beraz, hainbat bilera egin ditugu material egokiena eta txukunena aukeratzeko eta nola aurkeztu erabakitzeko. Eskerrak horri", dio. Material asko dagoela-eta, argazki oin batzuk ere jarri dituzte, "ordena apur batekin aurkezteko".

## Bionak, esangura berezia

Biona taberna zenean egin gura izan dute prentsaurrekoa, "esangura berezia" daukalako, lantaldeko kide Iker Barandiaranen esanetan. "Arrasatear askok

**LANDALUZE: "80KO HAMARKADAN LANEAN IBILI ZIRENEI AITORTZA EGITEA ERE BADA HELBURU BAT"**

maitasun bereziarekin gogoratzen dugu, 80ko hamarkadako ikonoetako bat delako. Punka, neurri handi batean, RİPengatik sortu zen eta argi dago Biona izan zela taldearen topaleku nagusia. Lortu dugu taberna erakusteko aukera izatea, eta pozik gaude. Bisita egunetan, gainera, argazki zahar batzuk ere jarriko ditugu.

## Esker ona adierazi dute

Antolatzaileek esker ona adierazi diote Arrasateko Udaleko Kultura Sailari: "Bereziki, Jon Garairi, erakusketa eta zinekluba finantzatzen lagundu eta udal espazioak errazteagatik; baita Arrasateko gaztetxeari, AGA-KOri, Bionako jabeai eta materiala zein informazioa pasa dizkiguten guztiei". Sare sozialak ere martxan dituzte -Twitter, Facebook eta Instagram-.

## Ez Donk Amaitu: egitaraua

*Mondrauen punkak dauka izena, izana, jatorria eta etorkizuna* lelopean, hilabete osorako egitaraua osatu du ekimenak: erakusketa, mahai-inguruak, kontzertuak eta abar izango dira.

### '80ko urtiek Mondrauen'

- **Urriaren 28tik azaroaren 27ra** Erakusketa egongo da Kulturateko klaustroan. Urriaren 28an irekiko dute, 19:00etan. Astelehenetik zapatara egongo da ikusgai, 17:30etik 20:30era.

### Bionara bisitak

- **Azaroaren 12an, 13an eta 14an** Biona taberna izan zenera bisitak egingo dituzte, 18:00etatik 21:00etara bitartean. Izen-ematea erakusketan bertan egin behar da.

### Kontzertua

- **Azaroak 5** Perla eta Zero taldeen emanaldia, 22:00etan, gaztetxean. Sarrera bost euro da.

### Mahai-inguruak, Kulturaten, 19:00etan

- **Azaroak 10** *Rocka eta euskara. Zozaak beleari ipurbeltz?* Josu Zabala musikaria, Garbiñe Ubeda idazlea eta Josu Ximun Billelabeitia musikaria.
- **Azaroak 17** *Rocka eta feminismoa. Zertan egin dugu aurrera 80ko hamarkadatik?* Itziar Ziga idazlea, Miren Aranguren Emagin-eko kidea eta Jokin Azpiazu soziologoa.
- **Azaroak 24** *Rockanrola drogie donk.* Gregorio Galvez kazetaria, Aurora Beltran musikaria eta Gotzon Hermosilla kazetaria.

### Zinema-zikloa, gaztetxean, 18:00etan

- **Azaroak 7** *Good Vibrations*.

### Zine-zikloa, Amaia antzokian, 19:30ean

- **Azaroak 9** *Stiv*.
- **Azaroak 16** *White Riot*.
- **Azaroak 23** *The Allins*.
- **Azaroak 30** *Queercore*.

### Punk eta 80ko hamarkadako liburuak

- **Azaro osoan** Maileguan hartu ahal izango dira udal liburutegian.

# Hamar urte elkartasunez harremanak egituratzen

1998an zabaldu zuten Harreman denda, Debagoieneko hainbat gobernuz kanpoko erakundek bultzatuta; 2008ko krisiaren ostean denda ixteko zorian egon ziren arren, 2011n boluntarioekin lanean hasi ziren eta horiek izan dira zutabeak gaur egun arte

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Duela hamar urte hasi zen Harreman denda boluntarioekin lan egiten. Aurrez arduradun bat zeukan eta egunero zortzi ordu izaten zen lanean. 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz, ordea, dendak ez zuen nahikoa diru ematen eta ixteko zorian ere egon zen. Edozelan ere, herritarren laguntzari esker, boluntario bidez funtzionatzen hasi ziren. "2011ko uztailean, bilera bat egin genuen eta 20 pertsona agertu ziren. Guretzat arrakasta izugarria izan zen hori, errealitate bihurtutako amets bat, eta martxan hasi ginen", azaldu du Cristina Etxeausia Harremaneko kideak.



Harremaneko kideak, boluntarioak eta Maitane Muñoz zinegotzia, zapatuan. E.A.

**Boluntarioei omenaldi xumea**

Zapatuan, Bertako Produktuen Azoka baliatuta, azken hamar urteetan boluntario lanetan aritu direnek argazkia atera zuten Seber Altube plazan. Hala, omenaldi xume bat egin gura izan

zuen elkarteak. Ramon Osinaga izan zen omenduetako bat, ia bederatzita urte baitaramatza dendan laguntzen. "Erretiroa hartu nuenean hasi nintzen boluntario. Hilabeteetan bi aldiz hiru orduko jarduna egiten dut

dendan eta oso esperientzia polita eta aberasgarria da. Jendea ezagutzeko aukera ematen dit eta laguntzen ari naizela sentitzen dut", adierazi du.

Aurrera begira ere jarraitzeko asmoa du, gutxienez beste urte-

bete, bere hamargarren urteurrenera iritsi arte. "Gero, ikusiko dut nola moldatuko naizen, baina, ahal dudan heinean, laguntzen jarraituko dut".

Jasone Orbegozok, bestalde, lau urte daramatza boluntario. "Harreman denda erosten nituen Eskoriatzako erretiratuen egunerako opariak eta bestelako produktuak; halako batean, boluntario hasteko eskaintza egin zidaten. Onartu egin nuen, eta hurrengo egunean dendan nengoan, lanean", nabarmendu du.

Gaur egun ere jarraitzen du boluntario, eta, ahal duen gehienetan, gainera, dendara joaten da laguntzera. "Besteei laguntzeak, besteendako zerbait egiteak, bete egiten nau. Pozik nago, eta, gainera, ikusten dut oso leku egokia dela, konpromiso handikoa, jende onez inguratutakoa".

**Dendako ardurak bakarrik ez**

Boluntarioen lana dendako ardurak euren gain hartzea da, nagusiki, baina kontzientziarioan eta proiektuaren zabalpenean ere badihardute, bakoitzak ahal duen heinean. "Bailarako gobernu kanpoko erakundeen baturaren ondorioz sortu zen Harreman denda. Hasiara batean, horien ordezkariarekin sortu zen zuzendaritza, baina, gerora, boluntarioen ordezkari bat eta inplikazio bat egoteko beharra ikusi zen, iritzia jaso eta partekatzeke, eta, hain zuzen,

funtzio hori ere betetzen dugu boluntariook", azaldu du Iker Elexpuru boluntarioak.

**Baldintza duinak helburu**

Tokian tokiko ekoizpenak bultzatzen ditu bidezko merkataritzak, bidezko soldata oinarri hartuta, Elexpuru dioenez. "Emakumeen ahalduntzea eta berdintasuna dira beste esparru garrantzitsu batzuk, eta horiek soldata duina eta bizitzeko oinarrizko printzipioak dakartzate. Horrez gain, bidezko merkataritzak jasagarria den ustiaketa bat zaintzen du, bai Amerikan, bai Afrikan eta bai Asian ekoizten diren eta baita han oinarrian hartuta Europan ekoizten diren produktuena", gaineratu du.

**Dendan kontsumitzeko deia**

Salmentak "oso garrantzitsuak" dira, baina "gabezia handia" dago kontsumo ohituren inguruko kontzientziarioan. "Errazenera jotzen dugu askotan, eta ez dugu begiratzen oinarrian nola egiten diren gauzak. Beraz, arrasatearrak eta debagoiendarrak hemen kontsumitzera animatu gura ditugu".

**ARRASATEKO HIPER EROSKIN DAGOEN HARREMAN DENDAN EZINBESTEKOA DA BOLUNTARIOEN LANA**

**NIRE USTEZ**  
IBON ARRUPE

## Noizko Zarugalde oinezko?

Noizko Muxibar-San Frantzisko *Ekobulebar*-a? Etxaluze eta Maala arteko *Ekobulebar*-aren lanak aurrera doazen heinean, Muxibarko errotondatik San Frantziskorainoko ardatzaren gabeziak nabarmenago agertzen dira: espaloi estuak, trafikoa momentu oro, bizitza komunitariorako gune falta eta merkataritza jardueren lekualdatzea. Hala, hain bizitza bibrantea izan duen gunea aparkaleku erraldoi bat izatera mugatuz doa. Dekadentzia joera honi buelta emateko asmoz,

aurreko legealdian hausnarketa kolektibo bat abian jarri zen, hainbat urbanizazio aukera bizilagunekin partekatuz. Prozesuan argi ikusi zen bizilagunen ardura nagusia zela berrurbanizazio batek ekarriko lukeen aparkaleku galeraren alternatiba zein izango litzatekeen. Ardura horri erantzute aldera, ideia lehiaketa bat burutu zen, Monteazpi-Kondekuako kanpan bizilagunentzako soilik izango zen lur azpiko aparkaleku bat nola txertatu asmatzeko, bertan egiten

diren ekitaldiekin bateragarria izango litzatekeena. Baina udalbatzan sumatu ziren zalantzak medio, ezin izan zen egitasmo horrekin aurrera jo. Horrela, alternatiba bat bilatze aldera, TAOren aldeko apustuarekin abiatu zen. TAOren helburu nagusia baita oinezko, bizikleta, nagusi, ume eta herritar ororentzat espazio publikoa irabaztea, Kontzezinon, Garibai etorbidean edo Maalako biribilgunean egiten ari garen moduan.

## EH Bilduk Herri Batzarra egingo du eguaztenean

Bilgunean egingo dute saioa – Pablo Uranga 8-, 18:30ean hasita, eta bi ildo nagusi izango ditu: "Nazio mailako eta Gipuzkoako Plan Politikoa, EH Bilduko programa politikoa arduradun Pello Otxandianok aurkeztuko diguna, eta Arrasateko EH Bilduren egungo erronkak, herriko udalgintzako eta herrigintzako kideekin batera aztertuko ditugunak". II. Kongresuaren baitan, "erronka garrantzitsuak" dituztela azpimarratu dute, "nazio, herrialde zein herri mailan", eta horiek guztiak herritarrekin partekatzeke gogoz antolatu dute saioa. Hala, bertaratzeko dei egin diete herriko Bilkide eta jarraitzaile guztiei.

## Martitzenean, 'Harira' saioan, udalbatzako ordezkarien debata

*Harira* saioak denboraldia hasiko du martitzenean, urriak 26. Debagoieneko udaletan ordezkariak dauden alderdi politikoe-tako ordezkariak ahotza eman eta mahai-inguruak egingo dira Goiena telebistako platoon. Arrasatekin hasiko da erronda. Mahaian egongo dira Maider Morras (EH Bildu), Johanna Sanchez (PSE-EE) eta Eva Abuin (Elkarrekin Podemos). Maria Ubarretxena alkateak (EAJ) uko egin dio saioan parte hartzeari. Herritarrek aukera izango dute gaiak edo galderak proposatzeko urriaren 24a baino lehen, [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera idatzita edo Whatsapp edo Telegram bidez: 688 67 00 07.

# Delituak jaitsi eta sareko iruzurrak igo egin dira

Udaltzaingoak prentsa agerraldia egin du asteon, udan zehar egindako esku-hartzeen gaineko azalpenak emateko. Guztira, 1.177 interbentzio egin dituzte, horietatik 251 COVID-19arekin lotuta; esku-hartze gehienak, 595, administratiboak izan dira

**Hasier Larrea** ARRASATE

Arrasateko Udaltzaingoak 2021eko hirugarren hiruhileko esku hartzeen datuak argitaratu ditu, uztaile, abuztu eta irailakoak, zehazki. Zigor Andino udaltzainburua eta Maria Ubarretxena alkatea eman dute informazioaren berri.

Esku-hartzeen erdiak administratiboak izan direla nabarmendu dute: "Animaliekin, zaratekin, alarmekin eta dokumentu zein objektuen galerekin zerikusia dutenak dira", azaldu du Ubarretxena, eta gaineratu du "hil bakoitzean gutxi gorabehera 150" izan direla.

Gehien errepikatu diren hurrengo delitu-motak segurtasunarekin lotutakoak izan dira: 164. Horrelako esku-hartzeen barruan sartzen dira liskarrak, ebasketak eta lapurretak txikiak, abisu faltsuak eta kalte materialak, besteak beste. Irailean gertatu dira gehien: 67, guztira; abuztuan 51 aldiz eta uztailean 46 aldiz esku hartu dute, segurtasunari dagokionez.

Trafikoarekin jarraituz, 103 interbentzio egin ditu Udaltzaingoak; horietatik 49 trafiko laguntzeari lotutakoak izan dira, eta 30 istripuekin lotutakoak: "Ez da hildakorik egon, ez eta oinezko harrapaketa ere; istripu gehienek zauritu arinak eta ibilgailuen txapetan kalteak eragin dituzte".

Esku-hartze gutxien egin behar izan duten alorra ingurumenaren gainekoa izan da. Hala, 64 zenbatu dituzte, guztira, zuhaitz erortzeek, suteek, produktu kimikoen erabilerekin eta luiziek eraginda. Halakoekin irailan hamazazpi aldiz eta abuztuan eta uztailean 23 aldiz izan du harremana Arrasateko Udaltzaingoak.

**Salaketa gehien, ebasteekin**

Pandemiarekin zerikusirik izan ez duten 926 esku-hartzeetatik



Ubarretxena alkatea eta Andino udaltzainburua, eguaztenean udaletxean. GOIENA

## ARRASATEN UDA "LASAIA" IZAN DELA AZPIMARRATU DU UDALAK, "ISTILU LARRIRIK GABEKOA"

66 gauzatu dira salaketetan. Batez ere, ondare-ebasketak edo ebasketa sozioekonomikoak erregistratu dituzte: hamasei ebasketa arrunt, eremu publikoan zein pribatuan –fatxadetan, leihoetan, autoen ispiuetan...– eragindako 36 kalte eta zortzi iruzurratik. Alkohola eta drogak kontsumituz gidatzeagatik lau arau-hauste izan dira.

**Hamalau atxiloketa**

Irailean eta abuztuan bosna pertsona eta uztailean lau pertsona atxilotu ditu Udaltzaingoak, guztira. Alkateak zehaztu du atxiloketak "lapurretak, drogak eta alkohola tarteko" egin direla. Atxilotueta bat abuztuaren 1ean San Andresko estankotan egindako lapurretarekin lotuta dago. "Ertzain etxearen ikerketa zerbitzua dabil kasu hori ikertzen; gu elkarlanean gabilta

eurekin, bertan harrapatutako pertsona Udaltzaingoak atzeman zuelako eta Udaltzaingoa bera izan zelako gertakarira hurre-ratzen lehena", adierazi du Zigor Andino udaltzainburua.

Era berean, Udaltzaingoak Ertzaintzarekin eta Osakidetzarekin egiten duen elkarlana nabarmendu nahi izan du Ubarretxena: "Ertzaintzarekin 22 esku hartze egin dira eta Osakidetzarekin, sei".

**Balorazio positiboa**

Ia delitu guztiek beheranzko joera hartu dutela gaineratu dute: "Baina ezin gara erlaxatu, gure lehentasuna baita joera horri eustea". Salbuespen modura aipatu dituzte iruzurrak, batez ere, Internet bidezkoak, ia bikoiztu egin baitira; Andinok adierazi du Ertzaintzaren unitate digitaleko lankideekin batera ari direla lanean, "sentsibilizazioan, izapideen azkartasunean eta aholkularitzan".

Datuek pandemia atzean gelditzen ari dela erakusten dutela nabarmendu dute, azkenik: "Guztira, 251 egin dira uztailetik irailera bitartean, aurreko hiruhilekoko 341ekin alderatuta".

## Al-Andalus zentroan flamenko ikuskizuna egingo dute bihar

Euskadiko Andaluziar Elkarte-kideek osatzen duten Garcia Lorca federazioak kulturaz betetako arratsaldea antolatu du zapatu arratsalderako Musakolako Al-Andalus egoitzan. Hala, elkarteak inguruko herrietan dituen bazkideak etorriko dira, autobusez. Musika ukitua Toledoko Consuegra herriko Maria Rubi y CIA flamenko taldeak jarriko dio jaialdiari, 18:45ean, baina gehiagorako tartea ere egingo da; izan ere, kontzertuaren ostean, iluntzeko zortzietan, agape bat egingo dute bertaratu direnek; hau da, jatorri erlijiosoa duen otordu jendetsu bat. Ekitaldia ordubete geroago amaituko da.

## Arrasaten hasiko da KOSA hausnarketa zikloa, hilaren 27an

Koronabirus Osteko Sexu Askapenak bi asteko egitaraua prestatu du Euskal Herri mailan. Lehen hitzordua Arrasateko gaztetxean egingo dute, datorren eguaztenean, 19:00etan hasita. Bertan, LGBT+ kolektiboak memoria lantzearen garrantziaz hausnartuko dute, eta *Noiz bukatzen da armairua?* liburua aurkeztuko dute egileek.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Biribilguneak lorez apainduta

Herritar batek honako mezu hau partekatu nahi izan du irakurleekin: "Detaile txikia dirudi, baina poza ematen du zenbait biribilgunetan, Eroskikoan kasu, loreak ikusteak".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Kontzientzia elkarteak aurkeztuko dute gaur Kulturaten

"Kontzientziaren esnatze prozesuan elkar laguntzeko" komunitatea sortzeko asmoz eratu dute zenbait arrasatearrek elkarte. Meditazioaren eta antzeko praktiken bidez gorputza, burua eta arima lantzeko zentro bat irekiko dute Urizarri auzoan, eta lokaleko bazkideek giltza propioa izango dute.

Lehenengo aurkezpena Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da, gaur bertan, arratsaldeko sei eta erdietan. Aurrera begira, Debagoieneko herrietan ere egingo dituzte agerraldiak. Informazio gehiagorako, [kontzientzia.zentroa@gmail.com](mailto:kontzientzia.zentroa@gmail.com) helbidera idatzi edo 617 24 29 95 zenbakira deitu daiteke.

## 'AmaHika ikusteko' bertso saioa, Jabetza Eskolaren eskutik

Datorren eguenean, hilak 28, Amaia Agirre, Miren Amuriza, Oihana Arana, Haizea Arana eta Eli Pagola bertsoarietara hitanoa, eta bereziki noka, izango dute mintzagai Kulturaten, 19:00etan hasita. Jabetza Eskolak egindako hausnarketatik abiatuta, hizkera horien birjabetzea eta emakumeen ahalduntzea jarriko dituzte mahai gainean.



# Ointxe!-koen kantxa kalea ere badelako

Arrasateko saskibaloia klubak denboraldi honetako taldeak aurkeztu zituen zapatuan Herriko Plazan, 'Saskialdia' ekitaldiaren baitan. Talde nagusiek bide onetik ekin diete ligako hitzorduei, eta saski eskolakoak ere hastear dira partiduak jokatzen

## Hasier Larrea ARRASATE

Pandemia hasi zenetik kaleko agerraldia egin duen Arrasateko lehen kirol kluba izan da Ointxe!, eta primeran baliatu du harrobiaren indar erakustaldia egiteko. Aurten, guztira, hamalau talde edukiko ditu hainbat kategoriatan eta ligatan parte hartzen, eta bakoitzaren argazkia atera zuten zapatu goiz eta arratsaldean, babesle berrien aurkezpena ere egiteko, bide batez. "Aspaldiko partez, kalera atera genituen saskiak eta egun ederra pasa genuen, mokadutxo eta guzti! Gazteak egun osoan ibili ziren saskibaloian jokatzen, eta herrian afizioa badagoela berretsi zen", adierazi du Oihane Agirrek, Ointxe!-ko presidentea.

Talde horiez gain, emakumezkoetan, seniorren bigarren mailan, Eskoriatzarekin indarrak batu ditu Arrasateko klubak Saski Goiena Hemen Garbiketarako izenpean, eta saski eskolako 2010

## Jokalariak, kromoetan

Duela lau urte Ointxe!-ren 50. urteurrena ospatzeko egin zuten bezala, aurtengo denboraldian ere klubeko jokalarien kromoak jarriko dituzte salgai Arrasateko saltokietan, nork bere bilduma propioa osa dezan. Hala, harrobiko partaideei ikusgarritasuna ematez gain, bultzada ekonomikoa jasoko du Ointxe!-k.

Dagoeneko jarri dira enpresa batekin harremanetan, eta datozen asteetan aurkeztuko dute egitasmoa.

eta 2013. urteen artean jaiotako neska-mutilek asteburuko neurketei berrekingo diete, iazko lehortearen ostean.

## Kopako finalerdietan

Lehiatzen hasi dira dagoeneko gizonezkoen EBA mailako, emakumezkoen bigarren mailako eta gizonezkoen lehen maila nazionalako jokalariek. Azken horiek Koparako finalerdietarako sailkatzea lortu zuten asteburuan, Ordiziari 61-79 irabazita. Asteburu honetan emango diote hasiera ligari, eta urtarrilean jokatuko dute Kopako finalerdia.

## Etxean nagusi

Gizonezkoen lehen taldea, Mondragon Unibertsitatea, "gero eta sententzio hobek" lortzen dabil EBA mailan, Eneko Mata entrenatzailearen iritziz. Ligako bosgarren neurketan hirugarren garaipena eskuratu zuen zapatuan Iturripen Iruñeko Mega-



Klubaren familia argazkia, Herriko Plazan jarritako saskibaloia kantxa. ANGEL AYASTUY

calzados Ardoiren aurka (77-73). Hala, gora begira jarri da marea morea: "Lautik hiru irabaztetik zetorren talde indartsuari gailendu gatzazkio; kostatu egin zaigu erritmoa jartzea, baina azken minutuetako lanak sarria eman digu; datorren astean Pielagosekin neurtuko ditugu indarrak, eta saiatuko gara egiten ari garen jokoari jarraipena ematen".

Azpitarratzekoa da MUREN hiru garaipenak etxean lortuta.

## DENBORALDI HASIERA ITXAROPENTSUA EGIN DUTE TALDE NAGUSIEK, PARTIDU GEHIENAK IRABAZITA

koak izan direla, eta horrek erakusten du, denboraldi hasieran Matak berak nabarmendu zuen bezala, zaleen babesle funtzioa izango zaiela puntuak erdiesteko orduan.

## Debut bikaina

Emakumezkoen lehen taldeak, bestalde, ez du oraindik partidurik galdu Euskal Ligako bigarren mailako lehen fasean. Txapelketa horretan hasiberriak izan arren, hiru garaipenekin liderrak dira sailkapenean, eta, martxa horretan jarraituz gero, aise sailkatuko dira lehen mailara igotzeko faserako. Iñaki Ogarak zuzentzen dituen jokalariek 53-83 irabazi zioten etxetik kanpo Atletiko San Sebastiani joan den barikuan.

## Nagusitasuna erakusten

Areto futboleko Euskal Ligako garaikurra atera zuen Mondratek zaleen aurrean Musakolako kiroldegian joan den asteburuan. Iker Uribesalgok eta Jokin Zeziagak jokalaria eta goleatzaile onenen sariak ere erakutsi zituzten. Neurketan, 5-0 irabazi zioten arrasatearrek Galdakaori. Oraingoan, etxeko partida guztiak irabazi dituzte Hirugarren Mailan.



IMANOL SORIANO



# "Trilogiaren amaiera 36ko gerran kokatu dut"

ANE ODRIUZOLA IDAZLEA

'La conspiración de Gibola' eleberriarekin itxi du misteriozko trilogia, eta jadanik eskura daiteke liburu-dendetan. Kulturaten aurkeztuko du hilaren 27an, 19:00etan

Hasier Larrea ARRASATE

*El secreto de Gibola* eta *La sombra de Gibola* eleberriekin eza-gutarazi zen Ane Odriozola (Legazpi, 1979) idazlea. BAZeko langileak istorioari amaiera eman dio bere hirugarren nobelan, gerra garaian Legazpi inguruan gertatutako pasarteak fikziora eroanda.

**Hasteko, zer da Gibola?**

Nire birramona jaio zen baserria, Legazpiko Brinkola auzoan dagoena. Bertako bizilagunek aipatu didate turismoa sortu dela inguruan, eleberriak irakurri dituen jende asko joaten baita, kuriositateak bultzatuta.

**Eleberrien arrakasta ulerterrazak direlako etorri omen da.**

Pentsa, martitzenean Legazpin aurkeztu nuen, eta irakurle batek esan zidan bizitza osoan hiru liburu baino ez dituela irakurri: lehena, eskolan derrigortuta, eta beste biak, trilogiaren lehen bi atalak. Poza ematen dit halakoak entzuteak.

**Oraingo eleberriaren testuingurua modu sinplean azaltzeak lanak ekarriko zizkizun, ezta?**

Dokumentazio lan handia egin dut, 36ko gerraren inguruan informazio asko dagoelako idatzita Legazpin. Hori da lehen pausoa, dena argi ikusi eta idazten hasi aurretik. Lehen bi eleberrietan ez nuen gerra garaia ukitu, baina oraingoan bete-betean sartu naiz.

**Garai hartako zerk harritu zaitu, bereziki?**

Bi kontuk: batetik, Legazpiko familia garrantzitsuenak urrezko ezteiak egin zitueneko ospakizunak, herri guztiak hartu baitzuen parte; ikaragarritzko festa antolatuta zen. Eta, bestetik, Gabiria eta Legazpi artean dagoen Azpiri baserri-auzoan zegoen elkartasun giroak; gustatu zait nolako bizia zeukaten frogatzea.

**Besteetan bezala, nobela berriaren azalak ematen du barruko orrialdeen pistarik...**



Ane Odriozola, hirugarren eleberria eskuetan duela. A.O.

## "ELEBERRIEK TURISMOA ETA GUZTI SORTU DUTE NIRE BIRRAMONAREN GIBOLA BASERRIAN"

Egurrezko mahaia eta lau aulkigeri dira; konspiratzaileenak, hain zuzen. Mahaiaren erdian Agirretxeberri txaletaren plano agertzen da. Lehen aipatu dudan familia garrantzitsuenaren txalata da Agirretxeberri.

**Nondik jasotzen duzu inspirazioa?**

Liburu bat irakurtzen dudanean, apuntatu egiten dut bereziki gustatu zaidana; egitura edota misterioaren trataera, adibidez. Horiek nire sorkuntza prozesuan txertatzen saiatzen naiz. Gogoan dut nola hasi nintzen lehen eleberriarekin; Charlotte Link idazle alemaniarren zazpi nobela irakurri nituen uda batean, eta horrek piztu zidan *El secreto de Gibola* sortzeko irrika. Egia esan, nire amari opari bat egitea zen lehen asmoa, eta ez, horrenbeste, publiko egitea.

**Baina abentura horretan murgildu zinen; zure kabuz, gainera.**

Lehenengoetan, argitaletxe batekin jarri nintzen kontaktuan, baina, azkenean, ez zuten publikatu nahi izan, zaila baita idazle hasiberri batentzat halakorik lortzea. Autopublikazioa jo nuen orduan, eta funtzionatu egin zuen. Ondorioz, hurrengo bi eleberriak ere modu eta gogo berarekin planteatu ditut.

**Aurkezpenetan prozesu hori nolako den ere azaltzen duzu, ezta?**

Legazpin eta Zumarragan aurkeztu dut aste honetan, eta saiatu naiz saioa entzuleari entretenigarria egiten. *Booktrailer* bat jartzen dut hasieran; gero, solasaldia egiten dugu; eta bukaeran, bideo bat proiektatzen dut, autopublikazioaren faseak azaltzeko.

**Non eskura daiteke liburu berria?** Arrasaten, Elkarren eta Donde Yon dendan; eta Oñatin, Haritza liburu-dendan. Beste edozein liburu dendatan ere eskatzeko aukera badago.

**Amaitzeko, ba al duzu zerbait esku artean?**

Lau istorio dauzkat buruan bueltaka, baina erabaki dut datorren urtean ezer ez idaztea eta trilogia mugitzea. Etorriko da beste nobela bat gero, seguru.



Arrasate Musikaleko ikasleak, kontzertu inklusiborako entseatzeko. ARRASATE MUSIKAL

## Kontzertu inklusiboa egingo dute Monterronen gaur

Arrasate Musikalek aniztasun funtzionala duten ikasleekin "saio hunkigarria" egingo du 19:00etan

H.L. ARRASATE

Europako Kontseiluak sustatutako Ondarearen Europako Jardunaldien baitako ekitaldia izango da, Arrasate baita bertan parte hartuko duen 35 herrietako bat. Edorta Aiastuik, Arrasate Musikaleko kideak, aipatu du Udala jarri zela akademiarekin harremanetan: "Aurtengo aldiari *Ondare inklusiboa eta irisgarria* izena jarri diotenez, Kultura Sailak hots egin zigun kontzertu inklusibo bat antolatzeko proposamenarekin".

Izan ere, urteak daramatza musika eskolak aniztasun fun-

tzionala dutenei eskolak ematen. Aiastuik berak azaldu du notak koloreen bidez desberdintzeko metodologia erabiltzen dutela: "Adibidez, fa nota gorritz desberdindu dezakegu eta sol nota, urdinez".

**'Batzen' kantua, dantzagarri**

Musika eskolako ikasle eta irakasle ugari igoko dira Monterrongo oholtzara, hamabi kantu interpretatzeko. Berezia izango da amaieran joko duten *Batzen* abestia: "Jose Ramon Vitoriak konposatu zuen, edonork dantzatzeko ideiarekin".

## Joseba Irazoki eta Lagunak, eguen gauean gaztetxean

Kooltur Ostegunak ekimenaren urriko azken kontzertua izango da hilaren 28koa. 22:00etan gaztetxera gerturatzen direnek Berako gitarra-jole polifazetikoak bere taldearekin irailean kale-ratu zuen *III* diskoa zuzenean ikusteko aukera izango dute. Oinarrian rocka dute abestiek, espermentazio puntu batekin. Irazokik berak onartu du egin duen "proiekturik sendoena" dela, "inoiz baino gehiago mi-matu" dituela konposizioak, pandemiaren testuingurua baliatuta. *Ikusezina* singleak, esaterako, harrera beroa jaso du plataforma digitaletan, eta taldea zuzeneko askotxo ematen ari da azkenaldian.

## Giza Biblioteka saioan izena eman daiteke oraindik

Kulturaten izango da zazpi herriarren istorioak entzuteko helburua duen dinamika, hilaren 27an, 18:00etatik 20:00etara. Lagarren aldi honetako protagonistak Iñaki Peña, Jesusi Etxebarria, Luciana Alfaro, Yanina Choque, Josu Tornay, Amaia Arroyo eta Naiara Gorroño izango dira. Hala, izena ematen dutenek aukeratzen duten pertsonaren kontakizun berri izango dute, hamabost minutuz.

Banaka edo binaka parte hartzeko aukera egongo da, eta izena emateko hiru modu daude: Udal Bibliotekaren webgunearen bidez, telefonoz eta Kulturatera bertara gerturatuta. Bibliotekaren Egunarekin lotuta dago saioa.

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Bihar, zapatua, Gasteizko Bilbo plazan 18:30ean hasiko den manifestaziora joateko dei egin du Araba Bizirik! ekimenak.

**Zeintzuk zaudete deialdiaren atzean eta ze aldarrikatzen duzue?**

Araba Bizirik! ekimenaren barruan lau talde gaude: AHTrik Ez, Arabako Mendiak aske!, Proiektu Honi Ez eta Elikadura Iraunkorraren Aldeko Mugimendua. Planteatu dugu horrela ikusten dugulako hainbat alorretatik ari direla Araba osoa arrisku bizian jartzen. Mendi gehienetan eolikoak jartzeko proiektuak daude, larreetan zentral fotovoltaikoak jartzeko proiektuak, AHTrako azpiegitura berri bat egin nahi dute gaur egungo trenbidea berritu beharrean. Gainera, orain ari dira sustatzen nekazaritza industrialia eta eraiki nahi dituzte 60 hektareako berotegiak, urte osoan zehar 37 gradutan egongo direnak tomaten ekoizteko. Horrek dakarren gastu energetikoarekin eta nekazaritzaren industrializazioarekin. Horri aurre egiteko eta Arabaren defentsan erabaki dugu guztiok batera egitea manifestazioa.

**Goi tentsioko linearen proiektu baten berri ere jaso berri duzue.**

Bai, Zaragozatik Gasteizera Altsasutik pasatuta eta beste adar bat Altsasutik Gatikara Gipuzkoa zeharkatuko lukeena. Gaur jakin dugu, gainera, Zaragozatik egin nahi dutela goi tentsioko beste linea bat, Arabako Errioxatik sartuko litzatekeena. Hori guztia horrela da Zaragozan jarri nahi dituztelako zenbait zentral fotovoltaiko. Aldaketa klimatikoaren aitzakiarekin edo energiaren trantsizioaren aitzakiarekin negozio ikaragarria egin nahi duten multinazionalak Europako funtsetik datorren dirua emanez, eta lurraldea gutiz suntsituz.

**Arabaren kokatu dituzte proiektu asko. Zergatik, zure ustez?**

Orain dela 12 urte aurkeztu zituzten 15 bat proiektu zentral eolikoak jartzeko EAEko mendietan. Bizkaiko ahaldu nagusiak esan zuen Bizkaian ez zirela gehiago jarriko; horrek gelditu zuen dena. Araban egin zen mugari plana eta plan horrek esaten zuen Araban bazeudela guneak non ezin zen jarri eolikorik. Plan hori 2020an bukatu zen; ondoren aurkeztu

# "Araba osoa arrisku bizian jartzen ari dira proiektuekin"

**IÑIGO LEZA** ARABAKO MENDIAK ASKE PLATAFORMAKO KIDEA

Gasteiztarrak urteak daramatza Arabako mendiak eta lurraldea defendatzen. Arabako arazoa bakarrik ez dela dio, eta debagoiendarrak animatu nahi ditu aldarrikapenera



Iñigo Leza. AMA

dituzten plan guztiak Arabara izan dira. Nik uste dut euren iritzia dela jende gutxi bizi den lurraldea izanda aurka egingo dioten indarra ere txikiagoa izango dela. Espainia mailan ere gertatzen da hori, biztanle gutxi dauden lurraldeetan planteatzen dituzte proiektuak, Avila, Burgos, Zaragoza... Eta botoak ere gutxiago dira.

**Arabako aurreikusita dauden zentral eolikoaren proiektuak ze egoratan daude?**

Aixeindar enpresa dago atzean, non gehiengoa Iberdrolak daukan. Planteatu zuten jartzea lau zentral eoliko Iturrietan, Arkamun, Azazetan eta Labrazan. Jasotako presioaren harira Arkamun eta Iturrietan ez dutela egingo esan zuen Arantxa Tapiak; baina mahai berean zegoen Iberdrolako arduradun bat eta hark esan zuen Azazetakoa bikoiztu egin nahi dutela.

**Zapatuan mendi martxa egin zenuen Jarindora. Ze balorazio egingo duzue?**

Balorazioa positiboa da. Jende asko batu da martxetara; batez ere, Jarindon. Ia 300 lagun elkartu ginen. Azazetan 180 inguru egon ginen eta besteetan gutxiago. Ikusi dugu jendea kontzientziatuta dagoela eta prest dagoela halako ekimenetan parte hartzeko.

**Ze alternatiba eskaintzen duzue?** Lehenengo, ikusi behar da nolako sisteman gauden. Kapitalismoak hazkuntza behar du eta urte batetik bestera kontsumoak igo egin behar du. Sistema horretatik irten behar dugu, bestela jan egingo du eta lurralde osoa. Energia sortu behar bada, bestelako lekuak bilatu behar dira. Arasurren zentral fotovoltaiko bat jarri dute, 55 hektareako nekazaritza lurra estaliz. Ondoan Arasur poligonoa dago: ez dute planteatu pabiloi horietan jartzea panel fotovoltaikoak. Horrelako leku antropizatuetan jarri beharko liriteke.



Zapatuan Jarindon hartutako irudia. ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

## Aramaioarrak, Jarindora martxan

*Babestu maite duzun mendia* lelopean egin zuten zapatuan Jarindora mendi martxa. 300 bat lagun elkartu ziren, eta enpresa handiek eta erakundeek sustatu nahi duten energia eolikoaren ereduaren aurka agertu ziren; biodibertsitatea zaintzea eskatu zuten.



Arabako Ekologistak Martxan taldeko kideak, eguaztenean, laginak hartzen. AEM

## Lindanoz betetako bidoia ote den aztertzen ari dira

Arabako Ekologistak Martxan taldeak salatu du Albinako urtegiaren ondoan hondakin arriskutsua izan dezakeen bidoi bat dagoela. Abuztuaren 26an eman zion horren berri Urak Euskal Agentziari; asteon baieztatu dute bidoia han dagoela oraindik ere

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Urriaren 20an, eguaztenean, joan ziren Arabako Ekologistak Martxan taldeko kideak Albinara, eta ziurtatu zuten oraindik ere han dagoela ustez hondakin arriskutsua izan dezakeen bidoia. Alerta abuztuaren 26an piztu zen. "Kide batek apurtuta zegoen bidoi bat ikusi zuen, eta hainbat ezaugarri kontuan hartuta lindanoa izan zitekeela pentsatu zuen", azaldu du Arabako Ekologistak Martxan taldeko Andres Illanak. Uraren Euskal Agentziari pasa zion abisua: "Zergatik? Albinako urtegitik 40 metrora dagoelako, eta errekatxo batetik 20 metrora. Gainera, kupela dago azaleko uren babeserako kalifikatutako eremu batean".

### Ertzaintzak, hesitu

Illana urriaren 6an pasa zen Albinatik eta ikusi zuen bidoia oraindik ere han zegoela: "112 telefonora deitu nuen eta Ertzaintzaren patruila bat bidali zuten. Horiek kupela hesitu egin zuten,

besterik ez". Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailean eman zuten egoeraren berri.

### Laginak hartu dituzte

Eguaztenean, urriaren 20an, Arabako Ekologistak Martxan taldeko kideak berriro ere joan ziren gunere horretara; eurekin joan ziren hainbat legebiltzarkide. Bidoitik laginak hartu zituzten, horiek analizatzeko: "Laginak zigilatuta bidali dizkiogu Urak Agentziari, Eusko Jaurlaritzari, eta EH Bilduko legebiltzarkideak ere hartu du Udalarari emateko".

Administrazioen arteko koordinaziorik eza salatu dute: "Mendizaleak, ehiztariak... pasatzen dira hortik. Ezin da onartu".

## ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIO EZA SALATU DUTE EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKOEK

## Udalaren eskaera

Aramaioko Udalak iritzia eman nahi du egoeraren aurrean: "Irailaren 24an, Ura agentziak eskatu zion Udalarari bidoia kentzeko, hondakin urbanoa dela esanez. Bidoia ez dago Udalaren lurretan, eta gainera, hiri hondakina ez dela kontuan hartuta, Udalak ez du horrelako hondakin bat kentzeko balibiderik". Ustezko hondakin toxikoa kentzeko kudeaketa egin dezan eskatu dio Udalak Ingurumen Sailari eta Urak agentziari, urriaren 15eko datarekin.

## Dantza tradizionalak eta koreografiak ikasteko aukera

Hasi dituzte entseguak, kiroldegiko gimnasioan; bost taldetan banatuta, 60 bat lagun dabilta dantza taldean

### A.E.G. ARAMAIO

Lagun Artean dantza taldeak dantza tradizionalak eta koreografiak ikasteko aukera eskainiko du, beste behin. Pandemia ondorengo egoeran, modu normalizatuan hasi dira entseguak egiten, kiroldegiko gimnasioan.

60 bat lagun hasi dira, bost taldetan banatuta. Hala ere, nabarmendu dute taldeak atek zabalik dituela nahi duenak parte har dezan. Dantza egiteko interesa duenak mezu bat idatz dezala [lagunartean60@gmail.com](mailto:lagunartean60@gmail.com).

com helbidera. Astean ordubeteko entseguak egingo dizute, eguenetan edo egubakoitzetan.

Taldeko parte izateak herriko jaietan dantza egiteko aukera eskaintzen du. Horrez gain, dantza taldeak beste zenbait emanalditan ere parte hartzen du: egunotan, urriaren 30ean Erretiratuen Egunean egingo dituzte dantzak entseatzen dabilta buru-belarri.

Horrez gain, Gaba Baltzaren harira, Txirritolak eta Guraso Elkarteak antolatuko duten ekitaldian dantza egingo dute.



ARAMAIXOKO BERTSO ESKOLA

## Saio ederra Illarregik eta Aranek

Egubakoitzean Joanes Illarregik eta Haizea Aranek egindako bertso saioarekin hasi dute ikasturtea bertso eskolan. Saioa ederra izan zen, eta bertsoarako gogotsu daudela erakutsi dute. Ikasturtea lau talderekin hasiko dute bertso eskolan: 12-14 urte bitartekoak, 14-16 urte bitartekoak, 16-18 bitartekoak eta nagusiak.

## Azaroaren 18ra arteko epea dago orri markagailuak egiteko

Gorbeialdeko Kuadrillak XVI. orri markagailu lehiaketa jarri du martxan. Orri markagailua egiteko testua, irudia eta gaia libreak izango dira, norberak aukeratu beharrekoa. Sei maila egongo dira: benjaminak -2-5 urte-, kimuak -6-10 urte-, haurrak -11-14 urte-, gazteak -15-17 urte-, helduak -18-65 urte- eta seniorrak.

Lanak 4,5x21 zentimetroko folio edo kartoi mehe batean aurkeztu beharko dira. Ez da bestelako neurririk onartuko. 2021eko azaroaren 18ra arte dago lanak aurkezteko. Ez dute onartuko irudi, marrazki edo pertsonaia ezagunak dituen lanik. Aramaioko liburutegian edo udaletxean aurkez daitezke lanak. Hiru sari egongo dira kategoriako: 150 eurokoa, 100 eurokoa eta 60 eurokoa. Benjaminean eta seniorretan, aldiz, sari bakarra: 40 eurokoa.

# Tasa eta zerga gehienak %3,3 igoko dituzte 2022an

Udalbatzak aho batez onartu ditu ordenantza fiskalak. Zaborraren tasak %5eko igoera izango du eta datorren urtetik aurrera merkatariek eta ostalariek osorik ordaindu beharko dute hori; gainera, terrazena kobratzen hasiko dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen Aretxabaletako udalbatzak astelehenean, eta ordenantza fiskalen igoera aho batez onartu zuen. Hala, datorren urteko udal zergak eta tasak, orokorrean, abuztuko KPI metatua igotzea erabaki zuten; hau da, %3,3. "Zerbitzuen gero eta eskaera handiagoa dago, eta horiek eskaintzeko derrigor igo behar dira sarrerak", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak, eta EH Bilduko bozeramaile Ion Albizuk gaineratu: "Planteatu den igoerarekin zerbitzu publikoak indartzeko bidean jarraitzen dugu, eta horregatik babestu ditugu".



Aretxabaletako Loramendi kalea. MIRARI ALTUBE

**Terrazen tasa berrezarri**

KPIaren igoera izango dutenen artean daude ondasun higiezinaren gaineko zerga; ekonomia-jardueren gainekoa; trakzio mekanikoko ibilgailuena; eraikuntzen, instalazioen eta etxeko obra txikien gainekoa; eta uraren tasa. Salbuespena izango da zaborraren tasa; hori %5 igoko da. "Zaborraren kostua estali arte kopuru hori igotzea erabakita dugu, eta hala jarraitzea da asmoa", azaldu zuen alkateak.

Merkataritza eta ostalaritza zerbitzuen kasuan, aldaketa bi iragarri zituzten: "Pandemiaren ondorioak leuntzeko, merkatariei eta ostalariei zaborraren tasa murriztu egin zitzaizkien. Beste egoera batean egonda orain, normaltasuna berreskuratuko da datorren urtean eta horiek osorik kobratzen hasiko gara". Urari dagokionez, oster, kontsumitutakoagatik ordaintzen hasi ziren merkatariek eta ostalariek pandemia sasoiaren gutxienez kenduta, eta hala jarraituko dute 2022an ere.

Terrazei dagokionez, pandemia aurreko tasa berrezarriko da. "Dirua bildu baino gehiago, arautu egin gura dugu kontua. Izan ere, arauak betez gero eta lekua

## KONTSUMITUTAKO URA ORDAINTZEN JARRAITUKO DUTE OSTALARIK ETA MERKATARIK

izanda, kaleari bizitza ematen dio terraza batek. Horregatik, behar bezala finkatu gura ditugu kontuak: baimenak, ordutegia...", azaldu zuen alkateak.

Bestetik, ordenantza fiskaletan gaineratu dute Udalaren eraikinetako aretoak eta gelak erabiltzeagatik ez dietela kobratuko irabazi asmorik gabeko herriko eragileei eta elkarrekin. "Orain arte ere horrelaxe zen, baina hori jaso barik zegoen ordenantza fiskaletan", argitu zuen alkateak.

**Ura eta zaborra, aztertzerkotan**

EH Bilduk, aho batez onartu arren, "justuak ez diren tasak" aldatu beharra dagoela aipatu zuen: "Zaborraren kasuan, jarduera profesional batzuk kalteak direla uste dugu. Aldaketa egitea proposatu izan dugu behin baino gehiagotan, baina oraindik

egiteko dago. Aurten uraren tasaren gogoeta ere egin gura dugu, pertsona bakarra bizi den etxe batean gutxiago ordaindu beharko litzatekeelako". Elkoro alkateak erantzun zuen zaborraren kostuaren gaineko azterketarik egingo den galdetuko duela Debagoieneko Mankomunitatean. Eta uraren kasuan, Ur Kontsultazioarekin aztertzerkotan direla gaia.

Gipuzkoako taxilarien elkarrekin, oster, 2022rako zerbitzuen tarifak %2 igotzea proposatu zuen, baita udalbatzak onartu ere, aho batez.

**Santa Kurtz kaleko lanak**

Bestetik, Santa Kurtz kaleko lanak Sasoi Eraikuntzak enpresa nafarrari esleitu zizkioten, 2.042.544 eurotan. Lanok azaroan hastea dela asmoa azaldu zuen Hirigintza zinegotzi Xabi Otxoak, eta, ondo bidean, 42 astean bukatzea. Kuartel zahararen alboan dagoen erdi-biribildunean hasiko dituzte, eta handik Kurtzebarri eskolarako norabidean jarraitu, zatika. Hornidura eta saneamendu sareak ordezkatzeko gain, kale hori eta ingurukoak berrurbanizatu egingo dituzte.



M.A.

## Sabadellen bulegoaren itxiera

Sabadell banketxeak Aretxabaletako Durana kalean zuen bulegoa itxia erabaki du, beste hainbat herritan egindako legez. Urriaren 14an eman zuen zerbitzua azkeneko, eta hurrengo egunean hustu eta garbiketa lanak egin. Kutxazaina erabilgarri egongo dela jakinarazi dute eta bertako bezeroak Arrasateko bulegora joan ahal izango dira.

## Hutsik dauden etxebizitzak jabeekin bilera egingo du Udalak

Astelehenean izango da, komentu zaharrean, eta gazteei emantzipatzen laguntzeko ekimenaren berri emango die

**M.A.** ARETXABALETA

Etxebizitzaren alokairua ordaintzen lagundu nahian gazteendako dirulaguntzen programa abian jartzeko lanetan dihardu Udalak. Horren helburuak dira 18 eta 35 urte arteko aretxabaletarrei emantzipatzen laguntzea eta etxebizitzaren alokairua bultzatzea. Gazteekin ekainean bildu ziren udal ordezkariak, eta orain, etxebizitza hutsen jabeekin elkartuko dira, xehetasunak azaltzeko eta etxebizitza alokairuan jar dezaten animatzeko. Bilera astelehenean, urriak 25, izango

da, komentu zaharreko kaperan (18:30). Udalak herritarren iradokizunak jaso gura ditu dirulaguntzen oinarriak zehaztu baino lehen; deialdia 2022an egingo du.

Laguntzak banaka edo bizikidetza-unitate gisa eskatu ahal izango dira. Urteko diru-sarreraren gordinak 28.000 eurotik gorakoak ez izatea aurreikusten da pertsona bakarren kasuan, eta 44.000 eurotik gorakoak bizikidetza-unitatearentzat. Eta alokairu kontratuak, gutxienez, hamabi hilabetekoa izan beharko du.

## OHARRAK

### Odol ateratzea

Urriaren 26an, Arabako odol bankuko autobusa izango da Durana kalean (16:45-20:00). Eta hilaren 28an, MÜren fakultatean (09:45-13:00).

### Frontenis txapelketa

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetan elkartzen diren nerabeek frontenis txapelketa jokatuko dute bihar, zapatua.

**M**obiliario  
**ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Badator ekitaldi askok girotutako Gaba Baltza

Loramendi elkarteak eta Algara ludotekak aste osoko egitaraua gertatu dute, urriaren 31ra zain egon barik. 'Scape room'-ak iaz arrakasta handia izanik, aurten ahalegin berezia egin dute hori indartzeko, eta komentu zaharrearantz gertatuko dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Orain dela lau urte inguru hasi ziren lantzen Loramendi elkarteak eta Algara ludoteka Gaba Baltzaren inguruko kontuak, eta, iazko etenaren ostean, indartuta dator hitzordua. Urriaren 25etik 29ra bitartean, ohitura zaharrek, beldurraren bueltako istorioek eta jolasek bat egingo dute.

**'Scape room'-a bost egunetan**

"Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako jaiaren eragina gero eta handiagoa zela ikusirik, eta gurean ere egun berezia izaten zela jakitun, jai horri beste buelta bat ematea erabaki zuen Loramendik. Izan ere, gurean beste esanahi batekin eta beste modu batera ospatu izan da. Hortik etorri zen kantu bat asmatzeko beharra eta janzerakoan ere ahalegin berezia egitea", azaldu du Loramendiko teknikari Ainhoa Sanchezek.

Iazko egoerak besterik egiteko aukerarik utzi ez, eta *scape room*-a antolatu zuten: "Zerbait xumea egin genuen, baina sekulako arrakasta izan zuen. Jendea eske etorri zaigu aurten ere, eta, horregatik, komentu zaharrena eroan dugu eta zerbaita izango da".

Astelehenetik eguaztenera bitartean, 16 urtetik gorakoak



Umeak suaren bueltan elkartuta plazan, Gaba Baltza ospatzen. LORAMENDI ELKARTEA

joan ahal izango dira *scape room* horretara. Hiru txanda egongo dira, 17:00etan hasita, eta bost eta zazpi lagun arteko taldeek parte hartu ahal izango dute bakoitzean –prezioa, 15 euro taldeko–. Hilaren 28an eta 29an, oster, 10 eta 16 urte artekoen dako zabalduko dute. Hiru txanda izango dituzte hauek ere, eta zortzi eta hamar lagun arteko taldeak onartuko dituzte –prezioa, euro bat kide bakoitzak–. Izena emateko, Loramendira jo behar da: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus) eta 685 75 67 29.

**Umeendako: filma eta tailerrak**

Umeek ez dute *scape room*-ik izango, baina bai beste ekintza batzuk. Eguaztenean, urriaren 27an, *Ipar haizearen erroka* filma emango diete udaletxe zaharrearantz (17:30). Eta hilaren 29an, tailerrak izango dituzte. Urriaren 31n ez dute aparteko ospakizunik egingo, baina kalabaza lehiaketari eutsiko diote: "Kalabaza apaindu eta Loramendin aurkeztu beharko dute, eta gero, Durana kaleko txokoren batean jarriko da. Erakusketa bat ere egingo dugu horiekina".

## Nerabeen arteko indarkeria matxista saihestea helburu

Protokolo bat zehaztu du hainbat eragilerek elkarlanean eta urriaren 27an aurkeztuko dute, Arkupen

**M.A.** ARETXABALETA

Nerabeen arteko indarkeria matxista kasuak detektatzeko "jarraibide argiak" dituen protokoloa zehaztu du Udalak; garrantzi handia eman dio hori saihesteko prebentzioari. Hiruki Larroxa elkartearen gidaritzapean garatu dute, eta lanke horretan izan dira herriko hainbat eragile: Udaleko Gazteria Saila eta Berdintasun Saila, gaztelekuko hezitzaileak, kale hezitzaileak eta UDA.

*Aretxabaleako nerabe eta gazteen artean ematen den indarke-*

*ria matxistaren aurkako protokoloa*-k hiru atal nagusi ditu: prebentzioa eta sentsibilizazioa; detektzioa; eta arreta eta jarraipena. Udaletik jakinarazi dute nerabeekin lan egiten duten profesionalentzako jarraibideak eskaintzen direla, indarkeria matxista egoerak identifikatu eta erantzuna emateko; betiere, prebentzioan eta sentsibilizazioan fokua jarrita.

Protokoloa herriko eragileei aurkeztuko die Udalak eguaztenean, hilaren 27an, Arkupen (18:00).

## 'Atzerrian lurra garratz' antzezlan izango da domekan

Amancay Gaztañaga zuzendariak eta Lander Lipus eta Laura Penagos antzezleek idatzitako *Atzerrian lurra garratz* ikuskizuna eskainiko dute Huts Teatroak eta Artedramak domekan (19:00), Arkupen –sarrera, 4 euro–.

Immigrazioa eta sorkuntza ditu hizpide lanak, eta guztiaren ardatza da bere jatorrizko herrietik irten den emakume sortzaile baten bizipenak. Hausnarketa eragingo duten hainbat galdera sortuko dira oholtzan: posible al da norbera jaio ez den lur batean sustraitzea? Posible da, familiaren eta aberriaren zama gainean dugula, hegaldi propioari ekitea?

## Energia berriztagarriak hizpide martitzenean

*Energia berriztagarriak zure etxean... posible da!* izenpean, etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko aukeren berri emateko tailerra egingo da urriaren 26an (18:00), Arkupen; izena emateko azken eguna gaur da; hona bideak: [argitu@gipuzkoa.eus](mailto:argitu@gipuzkoa.eus) eta 605 75 76 87. Antolatzaileen esanetan, saio praktikoa izango da eta gaian aditu den kide batek energia berriztagarrien instalazioak jartzeko baldintzak zeintzuk diren argituko du.

Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak Udalarekin elkarlanean antolatutako *Energia Argitu* egitasmoaren baitako saioa da.



RPS: 83/19



**ORTODONTZIA IKUSEZINA**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

# 'Herriaren hauspoa'-ren proiektzio gehiago

Joan den egubakoitzeko estreinaldi "arrakastatsua" ostean, gaur, egubakoitza, 19:00etan, Arkupen, eta urriaren 29an ordu eta leku berean egingo dituzte UDAREN 75. urteurrenaren harira osatutako dokumentalaren proiektzioak

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkartearen 75. urteurrenaren harira egingo dako *Herriaren hauspoa* dokumentalaren grabaketak uda aurretik hasi zituzten, uda ostean grabaketekin jarraitu zuten, eta, edizio eta postproduktzio lanen ostean, gaur zortzi estreinatuko zuten, Arkupen. Arteman Komunikazioak eta AZ Visual Media UDAREN aholkularitzarekin egindako lana da, eta harrera ona izan du estreinaldiak.

Gerturatu zirenen artean, "hunkituta" agertu ziren asko, eta protagonistak eta proiektuan parte hartu dutenak "harro" azaldu ziren azken emaitzarekin. Edozelan ere, ikus-entzunezkoa oraindik ikusi ez dutenek aukera izango dute horretarako; izan ere, gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpietan, beste proiektzio bat egingo dute, Arkupen, baita urriaren 29an eta azaroaren 5ean, ordu eta leku berean.



Ikus-entzunezkoaren fotograma bat. 'HERRIAREN HAUSPOA' DOKUMENTALA

## Aurrera begira, hitzordu gehiago

Testigantza ugari batzen dituzte lanak: UDAko jokalariek, jokalariek, entrenatzaile izandakoak, zuzendaritzako kideak, herritarrak, zaleak... Gainera, bitxikeria ugari dau-

dela eta samur ikusteko moduko lana dela adierazi dute lanaren egileek. Hala, urteurrenari hasiera emateko hitzordua izan da, eta urtean zehar beste hainbat ekintza antolatuko dituztela gaineratu zuten.

## "Produktuen etiketak aztertzen ikasiko dugu, besteak beste"

**GARAZI ABASOLO** DIETISTA

Elikadura osasungarriaren saiok eskaintzen ari da

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Atxabaleta Mugik elikadura osasungarria sustatzeko hitzaldi sorta antolatu du, eta Garazi Abasolo dietista aretxabaletarra arituko da saio horiek ematen. Eguaztenean egin zuten lehenengo, eta urriaren 27an, azaroaren 3an eta 10ean izango dira ondorengoak; guztiak, Ibarra kiroldegian, 18:00etan. Horietara joan nahi duenak izena eman behar du Ibarra kiroldegiko harrean edo 943 03 98 42 telefono zenbakira deituz.

**Eguaztenean, plater osasuntsuen gaineko azalpenak eman zenituen, besteak beste. Zein izango litzateke ideia garrantzitsuena?**

Garrantzitsuena da denetarik eta modu orekatuan jan behar dela. Hori modu errazean nola lortu daitekeen helarazi nien bertaratu zirenei, eta, horretarako, egun batean aste osorako kozina daitekeela ere erakutsi nuen, esaterako.

**Etiketa nutrizionalen gainean jardungo duzu urriaren 27an. Zer jakin behar da?**

Supermerkatuetako produktuen etiketak irakurtzen ikasiko dugu, pertsona bakoitzak jakin dezan zer erosten duen.



Garazi Abasolo dietista. GOIENA

**Behobia-Donostia lasterketarako aholkuak ere emango dituzu. Fisiokoki prestatzeaz batera, elikadura ere zaindu behar da?**

Lasterketaren aitzakian, jarraitu behar duzu emango dituzte kirola egin aurretik, egiten ari garen eta ostean nola elikatu behar dugun.

**Gosari osasungarria ere izango duzu hizpide, ezta?**

Hainbat aukera ikusiko ditugu, beti berdina ez dagoela jan beharrik... Azken finean, askotariko aukerak planteatzea izango da asmoa.

## Zer izan da UDA zuretzat?



**MANOLO ZUBILLAGA** UDA-KO PRESIDENTE OHIA

"Eztei-bidaiatik bueltan, Aretxabaleta iritsi bezain pronto lagun batek deitu zidan eta hor hasi zen nire UDAko ibilbidea. Orduan, 25 urte nituen, eta gaur arte aritu naiz UDAREkin hartu-emanen, ahal izan dudana guztian laguntzen, eta, hain zuzen, klubarekin erlazioz naute guztiek".



**OIHANA MATA** UDA-KO PILOTARI OHIA

"Nire garapen prozesuan inportantea izan da; batez ere, pilotari ibili nintzen hamar urteetan. Gogorra bezain aberasgarria. Orokorrean, asko eman didan elkarrekin da eta erreferente handia hainbat eremutan, ez bakarrik kirol arloan, esku artean daukan hainbat proiektuengatik ere".



**IGOR ARENAZA** UDA-KO KIROL ZUZENDARI OHIA

"Bizitza honetan ametsak betetzen lagundu zidan lehenengo urratsa izan zen. Nire errespeturik handiena, beraz, kirolean nahiz balioetan hezi ninduelako. Ereindako haziek fruitua eman badute, merezi izan zuela esango nuke, UDAtik jasotakoa askoz gehiago izan baitzen".



NIRE USTEZ

**OIER ZUMARRAGA** HERRITARRA

## Kontrako gremioak

Urriaren 2an, Urbanan ospatutako rallyan arreta eman zidan *-Futbol eta + Karreras* esamoldea zenbat aldiz errepikatu zen. Eranskailuetan, pankartetan, asfaltoan idatzia edota zale propioen lelopean. Gogoetara bultzatu ninduen honek: bateraezinak al dira bi kirol hauek? Auto lasterketen eta futbol zaleen gremioek zergatik gorroto dute elkar? Orduan, uste dena baino parekotasun gehiago dituztela ohartu nintzen: zaleen berotasuna eta grina, leialtasuna, urduritasunak eragindako sabeleko kilimak, protagonistek prestakuntzara dedikatutako lan ikusezina, pipa-jana... Amodiozko erlazio toxiko bat balitz bezala; nahiz eta beraien arteko harremana gorabeheratsua izan, pentsatzen dutena baina gauza gehiago dituzte amankomunean. Pertsonalki, nire pasioa betidanik futbola izan da, baina honek ez dit inoiz ekidin autoekiko dudana zaleen zaleen gozatzea. Zerbait aukeratzeko denek ez zaio beste gauza bati nahitaez uko egin behar. Hau dena kontuan hartuta, zer demontre: *+ Futbol eta + Karreras*. Euskal Herrian dagoen kirol aniztasunaz goza dezagun!



Urriko ezohiko osoko bilkura kultura etxean egin zuten joan den egunean Eskoriatzako udalbatzako kideek. IMANOL BELOKI

## Zergak ez dituzte igoko, salbuespen batzuekin

2022. urterako ordenantza fiskalak aho batez onartu zituzten. KPIaren %50 igoko dute -1,75-, baina salbuespen batzuk ere badaudela adierazi zuten: Teleskoko tasa izoztea edo kiroldegiko tasa %50 igo beharrean %75 igotzea, besteak beste

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

COVID-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako alarma-egorearen aurrean, Eskoriatzako Udalak osoko bilkurak eta batzordeak modu telematikoa egiteko neurria hartu zuen apirilaren 2an, eta, 2020ko irailaren 23an udaletxeko osoko bilkura aretora bueltatu arren, orain arte modu telematikoa egin dituzte osoko bilkurak.

Neurriak arinduta, urriko ezohiko osoko bilkura telematikoa barik, era fisikoan egitea adostu zuten udalbatzako kideek, baina, udaletxeko osoko bilkura aretoan egin beharrean, kultura etxeko lehenengo solairuan egin zuten joan den egunean ezohiko bilkura udalbatzako kideek, udaletxean obrak egiten ari direlako.

**Zerga eta tasei utsi**

Eskoriatzako Udalak ematen dituen zerbitzuen kalitatea bermatzeko, zergei eta tasei ahal den neurrian eustea proposatu

zuten urriko ez ohiko osoko bilkuran, 2022. urterako ordenantza fiskalen aldaketa onartzerakoan.

"Zergak ez igotzea proposatu dugu, salbuespen txiki bat izan ezik. Tasak, berriz, Eskoriatzako Udalak ematen dituen zerbitzuak ordaintzeko, KPIaren %50 igoko ditugu: 1,75. KPIa %3,3 igotzen ari da une honetan, eta planteatzen dugu bere erdia igotzea. Hala ere, salbuespen batzuk ere badaude: esaterako, Teleskoko zerbitzua ez dugu igoko, eta Manuel Muñoz kiroldegiko tasa %50 igo beharrean %75 igoko da; hau da, igoera %2,48koa izango da. Azken honi dagokionez, oinarritzko zerbitzua ez bada ere, garrantzitsua da,

**EZOHIKO BILKURA KULTURA ETXEAN EGIN DUTE, UDALETXEAN OBRETAN ARI DIRELAKO**

eta zerbitzu hori beti defizitarioa izanda, pixka bat gehiago igotzea pentsatu dugu. Guztira, oso eragin gutxi izango du herritarrengan, igoera txikia baita", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, EAJ-ko bozeramaileak.

**Bilduren ekarpena**

EH Bilduko Dorleta Sologaitza zinegotziak, bestalde, adierazi zuen ordenantza fiskaletan trantsizio energetikoaren aldeko hautua indarra hartzen dabilen zantzuak ikusi dituztela. "Bereziki nabarmendu nahi genuke energiaren autokontsumoaren aldeko lerroa indartu izana. Autokontsumoaren aldeko apustua egiten duten herritarren OHZn (IBI) egiten zaien %50eko deskontua 5 urtetik 10ra pasatzeak, aldaketa xumea dirudien arren, herritarrak aukera honen aldeko apustu gehiago egitera animatuko ditugun esperantza daukagu. Azkenik, gure ekarpen hau kontuan hartu izana eskertu nahi genuke".



Taxi partekatua sistema ezartzerakoan, elizateetan jarritako markak lurrian. I.B.

## Ordutegi berria elizateetako taxi zerbitzu partekatuan

Taxi zerbitzuaren probaldiaren lehenengo zikloa amaituta, astelehenetik ordutegi berria jarri dute

**I.B. ESKORIATZA**

Elizateak hirigunearekin lotzeko taxi proiektu pilotua irailaren 27an jarri zen martxan, eta, orain artekoaren balorazioa eginda, hainbat aldaketa ezarri dituzte, zerbitzua hobetzeko asmoz. Hiru dira aldaketa nagusiak: batetik, zerbitzua astelehenetik egubakoitzera emango da; goizean bi ziklo egongo dira eta arratsaldean, bat. Bestetik, asteburuetan -zapatu eta domeka- eta jaiegunetan ez da zerbitzurik emango, eta, azkenik, gaueko zerbitzurik ez da egongo. Gainerakoan, berdin mantenduko da zerbitzua.

**Kontuan hartzeko oharrak**

Ordutegi berriarekin batera, erabiltzaileek kontuan hartzeko oharrak ere ezarri dituzte. Besteak beste, zerbitzuaren kostua ibilbideko bi eurokoa izango da, eta desbideratze pertsonalizatua eskatzen duen erabiltzaileak beste bi euro ordaindu beharko ditu. Ordutegiak gutxi gorabeherakoak dira, eta, eskari orokorreari erantzuteko asmoz, astetik astera aldatu daitezke. Gehienez, hamar euroko billetearekin ordaindu ahalko da... (Taxi zerbitzuaren ordutegi berria *Goiena.eus* webgunean ikusgai dago).

## GORA ETA BEHERA



### Beira botatzeko edukiontzia, beteta

"Orain dela aste batzuetatik hona, beira botatzeko edukiontzia hau [Eskoriatzako Mazmela elizateko bidean dagoena] egoera lotsagarri horretan dago. Ondoan dagoen errekarra bota behar ditugu gure botila eta poteak?", adierazi du bizilagun batek, haserre.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

*berriak@goiena.eus*

edo 688 69 00 07.



ION ANDER LASAGABASTER



Astelehenean, Mugikortasun Astearen baitan, bizikletak konpontzeko oinarrizko ikastaroa eman zuen Javier Castilloro Oreka bizikleta dendan. IMANOL BELOKI

# Ikastaroetan oinarritutako Mugikortasun Astea

Beste urte batez, herritarrek garraio osasungarriagoak erabili ditzaten kontzientziatzeko Mugikortasun Astea antolatu du Eskoriatzako Udalak, eta 'Oinez, bizikletaz zein patinetez, segurtasunez ibili' da horretarako aurtengo leloa

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Iraileko hirugarren astean egin ohi den arren, Mugikortasun Astea urriko hirugarren astean egitea erabaki du aurten Eskoriatzako Udalak. Hala, astelehenetik hasita, zenbait hitzordu izan dira egunero; batez ere, egitaraua osatu duten ekintzak ikastaroak izanda. "Herrian zehar

zein herritik kanpo mugitzeko autoaz gain beste aukera batzuk ere badaudela erakutsi nahi diegu herritarrei, eta horiek ondo erabiltzen irakatsi, eta animatu. Horretarako, aste osoko programa izan dugu, eta gaur emango diogu amaiera, Fernando Eskoriatza plazan antolatu ditugun ekintza sortarekin",

adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak.

**Profesionalek gidatutako saioa**

Astelehenean, Oreka bizikleta dendako Javier Castilloren eskutik bizikletak konpontzeko tailerra izan zen Intxaurtxuetan auzoko Oreka dendan. Zenbait lagun batu ziren bertan,

eta bizikletak konpontzeko hastapeneko ikastaro ederra jaso zuten profesionalen eskutik. Bizikletak dituen piezetatik hasi, oinarrizko kontzeptuak errepasatu eta zenbait aholku ere eskaini zizkien bertaratuei. "Ikastarora joan ezin ziren zenbait herritarrek halako beste ikastarorik egingo ote den ere galdetu dute; horrenbestez, arrakastatsua izan zela esan dezakegu".

Horrekin batera, martitzenean eta eguenean, patinetan aritzeko ikastaroa izan zen Luis Ezeiza Herri Eskolako kantxan; bitaldetan banatuta, 20 lagun inguru aritu ziren. Eguaztenean, berriz, skatean aritzeko ikastaroa izan zen estazio zaharrean, eta, horrekin batera, udaltzainak ere izan dira ikastetxeetan, oinez, bizikletaz edo patineteetan ari-

tu behar diren arauak hurrei gogorarazten. Asteari amaiera emateko, 17:00etan hasita hitzordu ugari izango dira Fernando Eskoriatza plazan.

**Astea borobiltzeko**

Bigarren eskuko patinak, patineteak, bizikletak, kaskoak eta bestelakoak saltzeko eta erosteko azoka ere antolatu dute gaurko. Herritarrek astean zehar Manuel Muñoz kiroldegira eramandako materiala salerosiko da gaur, egubakoitza, Fernando Eskoriatza plazan, eta jabeen ardura izango da materialari prezioa jartzea. "Ez gaude ziur bigarren eskuko azoka egingo denik; izan ere, ez da material askorik batu. Hala ere, ginkana bat izango da, Oreka bizikleta dendakoak bizikleta ezberdinak erakusten egongo dira, bizikleta elektrikoak egongo dira probatzeko, auto elektriko txiki bat ere izango da jendeak ikusi eta probatu dezan...".

Bigarren eskuko bizikleta azoka egiten bada, materialak eramaten dituztenei gaurko azoka amaitu baino hamar minutu lehenago azokara hurbiltzeko eskatu diete antolatzaileek.

**GAUR, 17:00ETAN HASITA, EKINTZA SORTA HANDIA IZANGO DA FERNANDO ESKORIATZA PLAZAN**

## Gaba Beltzerako motorrak berotzeko, proposamen ugari

Josu Ozaita antropologoak hitzaldia egingo du urriaren 27an, 19:00etan, Zaldibar antzokian

**I.B.** ESKORIATZA

Gaba Beltza urriaren 31n ospatuko da, eta, egunerako egitarau zabala proposatu arren, hitzordu ugari izango dira aurrez ere; batez ere, Tortolis ludotekako erabiltzaileei zuzendutakoak izango dira. Hilaren 25ean, ludoteka apainduko dute; urriaren 26an, kalabaza hustuketa tailerra egingo dute, eta 4 eta 7 urte bitarteko haurrek gurasoekin joan beharko dutela adierazi dute. Urriaren 27an, arropa tailerra egingo dute; eta urriaren 28an, sukaldaritza tailerrean,

gailera beldurgarriak egingo dituzte.

**Hitzaldia urriaren 27an**

Horrekin batera, hilaren 27an, *Itzalitako Gaba Beltza berpizten* hitzaldia egingo du Josu Ozaita antropologoak, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Josu Ozaita eta Jaime Altuna antropologoen egindako ikerketa lanaren berri emango du Ozaitak berak, eta, hain zuzen ere, Halloweenek eta Arimen Gauak Euskal Herrian izan duen bilakaeraren berri emango du.



Josu Ozaita antropologoak hitzaldia egingo du urriaren 27an. ESKORIATZAKO UDALA

**Gaba Beltza, ekintzaz josia**

Urriaren 31n, egitarau zabala izango da: eskulanak plazan (4-7 urte), sorgin-edabea hartzeko tarteak izango da, *La familia Adams* pelikula proiektatuko da Zaldibar antzokian, ginkana

beldurgarria egingo dute 8 urtetik gorakoentzat, beldurrezko ipuin kontaketa egingo dute deposituan... Horrekin batera, gaztelekuan *Sua* mahai-jolasa izango dute, eta beldurrezko film laburrak ikusiko dituzte.

## 'Skratz' ikuskizuna izango da domekan Zaldibar antzokian

Domekan, 3 urtetik gorako hurrei zuzendutako *Skratz* izeneko ikuskizuna izango da Zaldibar antzokian, Ameztu Produktioak taldearen eskutik. Diberigarria eta familian ikusteko moduko antzezpena da, euskara hutsean, eta 17:00etan hasiko da. Hala ere, sarrerak alde zurrerak erosi beharko dira Manuel Muñoz kiroldegian, hiru eurotan.

Skratz super heroiak kontatzen du nola denboraren poderioz super-heroi izatetik antiheroizatera pasatu den, eta suertatu zaion arazo bati konponbidea eman beharko dio. Hori egin ezean, kapa zintzilikatu beharko du betirako.



# 'Hiru (h)arri', 1961ari erreferentzia eginez

Beñat Arrietak, Gari Barandiaranek eta Goio Arrietak proiektu bat jarri dute martxan, 'Hiru (h)arri'. Estreinaldia izango dute gaur, Zaldibar antzokian, 19:00etan, eta kontzertuko kantu guztiak bertsoiak izango dira, askotariko estiloetakoak

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Uztailetik hona bitarteko geldiunearen ostean, bueltan izango dira Eskoriatzako Ostiral Musikuak. Hala, gaur, egubakoitza, 19:00etan, *Hiru (h)arri* taldearen emanaldia izango da Zaldibar antzokian, egitasmoaren berrartze pauso moduan. Sarrerak alde aurretik erosi behar dira, eta proposamen apartarekin igoko dira oholta gainera Arrieta-Barandiaran familiako hiru kide, onena eman eta espektakulua eskaintzeko prest.

## 1961eko efemerideak ardatz

Beñat Arrietak, Gari Barandiaranek eta Goio Arrietak osatzen dute taldea, eta proiektu berriaren estreinaldia izango da gaurkoa. Bertsoak izango dira eskainiko dituzten kantu guztiak, artista ezberdinenak, eta askotariko estiloetakoak. "Gatributu taldea izan zen gure lehen urratsa; Gatibu taldearen bertsoak



Hiru (h)arri taldea. ESKORIATZAKO UDALA

eskaintzen aritu ginen, eta proiektu hori alde batera utzi eta horri jarraipena emateko osatu dugu beste talde berri hau: *Hiru (h)arri*. Gari, nire lehenegusua, eta biok gitarra eta ba-  
xarekin arituko gara, instru-

mentuak aldatzen, edo bi gitarretara arituko gara beste hainbatetan, kantua arabera, eta nire osabak, Goiok, berriz, abestu egingo du. Publikoaren aurrean eskainiko dugun lehenengo emanaldia izango da, nahiz eta familiako zenbaiten aurrean egin dugun entsegu bat. Kontzertuaren gainean ez dugu askorik aurreratu nahi. Soilik esan dezaket 1961. urteari erreferentzia egingo dizkiotela joko ditugun kantu guztiek, modu batera edo bestera...", adierazi du Beñat Arrieta musikariak.

## Azaroan, Aretxabaletan

Kontzerturako sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian erosi behar dira, bost eurotan, alde aurretik, eta herritarrak animatu dituzte bertaratzen. Horrekin batera, aurreratu dutenez, ez da emanaldi bakarra izango gaurkoa; izan ere, azaroko lehenengo asteburuan Aretxabaletan emango dute kontzertua.



ANGEL AYASTUI

## Bi partidu jarraian irabazi dituzte

Bigarren mailako senior kategoriako Goiena Saski Hemen Garbiketako taldeak etxeko lehenengo partidua jokatu zuen joan den asteburuan Manuel Muñoz kiroldegian. 73-49 irabazi zion Luberrri Saski taldeari, eta, hala, bi garaipen jarraian batu ditu Ointxe! Arrasatek eta Eskoriatzak elkarlanean sortutako taldeak.

## Xanpu solido naturala egiteko tailerra izango da bihar

Ana Sanchez Corcuera gasteiztarrek emango duen tailer horretan, xanpu solidoa, naturala eta kimiko toxikorik gabeko egiteko teknika irakatsiko da. Ilea garbi mantentzeko lagungarriak diren osagaiak eta landareen propietateak zeintzuk diren ikasteko aukera izango dute bertaratzen direnek, eta ilea babesteko ukendu-errezeta naturalak egingo dira.

Saioa 10:00etatik 13:00etara bitartean egingo da, kultura etxean, eta izena eman nahi duenak 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu dezake. Interesdunek hamar euro ordaindu behar dituzte tailerrean parte hartzearen.

# LEINTZ GATZAGA

## Osagai guztiak izango dituen bertso saioa, gatzahaztu barik

Zapatuan, 17:00etan, sei bertsolari batuko dira Leintz Gatzagako pilotalekuan bertso-saioa eskaintzeko

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Maiatzean bertso-saio musikatua egin ostean, eta izandako harrera ikusita, bertso-jaialdia antolatzea erabaki dute Leintz Gatzagan. Maide Garmendia, Aitor Bizkarra, Jon Gurrutxaga, Urko Arregi, Garazi Navarro eta Aitor Tatiegi bertsolariak batuko dira zapatu honetan Gatzagako pilotalekuan bertso-saioa eskaintzeko. Gai-jartzaile lanetan Beñat Ormaetxea arituko da, eta, antolaketa lanetan ere bera arituta, bertso-jaialdi gaztea ikusteko aukera ederra izango dela adierazi du: "Gatzagan bertso-saioa egiteko aukera suertatu zen. Ez dira punta-puntako bertsolariak izango oholta gainera igoko direnak, oraindik gazteak dira, baina maila handikoak, txapelketetan muturra sartzen ari direnak eta gogo biziz daudenak. Hala, belaunaldi berriei plaza utzi eta aukera bat emateko asmoz antolatu dugu bertso-saioa".

## Ohiko formatua baino luzeagoa

Bi ordutik gertuago egongo da zapatuko saioa ordu eta erditik baino. Hala ere, saioa dinamikoa izango dela adierazi du Ormae-

txeak: "Ofizioka gai batzuk izango dira, tartean bertso-jokoren bat sartuko dugu, gai serioak ere izango dira, bakarkakoren bat ere sartuko dugu... Hala, bertsozaleak erakartzen saiatuko gara ezarritako gaiekin". Oñatiko bi bertsolari arituko dira oholta gainean, Aitor Tatiegi eta Urko Arregi, Azpeitiko Jon Gurrutxaga, Zaldibiako Maide Garmendia, Amorotoko Garazi Navarro eta Abadiñoako Aitor Bizkarra. Hala, bariatatea nagusi izango da oholta gainean. Kontuan hartu behar da abes-  
teko gogoz daudela bertsolariak; aurten ez dute saioak eskaintzeko aukerarik izan, eta hitzordu polita izango dugu".

## Doako saioa

Herrian antolatutako bertso-saioek harrera ona izaten dute, orokorrean, eta, oraingo hitzorduak ere halako harrera izango duela aurreikusten dute antolatzaileek. "Gatzagan bada-  
go bertsoekiko zaletasuna, eta, herri txikia bada ere, bertsozaleak gerturatzea nahiko genuke. Saioa doakoa izanda, gainera, uste dugu animatuko dela jendea, ez dira damutuko".



IMANOL SORIANO

## Gatz Eguna errotzen, arrakastaz

Ibilbide gidatuak, zurezko jolasak, tailerrak... Hitzordu ugari izan zituzten joan den domekan Gatzagako Gatz Egunean. Azoka ekologikoan 18 postutan banatuta, askotariko produktuak jarri zituzten, eta bertaratutako erantzun ona nabarmendu dute antolatzaileek. Ekoizleek ere goiza arrakastatsua izan zela esan zuten.



Aurtengo ZTB jardunaldiak aurkezteko agerraldia egin dute asteon, Laboratorium museoa. JOKIN BEREZIARTUA

## ZTB jardunaldiak abiatu dituzte, zazpigarrenez

Urriaren 19an Jose Miguel Mulet ikertzaile eta dibulgatzaile valentziarraren saioarekin hasi ziren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiak, eta azaroaren 21era arte iraungo du egitarauak; helburua, urtero moduan, zientzia gizarteratzea izango da

**Jokin Bereziartua** BERGARA  
Zazpigarren urtez jarraian, mar-txan dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak (ZTB). Urriaren 19an, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Bioteknologiako katedradun Jose Miguel Muletek hitzaldia egin zuen Seminarixoa, *Ekologismo erreala. Zientziaren*

*ikuspegitik, zer egin dezakezu planeta babesteko?* izenburupean. Saioa klima-aldaketan eta ingurumenaren zaintzan oinarritu zen; betiere, ikuspegi zientifikotik abiatuta. Ingurumenaren zaintzari eta gizakien elikadurari begira "aukera iraunkorrenetako bat" intsektuetatik etorriko litzateke, Muleten arabera,

eta intsektuak landatzeko apustua egingo luke. Hala ere, intsektuen bidezko elikadura gaur egun "arazo kulturala" denez, ingurumenen inpaktua murrizteko arrain, fruta eta barazki gehiago eta haragi gutxiago jatea proposatu zuen Muletek. Azaroaren 21era bitartean, askotariko hitzaldiak, ikastaroak,

lehiaketak eta bestelako ekintzak antolatatu dituzte: *ztbergara.eus* webgunean daude ekintza guztiak eta izena emateko argibideak.

### Elkarlanaren "balio erantsia"

Astelehenean aurkeztu zituzten jardunaldiak, Laboratorium museoa. Sustapenerako, Berrikuntzarako eta Ekintzailetasunerako zinegotzi Ainhoa Letek, jardunaldion helburua zientzia, teknologia eta berrikuntza "esparru guztietara" gizarteratzea dela gogora ekartzeaz gain, "elkarlanaren balio erantsia" azpimarratu zuen: "Hilabetez egingo diren jarduerak antolatzeko lantalde bat aritzen da hilabete luzez lanean, Udaleko eta Laboratoriumeko kideekin elkarlanean. Hamazazpi eragilek egin dituzte ekarpenak".

### Gizartea "zientziaraztea"

Laboratorium museoko arduradun Rosa Errazkinek, berriz, gizartea "zientziarazi" beharra dagoela dio: "Beharrezkoa da jende guztiari zientzia gerturatzeari; nolabait, *zientziaraztea*. Bereziki, nabarmen ikusi baita hutsune hori pandemia garaian [...]. Askotariko hartzailak izaten dituzte jardunaldi hauek, eta hori ere bada aberasten dituen ezaugarrietako bat. Jar-duera batzuk gaian adituak direnei zuzendutakoak badira ere, beste asko publiko orokorrari begirakoak dira. Bereziki iruditzen zaigu interesgarria

ikastetxeen bitartez gazteengan heltzea, erakargarri zaizkien formatuekin".

### Euskararen "auzolan digitala"

Garapen Saileko teknikari Marije Unamunok azpimarratu du euskararen gaia txertatu dutela: "*Euskara adimen artifizialaren garaian* izenburupean mahai-ingurua egingo dute Eusko Jaurlaritzako Miren Dobaranek, Diputazioko Joxean Amunarrizek eta Elhuyarko Josu Aztiriak. Euskarari lotuta, herritarrei auzolanerako deia egingo diegu: azaroaren 13an, *Euskarazko ahotzen grabaketa maratonia* egingo dugu; teknologiarekin euskaraz aritzeko auzolan digitala".

### 'Scape room'-a umeendako

Miguel Altunako Oihana Garmendiak, besteak beste, *scape room*-aren berri eman zuen: "Ikasleek hitzaldiak jasoko dituzte adituengandik, baina garrantzitsuagoa eta emankorragoa da haiengana hurbiltzeko bestelako ekitaldiak egitea. Izan ere, zientziako esperimenduak egingo ditugu eta *escape room* teknologikoa egingo dute LH-5eko eta LH-6ko ikasleek".

## AZAROAREN 13AN, 'EUSKARAZKO AHOTSEN GRABAKETA MARATONIA' EGINGO DUTE, HERRITARREKIN

### GORA ETA BEHERA



### Elikagaien bankuko boluntarioei aitortza

Herritar batek San Juan auzoan kokatuta dagoen elikagaien bankuan boluntarioek egiten duten lana txalotu nahi izan du, behar handiena dutenei begira egiten dutena goraiatuz.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



### Bularreko minbiziari aurre egin

Urriaren 19ko bularreko minbizi ikustarazteko egunaren bueltan, Katxalin elkarteok hainbat ekintza antolatu dituzte. Bihar, mahai informatiboak jarriko dituzte herriko lau puntutan eta diru bilketa ere egingo dute, gaitzaren ikerketan diharduen Biodonostia enpresara bideratzeko -2019an, 3.000 euro batu ziren-. Martxa solidarioa ere egingo dute Donostian, urriaren 31n.

### Etorkizuna Eraikiz kapsularen bisita izan zen eguaztenean

Gipuzkoa osoan bira egiten ari da Diputazioaren Etorkizun Eraikiz kapsula, gipuzkoarrek etorkizunaren inguruan dituzten ekarpenak jasotzeko. Eguaztenean, San Martin plazan egin zuen egun osoko geldialdia. Gipuzkoaren egungo ezaugarri eta balio nagusiak zeintzuk diren erakusteaz gain, Gobernantza diputatu Eider Mendozak azaldu du ze ariketa bikoitz eskatzen zaien herritarrei: "Batetik, 20 urte barru Gipuzkoa nolakoa izatea nahiko luketen; eta, bestetik, konpromiso bat hartzeko eskatzen diegu, ze ekarpen egiteko prest dauden. Denon artean amesten dugun Gipuzkoa eraikitzen saiatu behar dugu".

# "Oso kutsatzailea izango da Larramendiko planta"

**CARLOS ARRIBAS UGARTE** EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO ADITUA

Larramendiko plantaren proiektua geldiarazteko alegazioa jarri berri, Bergaran jaiotako ekologistak dio jarduera "osasungaitza eta kaltegarria" dela: "Makro-errautegi bat da"

**Jokin Bereziartua** BERGARA


Ia 25 urte darozta Alacanten bizi izaten Carlos Arribas Ugarte (Bergara, 1953). Zientzia Fisikoetan lizentziatua, kutsadura detektatzeko masterra egin zuen Valenziako unibertsitatean eta duela bost urtetik hondakinen arloko arduraduna da Ekologistak Martxan konfederazioan. Alegazioa aurkeztu du Larramendiko plantaren aurka eta dio, besteak beste, Greene enpresa Udala eta herritarrak engainatzen saiatu dela.

**Zein izan da Larramendiko plantari alegazioa jartzeko prozesua?**

Udalari eskatu diogu bertan behera utz dezala alkatearen 2021eko uztailaren 23ko dekretua, sustatzaileari hirigintza-bateragarritasunaren ziurtagiria ematen diona. Izan ere, Greene Waste to Energyren eskaera industriarako karga mineralen ekoizpen ekologikorako jardura baterako zen; baina ez da, azkenean, Larramendin gauzatu zena. Sustatzailea Udala eta herritarrak engainatzen saiatu da; izan ere, benetako jarduera papergintzako 155.060 tona hondakin errausketa bidez ezabatzea litzateke. Udalak dekretua bertan behera uztea eta hirigintza-bateraezintasunaren ziurtagiria onartzea nahi dugu, jarduera hori ez dagoelako Plan Orokorrean jasota eta ez delako bateragarria inguruan jendea bizi denean. Jarduera gogaikarria, osasungaitza, kaltegarria eta arriskutsua da.

**Zergatik da gogaikarria, osasungaitza, kaltegarria eta arriskutsua?**

60.000 metro kubiko gas kutsagarri eta substantzia arriskutsu –merkurioa, dioxinak, furanoak, konposatu organiko lurrunkorak...– direnean, halako jardura kutsatzaile bat ezin da etxebizitzetatik gertu kokatu. Zentzugabekeria da. 1961eko dekretu zaharrak jarduera horietarako etxetatik gutxienez 2.000



Carlos Arribas Ugarte, orain dela gutxi ateratako argazki batean. C.A.

metroko distantzia ezartzen zuen. Kutsadura 16 metroko altuerako tximiniatik zabalduko litzateke. Urtean 24 tonako kamioietan 155.060 tona lohi eramateak gutxienez 6.460 kamioi eta joan-etorriko 12.922 bidaiak emango luke emaitza modura; Orereta, Amezketeta, Villabona eta abarretatik Bergarara eta itzulera aintzat hartuta. Kamioi bakoitzaren edukiera 12 tonakoa bada, kamioiak 12.922 izango lirateke eta bidaiak, aldiz, 25.843.

**Datu kezagarriak dira, edo?**

Oso kezagarriak dira, oso jarduera kutsatzailea da, eta bergarrek ez dute merezi karga toxiko hori, bizitza baldintzatuko du eta. Industrialde hori hirigunetik oso gertu dago, osasun zentrotik 2,3 kilometro baino gutxiagora, eta Ubera, Basalgo eta San Juan auzoetatik askoz gertuago. Oztopo bat izango da beste jardura arrunt batzuk ezartzeko.

**"ALEGAZIO EREDU BAT ZABALTZEN ARI GARA, JENDEAK AZAROAREN 4A BAINO LEHEN AURKEZTU DEZAN"**

Bergara industria arriskutsuen mapan agertuko da, horrek dakarren guztiarekin.

**Greene enpresako zuzendariak GOIENARI esan zion ez litzatekeela usainik sortuko, isurketak izugarri murriztuko liratekeela... Zer diozu?**

Hezetasunez eta materia organikoz betetako lohi horiek usain ederra hartu behar dute... Izan ere, biltegiatzean sortuko litzatekeen metanoa biltzea planteatzen da. Hau da, jardura biologikoa duten lohiak dira, neurri baten ur zikinaren depuradoreetatik datozenak. Isurketa saihestea oso ondo dago, Zaldibarko hondamendia ikusita, non paper-lohi horiek isurtzea izan zen isurketa horren arrazoietako bat, baina ez gaitezen okerrera joan. Hondakin horiek zazpi paper-fabrikatan prozesatu beharko lirateke eta *in situ* behar bezala tratatu, birziklatu eta ekoizpen-prozesuan berriz sartzeko.

**"URRIA DA BENETAKO INFORMAZIOA; ALDE GARRANTZITSUENAK ISILPEAN GORDE NAHI IZAN DITUZTE"**

Aukera asko daude: lohiak konpostatzea eta lurzorua hobetzeko aprobetxatzea, betiere gai arriskutsuen kutsadurarik ez badago, eta eraikuntzarako paper-orez eta zementuz egindako adreiluak egitea. Baina, jakina, enpresek irtenbiderik merkeena bilatzen dute, eta hondakinak nola edo hala gaintetik kendu. Ekoizpen garbiaren paradigma ez da sartzen haien planteamenduetan eta helburuetan. Gainera, hondakinak errausteak berotegi-efektuko gas garrantzitsuak sortuko litzuzke, eta hori ez dakit konponbiderik onena ote den bizi dugun larrialdi klimatikoarekin. Bide batez, ingurumenaren gaineko azterlanek ez dute gas horien isurketa ebaluatzen, ez dira existitzen haientzat.

**Larramendiko industrialderako ere kaltegarria litzateke?**

Jarduerak aurrera egiten badu, industrialdearen kudeatzailea den Sprilur enpresa publikoa ahaztu egin beharko da gune hori orain ia hutsik dauden enpresa arrunt gehiagorekin beteaz, ihes egingo dutelako. Inork imajinatzen al du fruta-biltegi bat edo ogia zein pastelak egiteko fabrika bat makroerrautegi horren ondoan? Negatiboa litzateke marka zein langileentzat.

**Makroerrautegi bat da, beraz?**

155.060 tona hondakin tratatzeko jardura da, eta ez da Bergarako HAPON aurreikusitako industria-jardura bat ere. Ez dago jasota Jaurlaritzak 2019an onartutako lurralde antolamenduen gidalerroetan.

**Behar beste informazio eman da Larramendiko plantaren inguruan?**

Sustatzaileak ez du parte-hartze publikoko prozesurik hasi, eta proiektu horri buruzko benetako informazioa urria da. Jende gehienak ez du erabat ezagutzen.

Proiektuaren alderdi garrantzitsuak isilpean gorde dituzte, eta dokumentu horiek ezin dira eskuratu. Espainiak ingurumen-gaietan parte-hartze publikorako eskubideei buruz sinatutako Aarhuseko Hitzarmena ez da betetzen ari. Pentsatzen da ia inork irakurtzen ez duen egunkari ofizial batean iragarki bat argitaratuta nahikoa dela eta horrela bete egin dutela. Ez dugu parte hartze errealerako kulturarik. Beste herrialde anglosaxoi batzuetan, sustatzaileek jardunaldiak, topaketak eta entzunaldiak antolatu beharko zituzten, leku guztietako adituekin, proiektua zuzenean herritarrei azaltzeko eta jendearen galderak eta kontsultak jasotzeko.

**Badago beste aukerarik?**

Esan izan dugu: ekoizpen garbia, birziklapena, hondakinen sorrera minimizatzea, eko-diseinu industrialak. Prozesu industrialak zirkulartasunean pentsatuz diseinatu behar dira. Printzipio gisa, paperaren industrian sortutako hondakinak lantegietan bertan tratatu beharko lirateke, eta ahalik eta gutxien kanpora atera. Ez da sakrifizio-eremurik aukeratu behar jardura gogaikarri horiek hondakin horien sorreran inolako erantzukizunik izan ez duten herrietan ezartzeko, engainua bilatuz eta jendearen apatiatzat baliatuz.

**Ezer gaineratu nahi duzu?**

Alegazio-eredu bat zabaltzen ari gara, jendeak azaroaren 4a baino lehen sinatu eta udaletxean aurkez dezan. Espero dut egun hori baino lehen ehunka alegazio aurkeztea. Oraingo ez dugu Udalaren erantzun ofizialik jaso baina badakigu aztertzen ari direla; espero dugu helegitea onartuko dutela proiektua behin betiko geldiaraziko dela.

**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIK

Proiektuak · Koltxoia  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak  
Leihoak · Tarimak  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**I21**  
KALITEA

Enpresa legezko 1100/025

# Herbehereetan lehiatuko da Barrocal asteburuan

Europako Junior Pilota Txapelketa jokatuko da Franeker-en (Herbehereak), eta euskal selekzioarekin joan den pilotarietako bat da Maddi Barrocal gazte bergarra. "Esperientziaz gozatzea" eta, ahal den heinean, "gerra ematea" dira helburuak

## Jokin Bereziartua BERGARA

Abenduaren 20an beteko ditu 16 urte Maddi Barrocalek (Bergara, 2005), eta dagoeneko bigarren aldiz hartuko du parte Europako junior mailako pilota txapelketan. Atzo arratsaldean hartu zuen hegaldia, Loiu, eta domekara bitartean hainbat partidu jokatuko ditu: "Ahalik eta joko politena egin eta gozatu gozarazteko helburuarekin joango gara. Eta, bide batez, gerra eman eta irabazterik badugu, ezin hobeto! Ziur lagun asko ere egingo ditugula... Indartsu eta sasoiko nago Herbehereetan ahalik eta lanik onena egiteko".

Bi urtean behin jokatzen da txapelketa, eta aurten Italiak, Belgikak, Herbehereek, Inglaterra, Valentziak eta Euskal Herriak hartuko dute parte. Hiru modalitateetan lehiatuko dira: *llargues*, *wallball* eta *joko internazionale* izenekoak. Eta bigarrenez jantziko du elastiko ber-



Maddi Barrocal, Donostiako Trinitate txapelketan, abuztuaren 30ean. EDUARDO AGIRRE

dea Barrocalek: "Oso harro nago selekzioarekin joateaz; hautatua izan naizenetik asteen birritan entrenatzen gara, Oiartzunen eta Diman". Euskal pilota selekzioa zazpi mutilez, zazpi neskez –Barrocal tartean– eta bi hautatzai-

lez egongo da osatua. Atzera eginda, betidanik gozatu du izugarri pilotan: "Txikitatik asko gozatu dut pilotan jokatzen. Zoriontasuna eta poztasuna dira pilota niretzat; nire bizitza da, beti eramango dut pilota biho-

tzean. Hamar urte daroztat pilotan jokatzen, 6 urterekin hasi nintzen eta. Asko ikasi dut eta jende zoragarria izan dut ondoan. Asko daukat ikasteko, espero dut bide luzea izatea". Hain zuzen, pilotari esker bizitako esperientzia bereziena duela bi urte selekzioarekin Portugalera joatea izan zen: "Selekzioak 13 urterekin hautatu ninduen; ez dut sekula ahaztuko Portugalen bizitakoa. Esperientzia izugarria izan zen, eta garrantzitsua: talde moduan oso ondo funtzionatu genuen".

## Datozen erronkak

Herbehereetatik bueltan, Arrate Bergararekin jokatzen ari den Gipuzkoako binakako txapelketa, emakumeen Master Cup txapelketa eta Bergara Hiria izango dira hurrengo erronkak: "Oso gaztea naiz eta asko dut hobetzeko, baina profesionalerara jauzi egitea litzateke nire ilusio handiena. Bestalde, poztan naiz gero eta emakume gehiago ikusteaz frontoietan, horrela jarrai dezala. Emakume guztiak animatzen ditut probatzera".



Eguazteneko aurkezpena; goian, eskuinetik bigarrena, Barrocal. AITOR ERAUSKIN

## Aurkezpena selekzioarekin, asteen

Franeker (Herbehereak) hirian jokatuko da asteburuan zehar Europako Junior Pilota txapelketa. Barrocal *wallball* eta *joko internazionale* izeneko modalitateetan lehiatuko da: "Sasoiko nago, indartsu. Espero dut gerra emateko moduan egongo naizela".



IMANOL SORIANO

## 125 bat lagun erreka garbiketarako

Aurten ere hiru gunetan elkartu dira bergararrak erreka auzolanean garbitzeko: Labegarrietan – argazkian –, Seminarioan eta Osintxun. Erreka garai baten baino "nabarmen" garbiago egon arren, denetarik batu zuten: bizikleta bat, plastikoak, patinete

batzuk, komun bat... Guztira, 125 bat lagun elkartu ziren: "Gure seme-alabak ohitu dira erreka garbiketarako parte hartzea, eta orain, erreka beste modu batean ikusten dute; errekek bizitza handia berreskuratu du. Zaborrik ez bota eta zaintzea tokatzen zaigu".

## OHARRAK

### Pentsiodunen ordezkariak Legebiltzarrean

Bergarako erretiratuek bat egin zuten atzo Gasteizen egindako elkarretaratzearekin. Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eta kalitatezko zerbitzu publikoak eskatu zituzten, beste behin.

### Txaparen denboraldi berriaren aurkezpena

Domekan izango da, kartzela zaharrean (13:00): zuzeneko irratsaioa, gonbidatuak, musika eta bermut dastatzea.

### Odol emaileen elkarteak: hurrengo zita

Hilaren 27an eman daiteke odola. Zita eskatzeko: 747 42 99 20.

### Sareren manifestaziorako autobusak

Urriaren 23an Donostiako Antiguako tuneletik (17:00) irtengo den manifestaziorako autobusean izena eman daiteke Arrano eta Pol-Pol tabernetan. Autobusa 15:45ean irtengo da Ibargaraiko geltokitik.

### Pilota: hiru jaialdi datozen egunetan

Gaur, herriko pilotariak protagonista (19:15), eta domekan, Diario Vasco txapelketako partiduak hartuko ditu frontoiak (11:30). Bergara Hiria txapelketa azaroaren 9an hasiko da.



Eguaztenean Arimen kandela jolasean esku hartu zuen taldeetako bat. IRATI ALBERDI

# Gau Beltzari misterioz ekiteko, 'Arimen kandela'

Gau Beltzaren egitarauaren barruan eguaztenean egin zuten 'Arimen kandela' izeneko jolasean esku hartzeko bi txandak bete egin ziren. Gaztetxoek jaiaren jatorria landu zuten jolas misterioz baten bitartez. Aste osorako egitaraua prestatu dute

**Xabier Urzelai** BERGARA

Arrakastaz hasi dute Gau Beltza. Eguaztenean Oxirondo azokako lehen solairua baliatu zuten, bi txandatan –biak bete ziren– *Arimen kandela* jolas misterioz egiteko: "Pena da batzuk kanpoan geratu zirelako, bi txandak bete egin ziren –15 gazte izan ziren txanda bakoitzean–, baina horrek erakusten du gazteek interesa

erakutsi duela", adierazi du AIDAUko –haurren zerbitzua– ordezkari Irati Alberdik.

"Neska-mutikoei lehenengo ohitura zaharretan oinarritutako istorio bat kontatu genien, eta ondoren, etxe sorgindu batean sartu ziren gazteak. Horretarako, Oxirondoko lehenengo solairua girotu egin genuen, argiztapenarekin jolastu, ilundu...

Gaztetxoek gozatu egin zuten, bai".

Hala, lehenengoa eginda, AIDAUkoak dagoeneko badabilta hurrengo hitzorduan pentsatzen: "Sukaldaritza tailerra egingo dugu datorren asteazkenean, eta hori bai izango da gurasoekin batera etortzekoa. Sasoiko, udazkeneko, produktuak kozinatuko ditugu elkarrekin".

## Jaia zabaltzeko asmoaz

Bergaran ospatzen den lehenengo Gau Beltza denez, Jardunetik adierazi dute aurtengoak helburu xumea daukela. "Batetik, ekimen positiboa da zenbait eragileren artean antolatutako ekimena izan delako eta espero dugu datozen urteotan eragile gehiago batzea. Hau hasiera da, nahiko genuke datozen urteotan jende eta talde gehiago batzea", adierazi du Jarduneko ordezkari Maitane Arizabaletak. "Eta bestetik, honekin guztiarekin nahi duguna da Gau Beltza gure erara antolatzea, jai hau berreskuratu, berrasmatu eta gure egitea. Ibili gara galdezka ea Bergaran sasoi batean halakorik ospatzen zuten, eta ez dugu baiezko erantzunik jaso. Horregatik, jai berrasmatu eta gure egitea da asmoa".

Alberdik gaineratu du Euskal Herriko herrietan jai honen bueltan badaudela ohitura komunak: "Garai batean gazteek kalabazak lapurtzen zituzten baserri eta ortuetatik, hustu, eta kandelak jartzen zituzten barruan, ondoren bide bazterretan jarri eta gauetan herritarrak beldurtzeko".

## "GAU BELTZA BERRASMATU ETA JAI HAU GURE EGITEA DA HELBURUA"

MAITANE ARIZABALETA, JARDUN

## "GUSTURA IBILI ZIREN GAZTEAK AURRETIK GIROTUTAKO ETXE MISTERIOTSUAN"

IRATI ALBERDI, AIDAU

## Gau Beltza: egitarau osoa

### Urriak 27, eguaztena

#### • Sukaldaritza familian.

Adin guztietarako –haurrak, heldu batekin–. Udazkeneko barazki eta fruituak erabiliz hainbat errezeta prestatuko dituzte.

AIDAU haurren zerbitzuan. Txanda bakarra egongo da: 17:30etik 19:30era.

### Urriak 22 eta 29 (egubakoitza) eta 23 eta 30 (zapatua)

• Gau Beltzean girotutako tailerrak, umendako: kuiak hustekoa, makillaje eta mozzorro tailerra... San Martin plazako arkupeetan.

### Urriak 30, zapatua

• 18:30 *Kalabera* abestia Musika Eskolarekin eta ondoren txokolata San Joxepe elkartekoen eskutik San Martin plazan.

• 19:30 Gau Beltzeko kalejira eta Deabru Beltzak taldearen *Su danborrak*.

### Urriak 31, domeka

Bautista Legenardunaren bisita gidatua –oharra: bi emanaldietarako sarrerak dagoeneko agortuta daude–.

• 21:30 Euskaraz.

• 23:00 Gaztelaniaz.

## Ekiñeren eta Pettiren emanaldia, zapatuan, Seminarixoa

'Besterik ez' izeneko lana aurkeztuko du Arrasateko musikariak eta 'Manipulazio estrategiak' Berakoak

**X.U.** BERGARA

Lan bana aurkeztuko dute bihar, zapatua, Ekiñe Casado musikari arrasatearrak eta Juan Luis Perez Petti Berako musikariak, 19:00etan –sarrerak: *seminarixoa.eus*–. Ekiñe triki-

tilari gisa hasi zen musika munduan, ondoren hartu zituen gitarra eta bestelako instrumentuak bertsioko egiteko, eta bihar, bere lehen lana aurkeztuko du Bergaran, *Besterik ez* izena duen diskoa.

Pettik, berriz, pentsamendua, poesia eta doinua batu ditu azken proiektuan. Komunikabideek gizartea manipulatzeko erabiltzen dituzten estrategiak identifikatu zituen Noam Chomskyk; hala, gogoeta horiek bere egin, eta hitz eta musika bihurtu dituzte Harkaitz Cano idazleak eta Pettik. Atala eta Bonberenea estudioetan grabatu ditu kantak, lagun musikariaren konplizitatearekin. Hain zuzen, lan horregatik 2021eko Musika Saria jaso zuen maiatzean.

## Intsumisioaren gaineko azken zita kartzela zaharrea

Biharko, zapatua, *Intsumisioa Bergaran* ekimenaren barruan zenbait hitzordu antolatu dituzte kartzela zaharrea: 12:30ean, desobedientziaren gaineko mahai-ingurua egingo dute –hainbat kolektibok hartuko dute esku–; 17:00etan, dokumentala erakutsiko dute; eta 19:00etan, DJ Elvis Cainok girotuko du kartzela zaharra.

## Faxistek hildako bost osintxuarrak etzi omenduko dituzte

Duela 85 urte, faxistek Osintxun sartu eta bost auzotar hil zituzten: Tomas eta Ildefonso Iñarra anaiak, Ricardo Zangitu, Rufino Akizu eta Jose Garaikoetxea. Eguaztenean bete zen urteurrena. Hala, domekan, euren omenez jarritako **monolitorainoko martxa egingo dute, 12:15ean, eta ostean, omenaldi ekitaldia izango da, 12:45ean.**



Torresoroa eta hilerria banatzen duen errepide zatia. M.A.

## Egurrezko arrapala, errepidea saihesteko

Hainbat aukera aztertu ostean, Udalaren asmoa da Torresoroa atzealdetik abiatuko den egurrezko arrapala egitea. Arrapalak modu irisgarrian hilerriko bidea eta Sagasti auzoa lotuko ditu; eta, era berean, errepidea zeharkatzea saihestuko du

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Torresoroa eraikinaren atzealdetik hasi eta Sagastitik hilerri- ra doan egurrezko arrapala egitearen alde egin du Antzuolako Udalak. Seguritasuna izan dutela lehenetsun aitortu du Beñardo Kortabarria alkateak, eta, ondorioz, Gipuzkoako Diputazioak baimendutako sema-

foroa jartzearen aukera baztertu egin dutela adierazi du: "Bi aukera geneuzkan mahai gainean, eta, semaforoarena txarra ez bazen ere, ez genuen oso segurua ikusten. Neska-mutiko ugari igarotzen da bizikletaz bertatik Eztalara joateko, eta batek daki semaforoaren botoiari emango lioketen. Arrapala

egitearen aukera seguruagoa dela uste dugu".

**Egurrezko arrapala**

Obrak berak ez du askorik iraungo, baina lanak adjudikatzeko deialdia egin behar da. "Konkursora atera eta aurrekontuak aztertu behar dira. Egurrezko egitura bat da, eta obra ez da



## Plakak jartzeko lanak, amaitzear

Eskolako eraikinean plakak jartzeko lanak amaitu dituzte, eta pilotalekuko lanak ere amaitzear daude. "Behin lanak amaituta, martxan jarriko da autokontsumo sistema, eta ea herriko argiteriaren faktura jaisten den", dio alkateak.

oso sakona izango. Egurrezko pasabide bat jarriko da Torresoroa inguruan hasi eta zelaia zeharkatuz –ahal den dena libratuz– zubiraino iritsiko da eta hilerriko bideraino helduko da", argitu du.

**Irisgarria**

Beñardo Kortabarriak aitortu du hilerri bideko eskailera ez direla oso erosoak eta ez da goela irisgarria Eztalarako eta hilerriko bidea. "Dezenteko aldapa eta altuera handiko mailak dituen eskailera du bideak.

Uste dut beharrezko lan bat Dela gune horretara modu erosoan heltzeko. Gainera, epe laburrean puntrak eta tirolina gunea izango dira bertan, eta herritarren mugimendua handiagoa izango da", nabarmendu du Antzuolako alkateak.

**"ERREPIDEA GURUTZATZEA BAINO SEGURUAGOA DA OINEZKOENTZAKO PASABIDEA"**



NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI

## Agur, Xinkona

Nik beti pentsau izen dot bizitza hau etapa ezberdinak bizitzian datzala. Etapa bakoitzak dakarrena ikasten dugunian, etapa hori bukatu eta beste berri bat hasten da. Modu horretan goiaz aurrerantz eboluzionatzen, momentu bakoitzak dakarrena ikasiz eta biziaz. Nik ointxe etapa oso aberasgarri bat bukatzen dot: Xinkona etapa. Beti esan dot Xinkona, neretzat, denda arrunt bat baino dexente gehixau izan dala, bertan bizi eta ikasi dotena izugarria eta zoragarria izan da,

sekula ez dotena ahaztuko bene-benetan. Baina bada denboralditxo bat barrubarrutik sentidu dotela Xinkonak beria emun dabela, eta baita nik be berakin batera. Beraz, bihotz-bihotzetik Xinkonai agur esateko ordua allau jat, pena eta esker on galantakin.

Hezkuntza aldetik jarraitzeko bidia hasten jatela sentitzen dot; hortarako, *Xinko-k* –beste izen eta identitate batekin– bere atiak zabalik eukiko dittu, nahi daben guztientzat, eta nik esandako etapa berri

hau bertan hasi deitzen. Baina ez da *txutxez* betetako dendia izango, baizik eta ideia berri, sormen, intuiziño, ilusiño eta material berrixez betetako toki berri bat. Baten bat animatzen bada ixten dan Xinkonako *txutxe* eta abarrekin beste toki polit baten jarraitzen, nik animatuko nuke, eta hasieria emuten laguntzeko prest be egongo nintzake, nahi izanez gero. Mila esker 11 urtian Xinkonatik pasau zaten guztioi, benetako plazera izen da!

## Norbanakoaren barne-ongizatea lantzeko saioak gertu daude

Azaroan hasiko dira Nigan ikastaroak eta Torresoroan emango dira, Jesus Mari Mataren gidaritzapean

**M. A. ANTZUOLA**

Jesus Mari Mataren gidaritzapean, bueltan dira aurtengo ikasturteko Nigan saioak. Pandemia garai honetan barrura begiratzea, eta norbanakoaren barne-ongizatea lantzea, inoiz baino garrantzitsuagoak bilakatu dira. "13 urte daramatzagu ekintza honekin, aitzindariak gara eta frogatutako esperientzia dugu. Metodologia sinplea izan arren, oso praktikoa da. Aurtengoan *esker onez bizi* deritzon praktika landuko dugu eta modu presentzialaz gain, online egi-

teko aukera ere izango da", adierazi du Jesus Mari Matak.

Iaz ez bezala, aurten umeekin izango dira saioak –2010ean eta 2009an jaiotakoekin–. Eta nola ez hastapeneko saioa ere eskainiko du. "Gurasoek umearekin etxean praktikatzeko jarduera ona dela ikusten ari gara", aitortu du Matak. Saioak Torresoroan eskainiko dira eta ohi moduan doakoak dira –online izan ezik–. Informazio gehiagorako 669 13 29 00 telefonora deitu daiteke edo *nigan@yahoo.com* helbidera mezua idatzi.



Mikel Lizarralde Antzuolako plazan, martxoaren 12an. @MACMIKEL

# Kirolari eta bizipozari eutsita, oztopoak oztopo

Euskal Herrian 3.000 lagun inguruk dauka esklerosi anizkoitza. Gaitza ezagutzen eta kirolaren bitartez ikerketarako dirua batzen laguntzen dihardu Mikel Lizarralde eibartarrak. Torresoroa aretoan izan da bere bizipena kontatzen

## Maidar Arregi ANTZUOLA

2018an diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza Mikel Lizarralde eibartarrari. Orduetik, gaitzari ikusgaitasuna ematea du helburu, eta saiatzen da zabalkunde lana egiten *bizi.eus* atari digitalaren, *@macmikel* Twitter kontuaren edo bere izena daraman Instagrameko kontuaren bitartez. Diagnostikoaren osteko lehenengo zaplaztekoari buelta eman eta kirola hartu du helduleku. *Hemen eta orain bizi* du lelo nagusi eta Puntaik Punta jaialdiaren barruan, *Esklerosi anizkoitza, kirola eta bizipoza* izenburupean hitzaldia egin berri du Torresoroa aretoan.

Gaitzari ikusgaitasuna ematea du Lizarralde xede. "Diagnosia jaso nuenean, kolpe handia izan zen, nagusiki ez nuelako ezagutzen zer zen. Horregatik, egiten dudana zabalkunde lan honen bitartez, saiatzen naiz jendeari beldurrik izan ez dezan azaltzen. Gauza bat da gaitzaren inguruan Interneten irakurtzen duguna,

eta beste bat da egunerokotasuna. Zorionez, urteak aurrera doaz eta hobeto gaude", aitortu du Lizarralde.

Izan ere, ezagutzen ez den horrek ematen duela beldurra nabarmendu du: "Egin behar ez nuena egin nuen, eta aulki gurpildunak soilik ikusten nituen sarean. Orain dela bi hilabete, maratoni bat amaitu nuen, nire debora xumea eginda; eta une honetan ez naiz gai 200 metro oinez egiteko. Aulki gurpildunean amaituko dut? Ziurgabetasuna da gaitz horren berezitasuna".

## Mila aurpegidun gaitza

Esklerosi anizkoitzaren bilakera askotarikoa eta ezberdina dela dio. "Mila aurpegidun gai-

**"DIAGNOSTIKOA ZAPLAZTEKOA IZAN ZEN; KIROLARI ESKER BIZIRIK SENTITZEN NAIZ ORAIN"**

tza dela esaten dute, eta ezin da jakin zein bilakaera izango duen. Gaitz honek erasoka egiten du aurrera, eta eroririk ez bada agertzen, berdin-berdin egon zaitezke. Ez da nahastu behar, ordea, ELAekin; gaitz bortitza goa eta *gaitztoagoa* da ELA".

## Ikerketarako diru batzea

Betidanik egin du kirola Lizarralde, eta kirola hartu du ardatz erronken bidez gaixotasuna ezagutzera emateko eta ikerketarako dirua batzeko. "Bizikletan Gipuzkoako herriak igaro ditut, Zegama-Aizkorri lasterketa egin nuen sekulako babesarekin... Diagnostiko bat ez da muga. Kirolari esker bizirik sentitzen naiz. Nire muga non dagoen ikusten saiatu naiz, eta horrek norbaiti balio badio, ni gustura. Adibidez, saguetan lortu dute gaitza sendatzea. Gainera, COVID-19ak ekarri du ARNm teknologiarekin lan egitea, eta horri esker lortu dute aurrerapausoa".



Katxalinek ordezkariak Antzuolako alkatearekin. ANTZUOLAKO UDALA

## Elkartasuna bularreko minbiziaren aurkako borrokan

Hilaren 31n, Donostiako Alderdi Edertik abiatuko da Katxalinen elkartasun martxa; izen-ematea zabalik dago

## M.A. ANTZUOLA

Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatu berri da urriaren 19an, eta, horren harira, Katxalin elkarteak udaletxeko balkoian lazo arrosa daraman kartela zintzilikatu dute. Datozen egunetako ekintzen eta mobilizazioen berri ere eman dute.

Hala, urriaren 24ra bitartean erakuslehoak, balkoiak eta terrazak arrosez apaintzeko dei egin du Katxalin elkarteak, "bularreko minbiziaren ikusgarritasuna helburuarekin". Era berean, argazkiak sare sozialen bidez

zabaltzeko dei ere egin dute, #VistedeRosa21 traola erabilia. Bihar, Bergarako lau puntutan jarriko dituzte mahai informatiboak, eta diru bilketa ere egingo dute, gaixotasunaren ikerketan diharduen Biodonostia enpresara bideratzeko. "Iaz ezin izan genuen ezer egin, baina duela bi urte 30.000 euro bideratu genituen ikerketara", diote.

Bestalde, Katxalin elkartearen martxa solidarioa egingo dute, zazpigarrenez, urriaren 31n, Donostian. 11:00etan abiatuko da, Alderdi Edertik. Martxara joateko izen-ematea zabalik dago.

## Gazte txokoak hezitzailea behar du ikasturte berrirako

Hastear den ikasturterako, Idolaz aisialdi elkarteak jakinarazi du gazte txokoak hezitzailea behar duela. Hala, interesa dutenek mezua bidali dezakete informazio eske *idolazantzuola@gmail.com* helbidera. Gazte txokoak honako ordutegi hau du: zapatuetan 17:00etatik 21:00etara bitartean eta domeketan 17:00etatik 20:00etara.

Bestalde, Idolaz aisialdi elkarteak 6 eta 12 urte arteko gaztetxoendako irteera antolatuko du. Hala, azaroaren 21ean, egun osorako Basabere baserri eskolara joango dira. Joateko interesa dutenek liburutegian eman dezakete izena, azaroaren 7ra arte.

## OHARRAK

### Bidegiren informazioa

Azaroaren 4an, 22an eta abenduaren 13an, Bidegiko bezeroen arreta zerbitzuko langileek informazioa emango dute 09:30etik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara, udaletxean.

### Futbola

AKERen lehen taldeak Idiazabalen aurka jokatuko du partidua bihar, zapatua, Eztalan, 16:00etan.

### Osoko bilkura

Urriaren 26an, martitzena, urriko ohiko osoko bilkura egingo da, 19:00etan. 2022ko zerga ordenantzak erango ditu Udal Gobernuak, onar daitezten.

# Natura inguruneei balioa emateko egunak

Inguruko zuhaitzak ezagutzeko bisita gidatua egingo du Dani Gillegik zapatuan. Domekan, berriz, gazta-pintxoak eskainiko dituzte tabernariak, eta 18:00etan, 'Bideak' ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute Aritz Ganboak eta Mikel Unanuak, antzokian

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Aritz Ganboak 2019ko urrian egindako erronka ikus-entzunezko batean jaso zuen Xabier Unanuak zuzendutako lantaldeak, eta horrela jaio zen *Bideak* dokumentala. Ikus-entzunezkoa Elgetan izango da ikusgai domekan, eta bertan izango dira Aritz Ganboa zein Xabier Unanua zuzendaria.

Sakanako Arruazu herritik Erronkariko Izaba herrira egun bakar batean -27 ordu- egindako 170 kilometroko kirol erronka jasotzen du dokumentalak. Ganboa da hari-eroalea, baina bere ibilbidean makina bat natura-gune, herri, landa zein hiri bizimodu ageri da. Bertako ekoizleak eta produktuak ere bai. Hain zuzen ere, abiatuurretik Arruazuko bere gaztandegian egindako 1,205 kiloko gazta sartzen du Ganboak motxilan. Idiazabal jatorri izenekoa da gazta hori, eta Izabara iritsitakoan Erronkari jatorri izena duen beste gazta baten truke aldatuko du.

Ikus-entzunezkoak, besteak beste, nekazaritzari eta abeltzaintzari ematen die balioa. Baita ere landa eremua kudeatuz sortzen diren produktuei eta horiek ekoiztuz sortzen diren inguruneei. Hain zuzen



Larequi, Ganboa eta Unanue. 'BIDEAK' DOKUMENTALA

ere, ibilbidean zehar babestutako natur parkeak zeharkatzen ditu Ganboak, eta artzaintza eta kirola abiapuntu hartuta ondarearen bilketa eta grabatze lana ekarri du *Bideak* dokumentalak.

*Bideak* Elgetako Espaloia kafe antzokian ikusteko aukera izango da domekan, 18:00etan. Emaldia amaitutakoan, gainera, ikus-entzuleekin solasaldia egiteko prest izango dira Ganboa eta Unanua. Sarrera doan da eta ez da beharrezkoa aurrez izena ematea.

## Gazta-pintxoak tabernetan

Ez da pintxo lehiaketa izango, baina egoki ikusten duten tabernariak gazta-pintxoak jarriko dituzte salgai domeka eguerdiko eskaintzan. Norberak erabakiko du ze gazta eta nola gertatu. "Iluntzean ikus-entzunezkoa egongo denez, keinu bat egitea proposatu diegu herriko ostalariei", azaldu du Kultura zinegotzi Ane Bilbaok. "Eguna borobiltzeko modua izango da. Bakoitzak erabakiko du zer-nolako pintxoak eta nola aurkeztuko dituen".



Dani Gillegi, Elgetan. L.Z.L.

## Zuhaitzak ezagutzeko irteera

Elgeta inguruko zuhaitzak ezagutzeko irteera gidatuko du Dani Gillegi elgetarrak zapatu goizean. Basogintzako ingeniari teknikoa da eta pare bat orduko ibilbidea prestatu du. Azaldu du batez ere bertako landaredian jarriko duela arreta. "Ez dira zuhaitz masa handiak, han eta hemen solte dauden zuhaitzak baizik, eta gutxi proportzioan. Egutero ikusten ditugun zuhaitzak dira, baina gaur egun jendeak bereizten ez dituenak". Pagoa, lizarra, haritza, sahasa, lertxuna, gaztainondoa, platanondoa eta astigar zuria nabarmendu ditu. "Azalduko dugu nola bereizi. Modurik errazena hostoa identifikatzea da", esan du.

Elgetan dauden zuhaitz exotikoei buruz ere emango ditu azalpenak. "Baso ustiaketarako landatu diren koniferak dira gehienak; intsignis edo radiata pinua, alertze pinua, douglas izeia... Azkonabietarako bidean dagoen sagardotegi paretik gora egingo dugu. Lepasolara igoko gara eta handik Goikomendira. Bazkarrira gainetik aterako gara bueltan beherantz".

## Bertako zuhaitzi bakan batzuk

Bertako zuhaitziei dagokienez, Elgetan irla bakan batzuk besterik ez dela gelditzen azpimarratu du Gillegik. "Asentzio azpian dagoen Eguluz-Zabale eremuan pago, haritz eta gaztainondo kopuru polita dago. Udazken koloreak ikusten diren eremu hori da. Intxorta azpian, berriz, bada pagaditxo bat, eta Eibarko bidean ere badaude pagadi batzuk. Hariztiak oso gutxi ditugu. Haritza behealdekoa da gehiago, eta pagoa goialdekoa. Elgetan nahastu egiten dira. Hemendik gora pagoa litzateke".

Zapatuko bisita gidatua 10:00etan abiatuko da, Herriko Plazatik. Udalak antolatutako irteera da. Adin txikikoek helduren batek lagunduta egin beharko dute, eta gomendatu dute 6 urtetik gorakoak izatea. Izena emateko, idatzi [danonartian@elgeta.eus](mailto:danonartian@elgeta.eus) helbidera edo deitu 943 76 80 22 zenbakira.

## Jolas eremu berriak, zabalik

Eguaztena ezkerre daude erabilgarri Bolatokiko jolas-parkean ipinitako jolas estruktura berriak: haur txikiendako estruktura eta saski kulunkaria. Kantxaren beste aldean zegoen skate parkea kendu egin dute, egurrezko egitura denborarekin handitu eta mugitu egiten delako, eta arriskua eragin. Haren ordez bestelako skate egiturak jartzeko asmoa du Udalak.



L.Z.L.

## Euskaraz egiteko bidelaguna zain liburutegian

*Elgetan berbetan* mintzalagun egitasmoak bultzatuta beste dinamika bat izango da martxan, gutxienez, urrian eta azaroan. Jasotako erantzunaren arabera izango du jarraipena edo ez ikasurtean zehar. Dinamikak *Mintzalaguna zure zain* du izena eta eguaztenean, hilaren 27an, izango da lehenengo hitzordua. Euskarazko mintzapraktika egin

nahi dutenendako bidelagun bat izango da liburutegian, 18:30etik 19:30era, ordubeteko mintzapraktika egiteko gertu. Berdin dio euskara maila zein den. Interesatuak esandako egunean eta orduan liburutegira gerturatu besterik ez dute.

Hendaikat datorren dinamika da eta han arrakasta polita izan du. Elgetako bigarren saioa arazoaren 24an izango da. Ondoren egingo da balorazioa eta erabakiko da jarraipena izango duen ala ez.



# Ozkarbin hasi dira ekitaldiak antolatzen

Itziar Olabe, Carmen Ojanguren, Mariasun Agirre eta Eli Arantzabal omendu zituzten zapatuan, ia 40 urtez odol-ateratzeen ardura hartu izanagatik. Asteburu honetarako, Unai Cantabranaren kontzertua antolatu dute 12-18 urte arteko herriko gazteendako

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

40 bat urte dira Elgetan odol-ateratzeak egiten direla. Hasiera haietan, Ozkarbi elkarteko zuzendaritzan zeuden hainbat lagunek hartu zuten Gipuzkoako odol-emaielen elkartearekin zubi lanak egiteko ardura. Ia lau hamarkada pasa dira, eta erreleboa eskatu dutenean azaleratu da hainbeste denboran ia oharkabeen pasa den lana.

Aurreko zapatuan jaso zuten Ozkarbi elkartearen aitortza Mariasun Agirrek, Carmen Ojanguren, Itziar Olabe eta Eli Arantzabalek. Esker oneko hitzak entzun zituzten. Txaloak ere jaso zituzten.

Elkarteko presidente Ana Gillegik hartu zuen hitza. "Guztiz oharkabeen pasa den ardura izan da. Elkarteko batzarretan aipatu izan dira pilota saila, dantza saila... Baina honako hau ez, eta gaur egun zuzendaritzan gaudenok ez genekien elkartetik kudeatzen zenik ere. Ez genuke nahi horrelakorik berriz gertatzerik. Erreleboa hartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta baita ere batzarrean gaia urtero tratatzeko konpromisoa". Gillegik ez zuen kasualitatetzat jo lau emakume egindako lana igaro izana oharkabeen, eta bala emateko garrantziaz jardun



Itziar Olabe, Carmen Ojanguren, Mariasun Agirre eta Eli Arantzabal. L.Z.L.

## OZKARBI ELKARTEAK LAU EMAKUME OMENDU DITU, URTEETAN EGINDAKO LANARENGATIK

zuen. "Lortu zutena da, nire ustez, udaletxera gerturatzen ginenok ondo sentiaraztea, baita lehen aldiz joaten ginenean eta zer egin eta nora joan ez genekienean ere. Bestetik, edozein arazo sortzen zenean, han

zeuden laurak esku bat emateko, bateren bat mareatzen bazen hura artatzeko, merienda emateko edo tokatzen zen guztia egiteko". Elgetako beste emakume batek, Kontxi Idigorasek, egindako margolanak jaso zituzten oroigarri modura Mariasun Agirrek eta Carmen Ojanguren. Olabe eta Arantzabalek, orkidea bana.

Pozik jaso zuten aitortza lau emakumeek. Elgetako odol-emaileei eskatu zieten orain arte moduan odola ematen jarraitzeko; izan ere, garrantzitsua da.

## Nerabezaroari buruzko formakuntza martitzenean

Adin horretan gara daitezkeen mendekotasun-portaerak prebenitzeko gakoak emango ditu aditu batek

**L.Z.L.** ELGETA

Harremanak elkarteko Miren Ayertza da aditua, eta, Udalak eta Bideberri Mankomunitateak eskolarekin elkarlanean antolatutako tailerra bada ere, herritar guztiei dago zabalik. "Nerabeei bidean nola lagundu azalduko dugu. Adin horretan talde bateko kide izatea oso garrantzitsua da. Nerabeak bilaketa prozesu etengabeen daude; izan ere, nor bere lekua bilatu behar du taldean". Ayertzaren esanetan, prebentzio lana egitea ez da adikzioak sor ditzaketen substantziak edo teknologia debekatzea, baizik eta horiekiko jarrera egokiak lantzea. "Helburua da erabilera egokiak eta osasuntsuak potentziatzea". Halakoetan autoestimua eragin handia duela azpimarratzen du. "Autoestimu osasuntsuak eraike behar dira adikzio horien

aurrean erabaki zuzenak hartzeko". Hala, formakuntzan azalduko du taldeetan ze rol dauden, autokontzeptuaren garrantzia zein den eta jokabide arriskuak nola identifikatu.

Tailerra martitzenean izango da, 17:30ean, eta zabalik da izen-ematea, eskolan zein udaletxean. LH-6ko ikasleekin ere elkartuko da Ayertza. Bina orduko bi saio egingo ditu, datorren asteko eskola orduetan.

### Hamaiketako osasungarria

Guraso elkarteak, bestetik, *Hamaiketako osasungarria* programa aurkezteko informazio bilerara batera deitu ditu eskolako familiak. Astelehenean egingo dute, 19:00etan, Espaloian. Egitasmoaren inguruko azalpenak emango dituzte, eta, hala bada, gogio, lehen erabakiak hartuko dituzte.

## Errigora saskiak eskatzeko aukera dago Elgetan ere


Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko kanpaina heldu da Elgetara ere. Horrenbestez, euskara ofiziala ez den zonan ekoiztutako produktuekin osatutako saskiak eskatu daitezke liburutegian, Haizea tabernan eta Lola jatetxean. Azaroaren 11ra arte dago horretarako. Produktu kopuruaren arabera, hiru saski mota daude: beltza -55

euro-, berdea -65 euro- eta zuria -75 euro-. "Gure txikitasetatik herrilan handi bat gauzatu nahi dugu, Nafarroa Euskal Herria behar duelako eta Euskal Herriak Nafarroa behar duelako", azaldu dute Errigora kanpainako ordezkariak.

Eskaerak online egin daitezke, *errigora.eus* atari digitalaren bitartez. Herrian ipinitako hiru puntuetako batean eskuz jasotako eskaerak, berriz, Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak bideratuko ditu.

## Herriko gazteentzako emanaldia

12 eta 18 urte arteko gazteak gonbidatu dituzte, oraingoan, Ozkarbi elkartera. Unai Cantabranaren emanaldia egingo du zapatuan, 19:30ean. "Gazteak elkartera gerturatzea da asmoa, eta, denborarekin, ezagutu nahiko genuke ze premia edo behar ikusten dituzten", azaldu du Ana Gillegi presidentek. Ez da bazkide izan beharrik parte hartzeko.



Unai Cantabrana uda hasieran, Asentzian. IBAI ZABALA

## OHARRAK

### Ipuinen ordua gaur liburutegian

Bi saio daude iragarrita: 16:55ean, LH-3, LH-4 eta LH-5 geletako umeendako; eta 17:35ean, HH-5, LH-1 eta LH-2koendako.

### Baserriko plastiko bilketa martitzenean

Baserri inguruetan sortutako plastiko bilketa zerbitzua emango du Mankomunitateak. Aurrez eskatu behar da, 943 76 25 47 telefonora deituta. Plastikoak arratsaldean atera behar dira.

### Liburutegiko marrazki lehiaketa

Lanak entregatzeko azken egun hilaren 31 da, eta gaia da *Irakurtzeko txokoa*. 5 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoendako lehiaketa da.



Oñatiko Udal Gobernuak kideak plaza ondoko gunean. UDAL GOBERNUA

## Emakumeen Etxea eta musika eskola hurrengo

2020ko likidazioa eginda, Oñatiko Udalak bi milioi euro pasa dituela inbertsioetarako esan du Udal Gobernuak, eta adierazi Jose de Azpiazu musika eskola eta Emakumeen Etxea izango direla agintaldia bukatu bitarteko egitasmo nagusiak

### Oihana Elortza OÑATI

Bi proiektu potolo ditu esku artean Udal Gobernuak, agintaldia bukatu aurretik abian, behintzat, jarri gura dituenak: Jose de Azpiazu musika eskolaren etorkizuna eta Emakumeen Etxearen gauzatzea.

Prensa ohar batean esan duenez, Zubikoa kiroldegia eraberritzea bukatu arte itxaron behar izan du Udal Gobernuak, 2020ko likidazioa egin arte. Hori eginda, bi milioi euro pasa lituzke Oñatiko Udalak inbertsioetarako, eta bi egitasmo horiek izango dira agintaldia bukatu aurretik indarra hartuko dutenak.

### Eraikina eta kokapena

Musika eskolaren proiektua eraikinari eta kokaguneari lotutakoa da. Abendura bitartean izango dira gaia lantzen. "Irisgarritasunari eta bestelakoei begira, ez da leku egokia. Gaur dagoenetan, behintzat, ez. Haren inguruko kezka agerian geratu

zen EH Bilduren *Harritu* prozesuan. Gaiari heltzeko konpromisoa hartu genuen eta erronkari heldua diogu dagoeneko. Diagnostiko batekin hasi behar dugu prozesua, eskaintza pedagogikoa aztertu, plan estrategikoa diseinatu eta hartarako beharrezko litzatekeen espazio egokia zehaztu", dio alkateak prentsa oharrean. Prozesuarekin datozten egunetan hasia da Udal Gobernuaren asmoa, eta hainbat eragileren parte-hartzea "funtsezkoa" izango dela dio.

Emakumeen Etxearen egitasmoa da Udal Gobernuak datozten asteetan lantzen hasi gura duena. "Haren beharra atzeman da Udalean eginiko prozesuetan, diagnostikoetan, dinamiketan...

**PROIEKTU BIETAN PARTE-HARTZEA GARRANTZITSUA IZANGO DELA DIO UDAL GOBERNUAK**

Berdintasunaren alorretik eta, oro har, Udaletik, seriooki diogu heldua erronkari, leku egokiak bilatzen, proiektuari forma ematen eta aurrerako bidea marrazten. Finean, ulertzen dugu berdintasunaren alorrean urratsak egiten segitzeko beharrezkoa dela halako espazio bat", dio oharrean alkateak. Proiektu honetan ere parte hartze prozesua egongo da; esaterako, espazioaren kudeaketa eta antolaketak zehaztuko dituenak.

Alkateak gaineratu du COVID-19ak aurreikusitako gabeko ekintza eta inbertsioak eskatu dituela, baina, era berean, "exijentzia handiko" proiektuekin jardun dutela agintaldi honetan; kiroldegia, Natur Eskola, Araozko estatua eta irisgarritasun egitasmoak kasu. Zubikoa kiroldegia eraberritzeko eskatu zen maileguaren ordainketa urtebete doala aurreratuta ere jakinarazi du, eta Udal Gobernuaren kudeaketa gaitasuna azpimarratu.

## Edukierak %100ekoak izango dira herriko udal zerbitzuetan

Neurrien malgutzeekin etorri da aldaketa; gaztelekuko sotoak ohiko erabilera izango du egubakoitzetik aurrera

### O.E. OÑATI

COVID-19aren aurkako neurriak malgututa, edukierak %100era igo dira, adibidez, kultura eskaintzetan eta kirol instalazioetan. Zubikoa kiroldegian, hori bai, erreserba sistema mantendu egingo da, partzialki; igerilekuko hiru kaletan eta saunan aurrez hartu behar dira txandak. Maskaren erabilerari dagokionez, baina, ez da aldaketarik izan. Hau da, oraindik beharrezkoa da maskara erabiltzea leku itxietan eta 1,5 metroko distantzia berma ezin daite-

keen espazio irekietan. "Hemendik aurrerako joera ikusi behar da. Hor dago bestelako aldaketak egiteko aukera. Unean uneko egoerara eta beharretara egokituko dugu zerbitzua, orain arte egin dugun bezala", azaldu du alkateak.

Hilabetez itxita egon den gaztelekuko sotoa, bestalde, gaur zabalduko dute. Urriaren 22tik aurrera berriz egongo da erabilgarri zerbitzu hori, 0 eta 7 urte bitartekoendako. Asteartetik domekara egongo da zabalik, 17:00etatik 19:45era.

## Ikuspegi ezberdinak entzungo dira Lope Agirreraren omenaldian

Urriaren 27an, 460 urte beteko dira Lope Agirre erail zutela, eta oroimen ekitaldia dago antolatuta urteurren horren harira. Lope Agirre kalean izango da, haren omenezko irudia dagoen tokian. Hari buruzko testu bat dute prestatuta antolatzaileek, eta ekitaldi horretan irakurriko dute; kantu pare bat ere entzungo dira, zuzenean. Espainiako

koroaren aurka altxatu zenekoa ekarriko dute gogora, besteak beste.

Sare feministari, bestalde, "hanka sartzea" iruditzen zaio "gaur egungo irakurketa ideologikoaren baitan bere kolonizatzaile izaera bigarren mailan uztea; noski, ezkerreko ikuspegitik ari bagara, behintzat". Gaiari konplexutasunez heldu eta autokritika egin behar dela uste du, eta, hain zuzen, testu bat prestatu du eguazteneko ekitaldi horretarako.

## GORA ETA BEHERA



## Pintaketa eginda eraikineko horman

Aita Lizarralde kaleko pintaketa ikusita, argazkia bidali du herritar batek Goienara, pintaketek herria zikintzen dutela iritzita: "Noiz ikasiko du Ernaik herria garbi mantentzen?".

# LHko ikasleen %72 ari dira eskola kirolean

Inoiz baino babes handiagoarekin hasi du ikasturtea eskola kirolak. Lehen Hezkuntzako 600 ikaslek eman dute izena, eta, kirolaz gain, ziurgabetasuna, oreka, bakarkako erronkak eta halako gaitasunak ere landuko dituzte, maiatzera bitartean

## Oihana Elortza OÑATI

"Proiektu integratzaile, hezitzaile eta komunitarioa" izaten jarraitu gura du eskola kirolak, eta laguntzaile eta babesle gehiagorekin ekin dio aurtengo ikasturteari.

## Indartsuago

Datuek ere esaten dute proiektua indartu egin dela. LH-1etik LH-6ra bitarteko 600 ikaslek dute izena emanda, azken ikasturtean baino 90 gehiagok. Azken zikloko ikasleen gorakada dago horren barruan. Joan den urtean, egoeratik instalazioen erabilpena mugatua zelako, egitasmoetik kanpo gelditu ziren LH-6koak, eta aurten gogoz bueltatu dira asko. Guztira, Lehen Hezkuntzan ikasten ari diren ikasleen %72 ari dira eskola kirolean parte hartzen.

Joan den ikasturtea ez zen ohikoa izan, baina eskola kirolari eusten saiatu ziren, nahiz eta ezin izan zituzten ekintza guztiak egin eta, hain zuzen ere,

ahalegin hori bereziki eskertu zuen Gipuzkoako Aldundiko ordezkari Iñaki Iturriotzek eguazten iluntzeko aurkezpenean: "Oñati oso herri kirolzalea da, eta baieztatu egin da hori. Azken ikasturte zail honetan eredugarria izan da Oñatin egindako lana, egitura bera zein haurrak mugimenduan mantentzeko egindako ahalegina, hemengo esperientzia. Gipuzkoako argazkia dugu guk, eta eskerrak eman gura dizkizuet eragile guztioi ahaleginagatik". Familiendako mezu trinko bat ere eman zuen Iturriotzek: pantailak eskola kirolak eskaintzen duen mugimenduari, adiskidetasunarekin eta gozamenarekin trukatzeko.

## GUZTIRA, HEMEZORTZI KIROL MOTA JASOTZEN DITU AURTENGO ESKAINTZAK

## Hemezortzi kirol eskaintzan

Guraso eta ikasleez gain, beste hainbat eragilek osatzen dute eskola kirola Oñatin, izan ikastetxeak, erakundeak, babesle diren herriko hainbat enpresa zein kirol eragile. Aurten, Antxintxika taldea batu da egitas-mora, eta eskola kirol egokitua ere eskaini da 6 eta 21 urte artekoendako. Padela, gimnasia erritmikoa, baso eskola eta barne munduarekin jolasean aritzeko saioak ere jasotzen ditu aurtengo eskaintzak; hemezortzi aukera. Hamahiru begiralek gidatuko dituzte saioak eta kiroldegian ez ezik ikastetxeetan ere egingo dira.

Egitasmoak 125.000 euroko aurrekontua du: %20,93 Udalak jartzen du, %21,46 Aldundiak, %14,70 entitate pribatuek eta %42,91, izen emateek. "Ikasleei hezkuntza osoa eskaini gura diegu kirolaren bitartez, bizimodu osasungarriarekin, eta proiektu honetan bidelagun izango da Udala", zioen alkateak.

## Federatuen txartelak egiten hasiko da mendi saila azaroan

Pandemia aurretik bezala, hilero antolatuko ditu irteerak aurrerantzean; datorren hilean da lehenengoa

## O.E. OÑATI

Pandemia aurreko egoerara bueltatu da Aloña Mendiko mendi sailaren jarduna ere, eta horrek esan gura du irteerak antolatuko dituztela aurrerantzean, hilero; azaroan izango da lehenengoa. Federatu kanpaina ere datorren hilabetean jarriko dute martxan.

Federatuak direnei automatikoki berrituko diete txartela, duten estaldura bera mantenduz. Estalduran aldaketak edo bazkide egin gura izanez gero, bi bide hauetako bat erabil dezake

herritarrak: posta elektronikoz mezua [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com) helbidera bidalita edo Aloña Mendiko bulegoetara joanda azaroaren 9an, 11n eta 17an 19:15etik 22:30ak bitartean. Bazkide egiteko, datu pertsonalez gain, adierazi beharko du federatu maila –Euskadi edo Espainia– eta gehigarririk nahi duen –Frantziako Pirinioak, mundu osoa, BTT, mendiko eski alpinoa edo snowboarda–. Prezioak EM-Fren batzarrean onartuak izaten dira eta bertako webgunean ikus daitezke.

## Alebin mailako igerilariak lehiatuko dira bihar Zubikoan

Alebin kategoriako igerilarien lehiaketa egingo da zapatu arratsaldean Zubikoa kiroldegiko igerileku handian, 15:30ean.

Oñatiko, Bergarako, Azpeitiko, Azkoitiko eta Legazpiko igerilariak lehiatuko dira. "Kategoria horretan igerilari gutxi daude eta probak ordu pare bat iraungo du, gehienez", dio Josune Odriozolak, Aloña Mendi talde-

ko entrenatzaileak. Igerileku handian egingo dute igeri eta tarte horretan ez da erabilgarri egongo ohiko erabiltzaileendako. Bai, ordea, igerileku txikia; hango ikastaroak betiko moduan egingo dituzte. Kategoria handiagoetan ari direnek Eibarren dute Neguko Ligako lehen jardunaldia ordu berean.

Biharko lehiaketa harmailetatik jarraitu ahal izango dute igerilarien etxekoek. 99 pertsona sartu ahal izango dira, denak maskarekin.



NIRE USTEZ

XABIER GESALAGA

## Salto egin nuen...

*Salté* (Ane Lukin) kantua entzunaz dihardut. *El viento me arrastraba siempre hacia atrás y no me dejaba ver nada más* edo *y ahora que estoy aquí no sé qué hacer, no sé si seguir soñando o volar por ahí* estrofeak hausnarketara eraman naute.

Amets egiten dugu, bai, hor, izara zurien erreinuan lo. Ezusteko istorio eder edo ilunetan protagonista edo ikusle. Sarritan ez dugu esnatu nahi izaten; beste batzuetan, aldiz, hasperen egiten dugu esnatzean. Baina, eta begiak zabalik? Ez al duzue uste begiak irekita amestea ahaztu zaigunik? Goizero begiak zabaltzean, ezinezkoaren erreinutik zalantzen lurraldera, eta plast! Netflix, Instagram edo Tiktok bezalako festa-argi plastadek begiak eta buruak lausotzen dizkigute. Ane Lukinek dioen bezala, agian salto bat egite soilak dena aldatzen du, baina, denok batera jausi eginez gero, eztanda uhina indartsuagoa izango da, eta hortxe aurrean, laino ostean... Berriro Ane Lukin eta *Salté* kantuko hitzak: *Nunca quise creer que una fantasía así pudiera hacerse realidad con solo saltar.*

Ireki begiak, amestu.



Oñatiko eskola kirol komunitatea osatzen duten eragileetako ordezkariak eguazten iluntzean. MIREIA BIKUÑA



Erostarbe, berak egindako hainbat logoren aurrean, erakusketan. A.T.

## Jabier Erostarberen ibilbidea, erakusketan

Dagoeneko 26 urte pasa dira Erostarbe ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoak herrian estudio propioa zabaldu zuenetik, eta denbora honetan guztian bertan egin dituen lanen erakusketa dago ikusgai kultura etxean, hilaren 31ra bitartean

### Amaia Txintxurreta OÑATI

Azken urtetako bere lan-bizitzari bultzada eman nahian, Jabier Erostarbe ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko oñatiarrak erakusketa zabaldu du kultura etxean, egin dituen bere lanak erakusteko. "Uste duzu denek dakitela zelako lanak egiten dituzun, baina konturatu naiz badagoela jendea zein lan egiten duan interesatzen zaiona eta ez duena ezagutzen egiten ditudan arlo guztietako lanak zeintzuk diren. Beraz, askotariko nire lanak ikustarazteko jarri dut erakusketa", azaldu du. Bere asmoa zen San Lorenzo 10ean duela 26 urte zabaldu zuen estudioak 25 urte betetzean jartzea erakusketa, baina, pandemiak baldintzatuta, urtebete atzeratu behar izan du erakusketa, nahiz eta arte grafikoan munduan denbora gehiago daraman lanean.

### Askotariko lanak

Kartelak, esku-orriak, kamisetak... Askotariko lan ezagunak

daude erakusketan. Baina, batez ere, hiru arlotara bideratutakoak egiten ditu Erostarbek. Alde batetik, industria enpresetarako egin izan dituen lanak ikus daitezke; Ulma Taldearendako egindakoak edota Ternua enpresarendako egindako kamiseten edota trekking bastoiaren diseinuak. Kulturara bideratuta, herriko turismoa ezagutarazteko edo jaietarako egindako kartelak ere ikus daitezke. Eta azkenik, hezkuntza mundura zuzendutakoak ere ikus daitezke; Mondragon Unibertsitatearendako edo herriko ikastetxeendako lan egiten du, adibidez.

Bezero bakoitzarendako lan zehatzak egiten ditu; zeka taldearendako zentimetro gutxiko

**INDUSTRIARA,  
KULTURARA ETA  
HEZKUNTZARA  
BIDERATUTAKO LANAK  
EGITEN DITU**

zigilu bat diseina dezake, edota baita hamabi metrotako batzar nagusiak egiteko gela baten diseinuak ere. "Pertsona bakoitzak bere bidea aurkitu behar du, eta estilo bat sortu. Uste dut badagoela estilo zehatz bat nire lan guztien atzean", adierazi du Erostarbek, eta hauxe gaineratu: "Heldutasunak edo esperientziak asko ematen dizu eta teknikoki ere estiloa aberastu egiten da".

### Atzetik dagoen lana

Erakusketan azken produktuak ikus daitezke, baina horra iritsi aurretik atzetik dagoen lana ere bai. Horren adibide gisa jarri du, esaterako, eskola kirolerako logoaren lan-prozesu guztia ikusgai. "Arkatza eta eskua baino azkarragoa ez da ordenagailua. Gero, egia da lana hobetu daitekeela digitalizazioarekin, baina hasiera beti arkatzarekin eta paperarekin egiten dut", zehaztu du. Hilaren 31ra arte egongo da ikusgai kultura etxean.



Udaleko eta Musika Bandako ordezkariak, hitzarmena eskuetan dutela. MIREIA BIKUÑA

## Lau urterako hitzarmena sinatu dute Udalak eta musika bandak

Urte bakoitzeko 84.700 euro jasoko ditu bandak eta, tartean, instrumentu eta uniforme berriak erosiko dituzte

### A.T. OÑATI

Izaro Elorza alkatea, Iñaki Olalde Kultura zinegotzia, Iñigo Ugarte Oñatiko Musika Bandaren presidentea eta Aitor Biain zuzendaria egon dira sinatze-urtearen ekitaldian. Bi erakundeek izenean Elorzak eta Ugartek sinatu dute lau urteko lankidetzaren hitzarmena. "Guretzat ohorea da musika bandarekin eskutik joatea. Askok gustatu zaigu urterako egin duten proposamena. Orain arte elkarrekin egin dugun bidetik jarraitzea da asmoa", esan du Olalde. Hitzarmen horren arabera, ur-

teko 84.700 euro jasoko ditu musika bandak. "Diru horrekin hainbat inbertsio egingo ditugu. Besteak beste, perkusio instrumentu berriak erosiko ditugu, hala nola klarinete baxua eta kornu ingelesa. Bestalde, uniformeak berriro egingo ditugu. Beltzak izango dira aurrerantzean", azaldu du Ugartek.

### Sei kontzertuko denboraldia

*Gutziak* izena ipini diote bandak egingo dituen kontzertuen denboraldiari; lehenengoa azaroaren 21ean izango da, 13:00etan, frontoian, *Munduan zehar*.

## 'Zarramarra'-rako sarrerak gaur jarriko dituzte salgai

Datorren egubakoitzean, hau da, hilaren 29an, 22:30ean Santa Anan hasiko da *Zarramarra* ikuskizunaren bigarren denboraldia. "Inoiz baino indartsuago" datozela adierazi dute, eta aurreratu Oñatitik Euskal Herri-rako saltoa emango dutela oraingoan. Izan ere, estreinakoz, herrikoak ez diren gonbidatuak izango dituzte oholtzan: Arantxa Moñux, Ane Aseginolaza, Xabier Alkiza eta Iker Bengoetxea izango dira gonbidatuak; hau da, Nobitari, Doraemoni, Lufiri eta Euskalteleko publizitateari aho-tsa jartzen dieten pertsonak.

Ikuskizunerako sarrerak gaur, egubakoitza, 10:00etan jarriko dituzte salgai ohiko tokietan.

## OHARRAK

### Laburmetrai rallya

Azaroaren 6an izango da. Hamar laguneko hogeitalek parte hartu ahaliko dute eta dagoeneko hamazazpi taldek eman dute izena.

### Antzerkia, domekan

*Lubaki lainotsua* antzezlan eskainiko da etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan. Sarrerak salgai jarraitzen dute ohiko lekuetan.

### 'Ostegun kontalariak'

Eguenean, hilaren 28an, 6 urtetik gorako umeendako saioa izango da. Aurrez izena emateko idatzi *liburutegia@onati.eus*-era, Whatsapez 688 732 826ra edo deitu 943 71 61 11 telefono zenbakira.

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

---

**Egin zaitez goienakide!**

**goiena<sup>“</sup>  
kide**



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)



# "Lehen igarri ez dudan presioa sumatu dut Aloñako Igoeran"

MALEN OSA ANSA OÑATI

**MENDI LASTERKETAK** Etxeko proba irabazi duen lehenengo herritarra bilakatu da Osa; orain, berriz, Aloña Mendiko aurrelariak futboleko botak jantziko ditu ostera ere

Mireia Bikuña / Xabi Urzelai OÑATI

18 urterekin Aloñako Igoeran izena lehenengoz eman, eta, konturatu orduko, Malen Osa asteko protagonista bilakatu da. Historia egin du etxeko proban, lasterketa irabazi duen lehenengo oñatiarra izan da eta (2.26.23). Mendi lasterketetarako sekulako dohaina duela erakutsi du, nahiz eta oraingoz futboleko botak jantzen jarraituko duen, Aloña Mendiko jokalaria da eta. Hasi berria da lasterketetan, baina beterano baten moduan egiten du berba.

**Lehenengo oñatiarra zara etxeko lasterketa irabazten.**

Bai, eta uste dut orain arte podiumera ere ez dela sekula oñatiarrik igo. Horregatik, Ainarra [Uribarri] eta biok oñatiar moduan podiumean egon izana esanguratsua izan da. Egia da mendi lasterketetan emakumezko geroago eta presentzia handiagoa dugula, baina, bestalde, lasterketa egunean pena apur bat ere hartu nuen, hamasei emakumezko baino ez ginelako batu irteera puntuan. Alde horiek txikitzen joan daitezen borrokan jarraituko dugu. **Hunkituta iritsi zinen helmugara, esanguratsua izan ziren lasterketa ondorengo irudiak, gertukoekin besarkadak...**

Oso berezia izan zen momentu hura, denetariko sentazioak izan nituen. Momentuan ez

nintzen egindakoaz jabetu, oso hunkituta nengoen, eta egoerak apur bat gainditu egin ninduen. Etxekoak zeuden han eta sentimenduak borborka nituen. Irudiak erreparatuz badirudi burumakur helmugaratu nintzela; egia da leher eginda nengoela, baina ez nuen jakin momentu hartan zelan jokatu.

**Zelan joan zen lasterketa?**

Uste baino dezente azkarrago hasi ginen, Oihanak [Azkorbeitia] aurrera egin zuen eta nik Ainararekin [Uribarri] batera igo nuen Aloña. Hasierako sentazioak ez ziren batere onak izan. Banekien hasieratik nire borroka Ainararekin izango nuela, Oihana beste koska batean egongo zela aurreikusten nuelako. Eta amestu ere egiten ez nuen hori gertatu zen orduan, Eskistara iritsi aurretik harapatu egin nuen Oihana eta banekien malda behera azkar joateko kapaz nintzela. Hor hasi nintzen pentsatzen lasterketa irabaz nezakeela.

**"HELMUGAN EZ NEKIEN ZELAN JOKATU, ZER EGIN"**

**"EZ NUEN ESPERO LASTERKETA IRABAZTERIK"**

**Herritarren aurrean erakustaldi aparta egin zenuen.**

Horrek poztu ninduen mordoia, norberak egiten duen horrekin gozatu egiten duenean eta, aldi berean, besteak ere gozatzen dabilzala ikustea... Agian, garaipenak berak baino gehiago betetzen nau horrek.

**Zeure kasuan, pandemian egindako urtea baliatu duzu mendi lasterketetara gerturatzeko.**

Gaztetatik izan ditut begiz jota mendi lasterketak, Aloñako Igoera etortzen zen bakoitzean egunen batean hor lehiatzea amesten nuen. Egia da etxetik datorridala mendizalatasuna, eta baita kirol ohiturak ere, eta, pandemian egindako urtean bestelako kirol jarduerak bertan behera egon direnez, serio-tasun handiagoz hasi nintzen korrika egiten, entrenatzen, eta mendian ibiltzen; horrek askatasun sentazioa ematen zidan.

**Etxeko lasterketan izena ematea erabaki zenuen arte.**

Lehenengo, Jacan (Huesca) egiten duten Oroeleko lasterketan izena ematea erabaki nuen, abuztuan. Oñatiko lasterketa gogorra da, eta erreferentziak hartzeko Oroelekoa proposa zen. Eta hortxe etorri zen lehenengo ezustekoa [Irabazi egin zuen]. Gero, Gorbeiko Suzien egitea erabaki nuen. Azken batean, ez dut nire gorputza lasterketetan ezagutzen,



Malen Osa, aste barruan, Aloñako Igoerako txapelarekin. ANDONI GOITI

eta mugak non ditudan ikusi gura nuen [Eta hor ere irabazi egin zuen, 21 kilometroko distantzian]. Egia da bi lasterketa horietan ondo ibili izanak Oñatiko lasterketarako urduritasun puntua eman zidala. Ordurako jendeak bazekien zertan nabilen, eta aurrekoetan baino presio handiagoarekin joan nintzen irteera puntura.

**Diozu sorpresa izan dela Oihana Azkorbeitia gainditu izana.**


Bai, erabateko sorpresa. Aurreikusten nuen benetako pikea Ainararekin [Uribarri] izango nuela, uste nuen Oihanak hasieratik egingo zuela aurrera eta ez genuela gehiago ikusiko, nik nire aldetik egin beharko nukeela lasterketa. Harrapatu izana ezustea izan zen, mendian zeuden herritarrek etengabe ematen zizkidaten erreferentziak eta geroago eta gertuago nekala ikusten nuen, gainditu

nuen arte. Hura aurreratu izana surrealista samarra da.

**Duela hiru urte, Goiena telebistan Galdegazte saioan izan zineten Azkorbeitia eta biok. Azkorbeitia gonbidatu, eta zu eta zenbait solaskide galderak egiten.**

[Barre] Bai, gogoan dut. Nik proposatu nuen Oihanaren izena, gainera. Oso interesantea iruditzen zitzaidan maila horretako kirolari batekin egotea, kontuan hartuta zer-nolako oihartzuna lortu duen emakumezko mendi lasterkari moduan... Bada, pentsa ze berezia izan zen domekan bizi izan nuena. Ze jator egon zen nirekin helmugan, Artzanburun elkarrekin egin genuen igoera... Halako momentuengatik bakarrik merezi izan zuen Aloñako Igoera egitea.

**Tarte batean, korrika egiteko zapatilak gorde eta futboleko botak jantziko dituzu berriro ere.**



Azkorbebeitia, Osa eta Uribarren, helmugan. LARTAUN ITURBE

## Hirutik bi, etxeokak

Domekako emakumezkoen podiuma historikoa izan zen, orain arte oñatiar bakarrak lortu ez duen hori lortu zuten-eta Malen Osak eta Ainara Uribarrak; hain zuzen, hiru onenen artean sailkatzea. Oihana Azkorbebeitia izan zen hirugarrena.

Mendi lasterketetan izena emateko erabakia hartu nuenean, garbi neukan mundu honetan indartsuegi hasteak ez zuela gauza onik ekarriko. Gorputzak eta buruak atsedean hartzea eskatzen didate, azken batean, entrenamendu ordu asko direlako eta gorputzak sufritu egiten duelako. Horregatik, etena egingo dut eta futbolera itzuliko naiz, bizitza osoan futbola izan delako praktikatu dudana kirol jarduera eta, koronabirusa tarteko azken urtea ez denez batera ona izan, futbol ibilbidea ondo amaitu nahi dudalako. Futbolaz gozatu nahi dut orain; ditudan taldekideekin ederto ibiliko naiz. **Sufrimendu fisikoa aipatu duzu. Dagoeneko badakizu zer den ebakuntza-gelatik pasatzea.** Bai; badakit korrika egiteko kapaz ez izatea zer den... Horregatik, 18 urterekin mendian korrika ibili ahal izatea oparia da niretako. Orain ere, tarteka, belaunek burukomina ematen didate, eta batek daki 50 urterekin zelan ibiliko garen, baina, ondo gauden bitartean, gozatu egingo dut.

**"PANDEMIAN ASKATASUNA EMAN DIT MENDIAK"**

**"FUTBOLAZ GOZATU NAHI DUT ORAIN, TALDEKIDEEKIN"**

**Parte hartutako hiru lasterketak irabazi izana ez da normala, ezta horren gazte txapela jantzi izana ere. Presioberba aipatu duzu lehen.** Lasterketa aurretik lagunek komentatzen zidaten Oñatin ere irabazi egin behar nuela, ederra izango zatekeela. Ez diozu horri garrantzirik eman nahi, baina presioa handitzea dakar. Lasterketa egunean, 08:00etan, plazara iristean batera nire izena entzun nuen bozgorailuetatik, eta detaile horiek kudeatu egin behar dira. **Futboleko garaipenak eta porrotak taldean ospatu edo sufritzen dira; mendi lasterketetan, ez.**

Lehenago ere igeriketean ibili naiz, futboleko ere lehiakorra naiz, eta banuen gogoia bakar-kako kirol batean presioa zelan kudeatzen nuen ikusteko. Etor-kizunean nire esku egongo da neurtzea zenbat estutu behar dudana neure burua; oraingoz, ez diot zaletasun honi aparteko lehentasunik eman nahi.

**Datorren urtean Aloñako Igoera apirilean izango da. Irteera puntuan izango zara?**

Ez izan zalantzarik! Eta, aipatu moduan, ez dut pentsatu ere egin nahi ze presio izango duan! [Barre] Dena dela, lasterketa bakoitza mundu bat da, lesioak egoten dira, lasterketako gorabeherak, edozein detaile... Hobe da hankak lurrean mantentzea. Lehenengoa banaiz, asko poztuko naiz, eta bosgarren sailkatuta ere egun berezia izango da, seguru.

# Mallorcako ironmanean 'hegan' egin du Ugartek

**TRIATLOIA** Denboraldi ederra egiten bazebilen ere, Mikel Ugartek orain arteko ironman borobilena egin zuen domekan Mallorcan: "Ez dakit bederatzigarren egin izanak edo lortutako markak pozten nauen gehien". Oñatikoak markatzarra egin zuen (8.13.39)

## X.U. OÑATI

Mikel Ugartek sekulako lasterketa egin zuen zapatuan Alcudian (Mallorca). Ironman distantzian egiten zuen bigarren proba zen: "Proba aurretik esan izan bazenit marka hori egin behar nuela... Errazagoa da loteria tokatzea". Oñatikoak egun ezin hobea izan zuen: "Espainiako Txapelketan [half distantzian], esaterako, oso pozik geratu nintzen [seigarren izan zen]. Baina hau beste kontu bat da, ze mailatako triatletak egon ziren kontuan hartuta ez dauka lehengoarekin zerikusirik". Eta horren adibide da korrikako tarte handiena – maratoni bat– 2018an Hawaiiin bigarren sailkatu zen Bart Aernoutsekin egin zuela. Belgikarrak minutu bateko tarte atera zion lasterketan: "33. kilometro inguruan elkarrekin gindoazen, ordurako egurrean ibilita geunden biok, baina tarte hartan erritmoa aldatu zuen eta erabat erritmoa aldatu zuen eta erabat lehertu aurretik hanka altxatzea erabaki nuen. Eta eskerrak!", dio Ugartek, barrez.

## Ziurgabetasuna hasieran

Gozatu ederra hartu du Oñatikoak Mallorcan, baina lasterketa aurreko astea ez zen batere ona izan: "Bizikletan arazo mekanikoekin nembilen, pieza bat



Mikel Ugarte. M.U.

apurtu zitzaidan eta lasterketa egunerako bizikleta bat alokatzea ere pasa zitzaidan burutik, pentsa. Hala, aurreko egunetan oso urduri ibili nintzen, ironmanean zentratu ezinean".

Dortsala janztearekin batera amaitu ziren arazo guztiak: "Igedio Ugartek, barrez.

**"AURRETIK ESAN IZAN BALIDATE MARKA HORI EGIN BEHAR NUELA..."**

MIKEL UGARTE, TRIATLETA

riketako tartean hamar laguneko taldea sortu eta tiraka ibili nintzen. Ez zitzaidan hor estutzea axola, jarritako erritmoak atzekoei min egingo zien esperantza neukan. Bizikletan ere gozatu egin nuen. 100. kilometroan konturatu nintzen nindoa taldean eutsi ahal izango niola amaierara arte. Izan ere, nahiko odol berokoa naiz, baina indarrak gordetzea erabaki nuen; oraindik maratoni bat geratzen zitzaidan".

Hala, korrikako tartean ere oñatiarrak *hegan* egin zuen: "2.44.35eko denbora egin nuen maratoni, oso marka ona da, eta lasterketan gindoazela aurrekoak baino azkarrago gindoazen. Hankak berez zihozten, sekulako sentsazio ona izan nuen. Baina Aernoutsek atzean utzi ninduean... Beste bost kilometro egin nituen erritmoa kontrolatzen, eta lasterketaren azken tartean sekulako miseriak pasa nituen, hura izan zen sufrikarioa!".

Negar malkotan gurutzatu zuen Ugartek helmuga, leher eginda eta erabat hunkituta: "Maila horretan ibiltzeko urtetako entrenamendua dago atzean, eta etxeokokin akordatu nintzen bereziki, baita lagunekin ere. Eskerrak eman nahi dizkiet denei".

## PILOTA Murua eta Balerdi, finalean egoteko lehian

Ander Murua arrasatearra eta Manex Balerdi antzuolarra Valladoliden jokatzen dabilzan Munduko Txapelketan daude. Orain artean ez Frantzia eta ezta Argentina ez dira euren dako kontrario izan, eta atzo, egue-na, eguerdian jokatu behar zizuten finalerdia. Finalak, ostera, gaur izango dira, 18:00etan hasita.

## ESKUBALOA Oñatiarren eta arrasatearren arteko derbia bihar

Euskadiko Txapelketan derbia jokatuko dute Fagor Industrialek eta Mugarri Ingouk zapatuan (18:00, Zubikoa). Txantxikuek jokatutako hiru norgehiagokak irabazi dituzte –joan den astean oso maila onean jardun zuten Deustun– eta arrasatearrek jokatutako biak galdu dituzte. Aurten ez daude indarrak parean.

## FUTBOLA Aloña Mendik eta Leintz Arizmendik jokatuko dute etxean

Ohorezko erregionalean, gizonnezkoetan Aloña Mendi eta emakumezkoetan Leintz Arizmendi dira etxean jokatuko duten ordezkariek. Oñatiarrek Añorga hartuko dute domekan (16:30) eta Leintzekoek Urnieta- ren kontra jokatuko dute zapatuan Mojategin (12:30). Nabarmenezkoa da UDA eta Mondra aurreko postuetan dabilzala.

# "Benetan landu ditudan alor asko daude jasota"

**FERMIN ETXEGOIEN URIBEETXEBERRIA IDAZLEA**

Fikzioaren, saiakeraren eta kazetaritzaren elementuak nahasten dituen 'Totelak' "eleberri hibridoa" argitaratu du; bere izenarekin sinatu duen bosgarren liburua da

**Aitziber Aranburuzabala OÑATI**

Martitzenean aurkeztu zuen Erein argitaletxearekin argitaratu duen *Totelak*.

**Bosgarrena duzu kalean. Gustura?**


Bai, nor esango lidake, orain dela urte batzuk! Orain dela sei urte hasi nintzen honetarako gauzatxoak idazten, hemendik eta handik hausnarketak egiten, fikziozko bide bat ere egiten gero... Eta gura dut pentsatu, collage guzti horrek, norabide bat hartu duela gero, irakurlea eramateko orduan, nahiz eta hausnarketatik edo saiakeratik asko egon.

**Bosgarrena izatea, presio izan da zuretzako?**

Betik dago presioa, eta halako ideiak botaz gero gehiago. Begera izena, *Totelak*. Gogorra da. Jendeak euskaldunak toteltzat ditudan galdetuko du. Demagun espektatiba edo aukera aldetik hartuz gero, euskararen eta bestelako gai sozialetan zeuden asmoen gainean gaur egun zeintzuk dira gure sentazioak? Bete dira asmoak? Onera edo txarre- ra egin du egoerak?

**Herriaren arabera hausnarketa horien ondorioak oso ezberdinak izan daitezke, ezta?**

Duda barik! Egoera bitxia da Oñatikoa, kasu bakarrenetarikoa esango nuke; izan ere, askotan



Fermin Etxegoien, argitaratu berri duen *Totelak* liburuarekin. EREIN ARGITALETXEA

esan dudak moduan, eta asko harritu egiten badira ere, gure belaunaldia erabat eralduna zen, nire gaztaroan, gaztelera hutsean jarduten genuen. Bisagra moduko bat izan gara, hau da, gu baino zaharragoak gu baino euskaldunagoak ziren eta ondoren etorri direnak zer esanik ez. Frankismo garaian galdutako euskararen transmisioa indarrez berreskuratu zen gero. Beste toki batzuetara joanez gero, orokorrean, guztiok dugun sentazioa da inoiz baino euskal hiztun gehiago dagoela lurra

planetan, baina, era berean, euskaldunen arteko konpaktazioa ez da seguruenik izan beharko lukeen bestekoa.

**Inkontziente linguistikoa esamoldea erabiltzen duzu sarritan liburuan. Zer adierazteko?**

Ez dakit Soziolinguistika Klusterkoek onartuko dituzten nik erdi asmatutako kontzeptu horiek. Hegoaldean inkontziente linguistikoa kolektiboa ez da euskara, espainola baizik, eta normala da hori; izan ere, egunero milioika input jasotzen ditugu espainolez. Mundua erre-

produzitzeko erregistro guztiak automatizatuta ditugu espainolez, baina ez zaigu gauza bera gertatzen euskararekin; adibidez, Mauleko koblakari baten erregistroa onartzeko lanak ditugu. Gure hizkuntzaren oihartzuna oso mehe entzuten dut espainolaren oihartzun etengabearekin konparatuta. Eta, azken finean, hizkuntza bat zer da, oihartzuna ez bada. Haurrak zelan ikasten du euskara? Bada, errepikapen bidez. Era berean, ez dut uste geure burua horrenbeste jipoitu behar dugunik, eta halako kolapso linguistikoa baten bidean jende asko geratzen da. Hausnarketa horiek guztiak, nolabait, toteltasunaren kontzeptu edo ideia horrekin lotzeko modukoak direla uste dut.

**Zer da onena, euskara garbizalearen alde egitea ala horren garbia ez baina euskara naturalago baten alde egitea?**

Uste dut ez dagoela modu bakar bat; hau da, testuinguruaren arabera izan behar dela. Ni ez nator esatera, inolaz ere, zelan izan behar den batean edo bestean, uste dudalako ezinezkoa dela formula bakarria izatea gauza guztietarako, baina, seguruenik, garbizaletasunaren eta espainolaren laguntzaren bitartez ere, hor dago-eta paradoxarik handiena, espainola ere izan daitekeela euskara ezberdinen arteko eranskaria edo aglutinantea. Baina hau ez da tesi liburu bat, baizik eta fikzio bat non pertsonaiek halako gauzei buruz ere berba egiten duten. **Istorioak bi hari ditu; Suitzara oppretan doan bikote nagusi batena da horietako bat. Zeintzuk dira?** Bularreko minbizia gaingitu du emakumeak, eta, hori ospatzeko, Sankt Moritz luxuzko tokira joango dira. Maserati auto gorri

elegante bat alokatuko dute. Hortik abiatuta gauzak gertatzen joango dira, kulturalak batzuk eta existentzialak edo pertsonaien artekoak beste batzuk. Han berba egiten duten eta oinarri latinoa duen erromantxera hizkuntza ere ezagutuko dute.

**Kontserbatorioko musikari gazte bat da beste istorioaren protagonista, eta gertuko duzun Ruper Ordorikarekin lotu duzu. Zer dio?**

Pasarte batzuk bai, baina ez du liburu osoa irakurri; hortaz, ikusiko dugu bere burua fikzio baten barruan nola ikusten duen... [Barre]. Aurrez egindako beste lan batzuetarako landuta nuen Ruperren obra.

**Musika-erreferentzia asko egiten dituzu; zeintzuk, adibidez?**

Oso klasikoak dira gehienak; The Beatlesi buruz berba asko egiten dut, baita 80ko hamarkadan oso gustuko nituen The Smiths taldearen gainean.

**Gustura geratu zara?**

Tarteka geratu naiz gusturago; hau ez nuke esan behar saltzaille moduan, baina gustura nago hor dauden gauza batzuk benetan oso landuta daudelako; hortaz, sentazio polita dut, azpian geruza asko dituen icebergaren punta erakusten duelako.

**Pentsatu duzu liburu hau gaztele-raz idaztea?**

Horri buruzko hausnarketak ere badira. Zaila ikusten dut euskal partzialtasunari buruz mundu horretatik kanpo daudenengana heltzea, baina beti dago itzultzeko aukera, ezta?

**"PARADOXIKOA BADA ERE, ESPAINOLA ERE EUSKARA EZBERDINEN ARTEKO ERANSKARIA IZAN DAITEKE"**

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

BESTELAKO OLATUA!


**HEMEN DEBAGOIENA**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA,  
18:00/20:00 ETA 22:00  
EDUKI ETA FORMATU BERRITUAK

**goiena**

Zu hemen zaude.





Oihan Indart dantzaria, bere besoen itzala proiektatzen, kupulan. ELIRALE

# Kupula baten barruan, eta etzanda ikusteko

Elirale konpainia 'O' ikuskizunarekin dator Arrasateko Amaia antzokira zapatuan. Pantxika Telleriak egindako koreografiari Oihan Indar dantzariak emango dio forma. Dantza "dastatzeko" aukera izango dute 3 urtetik gorako ikusleek

**Mireia Bikuña Madrid** ARRASATE  
Txikiei zein handiei zuzendutako dantza-ikuskizun bereziarekin dator Arrasateko Amaia antzokira Elirale konpainia: *O!* izenekoarekin, hain zuzen. "Umeek harridura aurpegia ipintzen dutenean *O* handi bat egiten dute ahoarekin, eta hori da ikuskizun honekin lortu gura duguna: umeak harritu", dio ikuskizuneko koreografo Pantxika Telleriak. Dena den, dantza emanaldia 3 urtetik gorakoendako ikuskizuna da. Bi emanaldi egingo dituzte: 16:30ean bata eta 18:30ean bestea. Sarre-  
ra hiru euro da.

**30 minutuko emanaldia**  
Amaia antzokira hurbiltzen direnek aktore bakarria ikusiko dute: Oihan Indar dantzaria. Baina ez da egongo oholntza gainean, baizik eta oholntza gainean egongo den kupula baten barruan. Eta ikusleak kupula barrura sartuko dira, emanaldia ikustera. Eta emanaldia etzanda iku-

siko dute. "Itxitako kupula puzgarri harrigarrian egingo dugu dantza emanaldia. Sorkuntza-prozesu bat izango da. Bakarkako saio honek miresgarritasun arloa jorratu nahi du, mugimenduen, itzalen eta argien bitartez", azaldu du Telleriak. Era berean, formatu berezi horrek aukera ematen du ikuspegi panoramikoa izateko; 360 graduko ikuspegia, alegia."

Ikusleek gertu edukiko dute dantzaria, eta horrek obraren parte izateko ahalmena emango die. "Hurbiltasun horretan, ikusleek, dantza ukitzeko, sentitzeko

**"MIRESGARRITASUN ARLOA JORRATU GURA DUGU"**

**"DANTZA UKITZEKO ETA DASTATZEKO AUKERA EGONGO DA"**

PANTXIKA TELLERIA, KOREOGRAFOA

eta dastatzeko aukera izango dute, 30 minutu iraungo duen emanaldian".

**Harridura efektua**

Ikusleak kupula baten sartzearen ideiak eta horren garapenak bi urteko bidea egin du, eta jatorria dauka konpainiaren *Artha* ikuskizunean. "Ez da bat-batean sortutako ideia izan. Kupula erabiltzearena ondo landutako erabakia izan da. Neurri zehatz batzuetara egokitutako kupula da. Gure beharretara egin du enpresa katalan batek. Dantzariaren mugimenduek argiarekin sortutako itzalak ezker-eskuin islatuko dira kupulan, harridura efektua sortzeko".


Halako formatu batek, gainera, aukera ematen du dantza umei hurbiltzeko. "Haurtzaroan txunditzeo dugun gaitasunaz baliatuko gara beraiengana hurbiltzeko. Dantza erabiliko dugu, baina modu abstraktuan eta poetikoan".

## Goienakideen txokoa

### Urriko sariak

#### Kobo e-booka

